

Astelehenean baserrian, asteartean...

Lezoko baserriak lehen eta orain

*Usoa Barrutiabengoa Olazabal
Nerea Elias Muxika
Garoa Gonzalez Fernandino
Araitz Rodriguez Gutierrez*



Lezoko historia urratsez urrats 2

Lezoko historia urratsez urrats 2

Zuzendaria: Juan Carlos Mora Afán

Astelehenean baserrian, asteartean...

Lezoko baserriak lehen eta orain

Usoa Barrutiabengoa Olazabal

Nerea Elias Muxika

Garoa Gonzalez Fernandino

Araitz Rodriguez Gutierrez



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezo - Udala

2005

Astehenean baserrian, asteartean... : Lezoko baserriak lehen eta orain / Usoa Barrutiabengoa Olazabal... [et al.] - Lezo: Udala, 2005.

111 or. : ir. kol. eta tx. b. ; 24 cm. - (Lezoko historia urratsez urrats; 2 / Juan Carlos Mora Afán)

L.G. SS-146-05. - ISBN 84-932870-6-7

I. Barrutiabengoa Olazabal, Usoa

1. Baserriak - Lezo

338.431(466.2Lezo)

Argazkiak: Aipatu ezean, egilearenak.

Maketazioa: www.eragin.com

Inprimatzea: Gráficas Lizarra

ISBN: 84-932870-6-7

Lege gordailua: SS-146-05

Zuzendu gutunak helbide honetara:

ARANZADI zientzi elkarte

Zorroagagaina 11

20014 Donostia

Tel: 943466142 Fax: 943455811

idazkaritza@aranzadi-zientziak.org

www.aranzadi-zientziak.org

HITZAURREA:

Golde arrastoetatik honen erraz aurpegi zimurretara pasa diren lerroak, denbora daramate euskal baserritarren bihotza izurtzen. Kaiak eta inguruko herrien industrializazioak eraman zituen aurrera baserritar gazteen indarrak. Orduan baserrian bertan gelditutakoek, pareta zaharretako huntzaren moduan, askotan ez dute euren seme alaben segidarik izan eta horrek gure Jaizkibel magaletako baserria ihartzen utzi du. Garbi da hau ez dela iraganaren *liluraz* aritzeko liburua.

Euskal baserriaren maldan beherakoa aspaldiko kontu jakina da. Arazoa zaharra da eta horrek gure herriaren izaera txirotzen laguntzen duela pentsatzen dugunak ere bagara. Gustuko errealitatea ez izan arren, aspaldiko garai berrien ezaugarria da. Liburu honen egileek sarreran bertan bortizki aipatzen dute: *“Baserri tradizionalak ez du etorkizunik Lezon”*.

Batetik industrializazio azkarrak, eta bestetik, garapen sozio-ekonomiko desorekatuak, min handia egin diote ohiko bizimoduari. Gero eta hurbilago, Europatik azken urtetan etengabe datozen neurri, araudi eta muga berriek ez diote inolaz ere mesederik egin euskal baserriari. Zer esanik ez, hiri barneko bizimodu berri eta erosoagoak, administrazioaren zerbitzuen eskuragarritasunak zaildu egin dute baserrien bizimodua.

Ez da makalena izan marmarra baino gehiago deiadarra den kontsumo gizarte berri honen erakarmen zirikatzailea. Azken honek, urtetan laztandu eta bildu ditu baserriak sortzen zituen gazteen asmoak. Bizimodu gogor honek, maizegi saririk gabekoa eta bortitza, pentsamendu zurrunena biguntzeko modukoa, atzera utzi du baserri zahararren bizimodua.

Belaunaldien arteko haustura, nekazarien adina, aipatutako produkzio modu berriek eta oraindik orain aipatu ez dugun azpiegitura berri eta erraldoi horien eraikuntzak Lezoko baserria ataka zailean jarri zuen.

Arazoa serioa da, konplexua da eta liburu honen asmoetatik oso urrun gelditzen da. Liburu honetakoa Lezoko baserriari buruz egiten dugun bigarren saiakera-lana da. Gure artean aztirik ez dagoenez, ezin jakin zer gertatuko den euskal baserriarekin, zein izango den baserriaren etorkizuna, baina, baserria, gure mendi eta ingurunearen kontserbazioarekin oso loturik dago. Garapena beharrezkoa da, *jasangarria* diote adituek, nahiz eta euskal hitz honek ez duen lasaitasunerako leku handirik uzten. Baina pinua, kea eta porlana gure ohiko paisaia ordezkutzen ari diren honetan, euskal paisaiaren etorkizuna zein izango den da galdera. Izan ere, ni ere bat bainator Lord Byron-ek zioenarekin, gizakia bere inguruaren eraginez, inguruaren zatia bilakatzen dela.

Liburuaren egileek gogotik egin dute lan. Gure baserrien iraganean barrena egindako bigarren ibilbidea da honakoa eta ezin da azkena izan. Oraindik bidea luzea da: baserrien azterketa historikoa, arkitektonikoa.... Gizartea azkarregi ari da mugitzen, agian mendetan zutik izan diren etxeak, bideak eta inguruak oso epe laburrean desagertu egingo dira. Liburu hau, geneuzkan eta dauzkagun baserri eta baserritarren lekukoa izatea nahi genuke.

AURKIBIDEA

LANAREN METODOLOGIA	13
SARRERA	15
LEHEN ATALA: LEZO, ZENBAT ALDATU ZAREN!	17
BIGARREN ATALA: BASERRITIK BASERRIRA	27
Baserriko zantzuak	28
Baserriaren izaera	40
Baserrien tipologia	42
Auzolana kooperatiba bihurtua	60
...Eta besterik gabe...	63
HIRUGARREN ATALA: BASERRITARRA, HAU KOMERIA!	67
Antropologoa baserrian	69
Nekazal gunearen idealizazioa: “Ni bizi naiz baserrian animalien erdian...”	72
Baserriaren errealitatea Lezon: abantailak eta desabantailak	74
Nekazal turismoa: baserriaren itzulera?	79
Hau komeria!	87
LAUGARREN ATALA: GAUR EGUNA, BIHARAMUNA	91
Azpiegitura proiektu handiak	92
Ekoizpen ereduak	95
Merkaturatzen ereduak	99
...azkenean...	102
LABURBILDUZ	107
BIBLIOGRAFIA	109

LANAREN METODOLOGIA:

Lan hau egiteko bi informazio iturri erabili ditugu: idatzizkoak eta ahozkoak. Azken hauek izan dira oinarritzkoenak. Lezon hainbat elkarrizketa egin ditugu. Elkarrizketatuak aukeratu zerakoan zenbait aldagai izan ditugu kotuan: adina, generoa eta bereziki baserria erabiltzeko eta ulertzeko duten modua. Aldagai hauek present izatea ezinbestekoa da Lezoko baserrien eta baserritarren errealitate anitza azaldu nahi badugu.

Zenbait kasutan elkarrizketaturiko pertsonak, nahiz eta ikerlanean gustu handiz parte hartu, ez dute nahi izan beraien izena agertzea. Nahi hau errespetatuz elkarrizketatu guztiei izena aldatu diegu. Aipatu bezala, elkarrizketen bitartez lortutako datuei garrantzi handia eman diegu, horregatik, liburuan zehar sarri aipamen zuzenak agertuko dira. Aipamen hauen ostean berriemailearen ezizena agertuko da.

SARRERA:

Lezoko baserrien egoerak kezka sortzen du. Uka ezina da baserriak ez duela ez garai bateko indarririk, ez garrantzirik, ez prestigiorik. Baserri tradizionalak ez du etorkizunik Lezon. Baina nola eta zergatik iritsi da Lezoko baserria egoera honetara? Galdera honi erantzuten saiatu gara ondorengo orrietan. Honetarako Lezoko baserriek eta baserritarrek jasan dituzten aldaketen inguruko hausnarketa egin dugu. Nahiz eta datu eta estatistika batzuk agertu, ez dugu estatistika eta datuz beteriko lan bat burutu, baserritarren ahotsak dira liburu honen protagonista, azken finean zenbakien atzean hezur eta haragizko gizon-emakumeak baitaude, beraien bizipen, kezka eta iritziekin. Bizipen, kezka eta iritzi hauek Lezoko herritarrei helaraztea da gure helburua.

Burututako lan honen emaitza lau ataletan banatuta aurkezten dugu. Lehen atala, **Lezo, zenbat aldatu zaren!**, atalik ausartena da. Bertan Lezoko baserritarrek kontatutako bizi-penak bildu eta guk sortutako pertsonaia batek lehen pertsonan kontatzen dizkigu. Istorio honen bitartez, baserritarrak bidelagun harturik, arestiko baserritik gaur eguneko baserrira bidaiatu dugu. Lezon nekazal guneak jasandako aldaketak modu zientifiko batean aurkeztu beharrean irakurlea nekazal gunean murgiltzen saiatu gara.

Baserritik-baserrira izendatu dugu bigarren atala. Baserriak Lezon bete izan duen, eta gaur egunean betetzen duen funtzioaren azterketa egin dugu. Garai bateko **baserritik** gaur eguneko **baserrira** eman den jauzia ikertu dugu, baserria testuinguru berrietara nola egokitu den ikusiz eta bere funtzio ekonomiko nahiz sinbolikoa nola birmoldatu den aztertuz.

Hirugarren atalak, **Baserritarra, hau komeria!**, hausnarketarako atea irekitzen ditu parez pare. Lezoko baserriaren funtzio ekonomikoaz haratago, funtzio sinbolikoaren inguruko gogoeta egin dugu. Zein da baserriak euskaldunon mundu sinbolikoan betetzen duen funtzioa? Errealia al da eraiki dugun baserritarraren irudia? Nola eragin dute inguruan emandako aldaketek Lezoko baserritarren nortasunean? Galdera ugari plazaratu ditugu hirugarren atal honetan, eta hauei erantzuna emateko bide posibleak ireki ditugu.

Gaur eguna, biharamuna atalarekin ixten dugu liburua. Atalaren izenburuan ageri den moduan, gaur eguna eta biharra (etorkizuna) ditugu hizpide. Lezoko baserritarrek eguneroko bizitzan gainditu behar dituzten erronkei eskaini diegu tarte. Bai orainaldian eta baita etorkizunera begira sortzen zaizkien arazoei: azpiegitura handien proiektuak, nekazaritza intentsiboa eta honen ondorioak, oinordekotza arazoak...

Eskuartearen duzun lan honen helburua Lezoko baserrien errealitatea ahalik eta modu zuzenenean eta zabalenean islatzea izan da. Helburu hau betetzeko ezinbestekoa izan da Lezoko baserritarren laguntza. Guztiei mila esker.

I. ATALA

LEZO, ZENBAT ALDATU ZAREN!

*Jesus, Jesus! Santo Kristo daula,
horri esker dakigu oraindik hau Lezo dela.*

Lezoko aitona-amonon oroitzapenek, istorioek eta txuri beltzean mantentzen diren argazki zaharrek erakusten digute garai batean Lezok beste itxura bat zuela. Portuan arrainen eta jendearen joan-etorriak, herrian igande goizeko meza eta ondorengo hizketaldiak, baserrian belar moztu berriaren usaina. Hori da nik gogoratzen dudana Lezo! Urteen joanak guztia aldatu du, Lezok beste "hizkuntza" bat hitz egiten du.

Ni baserrian jaioa naiz, bost anai-arreben artean bigarrena, eta bitzta honetan hamaika buelta eman dituen. Haur ginela amak goizean goiz esnatzen gintuen anaia Tomas eta biok aitari behiak jezten lagun geniezaion. Ohe berean egiten genuen lo anaiak eta biok. Neguan batak bestearen gainean jartzen genituen oinak gaueko hoztasunak epeldu asmotan. Ukuilutik gora igotzen ziren aitaren ohiuek esnatzen gintuzten lozorrotik. Bera gu baino orduete lehenago jaikitzen zen ukuiluko lanak aurreratzera. Gizon langilea eta isila genuen aita.

Ukuiluko lanak amaitu orduko baserriko ate aurrean izaten nuen zain ama, egunero jaisten ginen herrira esnea banatzera. Eulali izena jarri zion amak astoari, Pasaian bizi zen izeba egoskor baten oroitzaz. Esne marmitak Eulaliren gainean jarri eta aldapan behera abiatzen ginen, isilik egiten genuen bidea.

Baserrian, Maritxuk, ahizpa zaharrenak, laguntzen zion amonari etxeko zereginekin. Dotore mantentzen zuten baratza, beraiei esker Irungo azokan arrakastatsuenak izaten ziren gure produktuak.

Baratzeko lana baino gutxiago gustatzen zitzaion Maritxuri arropak garbitzea. Baserritik 200 metro ingurura genuen auzoko iturria, hara joan behar izaten genuen ur bila. Urez beteriko marmita buru gainean jarrita egiten zuen iturritik baserrirako bidea, nekagarria egiten zitzaion, hala ere etxekoneko Bittor ateratzen zitzaionez bidera ez zitzaion hain astuna egiten, baina beno, hori beste istorio bat da. Urarekin itzultzen zenerako, amonak prest edukitzen zituen etxe atariko arraskan garbitu beharreko maindireak. Arropari xaboia eman eta gogor astinduz zuri-zuria uzten zuten. Garbitutako maindireak baserri ondoan geneukan belardiaren gainean zabaltzen zituzten, berdetara botatzen zituzten. Soroaren berdean margo zertzelada txuriak marratzuko balituzte bezala. Oraindik gogoan daukat arroparen usain fresko hura!

Anaia Tomas eta auzoko Bittor, goizero bidegurutze berean topatzen ziren portura, lanera, elkarrekin jaisteko, gazta eta ogi zatia besapean zutela. Tomasek adarra jotzen zion Bittor gizarajoari koinatu deituz. Mutiko lotsatia izaki, muxugorrituta jartzen zen berehala Bittor. Anaiaren soldata diru gehigarri bat zen, azkenean baserri txikia baikenuen eta ez baitzen hain erreza guztiok bertatik bizitzea. Normalean Tomas zen arraina deskargatzen lan egiten zuen bakarra, baina noizean behin, portura itsasontzi asko iristen zirenean, aita ere animatzen zen. Manuelek, lezoarra zen enkargatuak, egiten zuen baserriko bira langileak topatzeko. Gure aita bezala asko ziren noizean behin portura joaten zirenak. Ez ziren esku hutsik itzultzen aita eta anaia portutik, garai hartan deskargatutako ontzietatik arrain bat edo beste etxera ekartzeko aukera izaten zuten, hamaika legatz, bakailao eta angila jandakoak gara.



Etxeberrri baserriko amona Kattalin eta Joxe Mari semea baserrirako bidean. (Iturria: Lezoko fototeka)

Ordu erdi inguru behar genuen baserritik herrira iristen. Isil-isilik joaten ginen, gogoko nuen eguna pizten eta Lezo iratzartzen ikustea. Hartzaileak genituen Lezon han eta hemen, egunero ibilbide berari jarraitzen genion, egunero aurpegi berberak ikusten genituen. Ama zen haiekin hitz egiten zuena, nik bitartean esnez betetzen nizkien ontziak. Amak asko balio zuen salmentarako, jendearekin harremanak egiteko gaitasun berezia zuen. Batzuetan, partiketaekin amaitzen genuenean eskolara joateko astia geratzen zitzaidan; ez nuen oso gustuko eskolara joatea! Gainera, batuketak, kenketak eta sinatzen ikasita munduan zehar ibiltzeko nahikoa banekiela iruditzen zitzaidan. Oso noizean behin joaten ginen etxeakoak eskolara, beti zegoen zereginen bat baserrian.

Aitak hartzen zuen animalien ardua osoa bere gain. Tomasek eta biok behiak jezten laguntzen genion goizetan, eta amak ematen zien jaten oiloei. Gainontzekoa, azpiak jaso, ukuilua garbitu, behiak askara eraman, zerriei jaten eman... berak bakarrik egiten zuen. Gogoko zituen aitak animaliak, lagun leialak zirela esaten zuen, hala ere, sarri haserretzen zen beraiekin gauzak berak nahi bezala ateratzen ez zitzaizkionean.

Gizon bakartia zen aita, ez zeukan beste batzuek zuten hitz etorria, hala ere, oso maitea zuten auzoan, ez zuen inoiz ezetz esaten norbaitek laguntza eskatzen zionean. Gainera, hitz egiterakoan falta zitzaion grina soberan izaten zuen lanerakoan. Haur nintzen garaian

nekeza zen auzokoen laguntzarik gabe baserrian lan egitea. Belarretan aritzeko edo mendi bideak garbitzeko sarri aritzen ginen auzolanean. Udan, horretarako eguraldi aproposa zegoenean, bost bat laguneko kuadrila elkartu eta belarretan egiten genuen, belarra mozten batzuk, belarrari buelta ematen, besteak, eta belarra biltzen, azkenak. Gizon eta emakume; guztiok, batera aritzen ginen. Eguerdi partea iristen zenerako, amak prest izaten zuen bazkaria, saiheski puska bat edo bakailoa jan, ardo trago bat eta konforme itzultzen ziren auzokoak etxera. Hurrengoan geu izango ginen haienera laguntzera joango ginenak. Lana erruz egiten bagenuen ere, gogoko izaten nituen egun haiek. Elkarrekin solasean eta farrez ibiltzeko tartetxoak ere hartzen genituen. Bazen, Bittorren moduan, neskatan aritzeko probesten zuenik ere, ez zuen bakean uzten Maritxu, beti zegoen ari esku bat botatzeko prest edo irrifar bat oparitzeko desiatzen.

Maitasun kontuak ere ez genituen aparte izaten gaztetan. Igande arratsaldeko dantzaldiak izaten ziren hortarako une aproposak. Goizean baserrian lan egin ostean, beti ere aste osoan baino zertxobait gutxiago, bazkaldu, lokuluskatxoa bota eta prest izaten ginen gorputzak astintzeko. Etxetik Maritxu eta biok jaisten ginen alde batetik, eta Tomas eta Txomin auzoko beste lagunekin geratzen ziren guztiak batera jaisteko. Anaia txikia, Antton, gurasoekin geratzen zen. Neskek mutilek baino errazago izaten genuen dantzarako laguna topatzeko, gustukoa izan ala ez, ez zitzaigun "pretendienterik" falta. Mutilek, batez ere baserrikoek, lan handiagoa izaten zuten neskak konkistatzen. Kaletarrentzat baserritarrak "kaxeros" izaten ziren, hau da, asto xamarrak. Tomasek beti kontaktzen du zenbat izerdi kostatu zitzaion Manuela konkistatzea.



Herriko Plaza, "Gure Borda" ko inaugurazioa festak. (Iturria: Lezoko fototeka)



Baserritar bikotea, Juana Frantxiska Aiestaran eta Martin Lopetegi senar-emazteak. Martin Olamarta baserrian jaio eta Miura baserrian bizi izan zena. (Iturria: Lezoko fototeka)

Manuela herrian jaioa zen, jostuna, neska fina eta liraina. Tomasek egunero ikusten zuen portura bidean zihoala, agurtu, irribarre egin eta bere bidean jarraitzen zuen harekin hitz egiteko adorea noiz lortu zain. Dantzaldi egunean, bestalde, dena errazagoa egiten zitzaion, festa giroan murgilduta ez zitzaion hain luzea iruditzen Manuelarenganako bidea, adorea aurkitu eta elkarrekin dantza egiteko eskatu zionetik batera jarraitzen dute. Bitorrek ez zuen Tomasek adinako zorterik izan, Maritxuri berarekin harremanetan hasteko eskatu zionean ezetz esan zion gure ahizpak. Ez dut uste Maritxuri Bittor gustatzen ez zitzaionik, baserritarra ez, baserria zen ahizpari gustatzen ez zitzaiona. Nekatuta zegoen dagoeneko baserriaz, eta Bitorrekin ezkontzeak baserrian jarraitzera behartzen zuen, “behiak salduztuzu ta ordun jungo naiz ni”, esan omen zion Maritxuk Bittorri. Bien artean azkenean harremanik sortu ez zen arren, gure etxean “koinatu” deitu izan zaio beti Bittorri. Maritxu, azkenean, Irunen janari denda txiki bat zuen gizon batekin ezkondu zen.

Niri, bestalde, aitik ekarri zidan senarra etxera. Aitik txekor bat zuen salgai, eta Enrike zekorria ikustera etorri zen gure etxera. Oiartzungoa zen Enrike, baserrian bizi zen gura-soekin, anaia zaharrenarekin, eta honen familiarekin. Gustuko zuen baserriko lana, batez ere ganaduekin egin beharrekoa. Erosi zigun lehen zekor hartatik aurrera, etengabekoa izan zen Enrike eta gure familiaren arteko harremana. Aitarekin isiluneak elkarbanatzen zituen, etxeko gainontzekoekin hamaiketakoren bat edo beste, eta mila hizketaldi. Enrikek

eta biok elkarrekin ibiltzea erabaki genuenean ez zen ezustekoa izan etxean, guztiek zuten gustuko Oiartzungo mutil irribartsua, eta baserrian nirekin batera geratzeko gizon aproposa iruditzen zitzaien.

Enrikeren etorrerak goitik behera aldatu zuen nire bizitza eta baita etxekoen bizitza ere. Bizitzeko, gauzak egiteko, eta batez ere gauzak aldatzeko izugarrizko gogoia ekarri zuen. Baserriko lana oso gogoko zuen haurtzarotik. Baserria bere kezka eta poztasun iturri zela aitortzen zuen behin eta berriz. Gurera etorri zenean, baserriaren martxa hobetzeko hamaika ideia ekarri zituen berarekin batera. Bera izan zen makinariaren aldeko apustua egiten lehenetarikoa Lezon. Aitak ez zuen oso garbi ikusten makinena gaia, diru inbertsio izugarria zen, eta horretarako, ezinbestekoa zitzaigun bankuan kreditua eskatzea. “Inoiz eztiagu inorekin zorrik izan ta orain hasi behar al gaittuk?” errepikatzen zuen aitak behin eta berriz, ez zitzaion norbaiten “menpe” egotearen ideia batere gustatzen. Ez zuen gehiegi iraun senarran eta aitaren arteko eztabaidak. Auzoko Bittorrek traktorea ekarri zuen egunean ahaztu zitzaizkion aitari bere zalantza guztiak.

Antton, anaia txikia, izan zen traktorea ikusten lehena. Etxeko atarian zegoen ukuilura joateko katuska berdeak jazten. “Ama, aitta, Margari....” egin zuen oihu, etxean geunden guztiok tximista baino azkarrago atera ginen atarira, oihuak entzutean Anttoni zerbait gertatu ote zitzaion beldur izan ginen. Traktore gainean irribartsu topatu genuen Bittor, ez zait bizitza osoan ahaztuko irudi hura, eskuineko eskua astinduz agurtu gintuen denok. Portutik itzultzean, denbora gutxi gelditzen zitzaion Bittorri baserriko zereginetan aitarekin batera jarduteko eta traktorea izugarrizko aurrerapena izango zela zioen. Goitik behera begiratu genion traktoreari, aitak eta Enrikek bereziki. Belar sorora atera eta martxan jarri zuenean zeharka begiratu zion aitak Enrikeri; sorbaldan jarri zion eskua, orduan jakin genuen gurean ere traktorea izango genuela.

Batak bestearen ondoan lan egiten zuten Enrikek eta aitak. Sarri begiratzen nien sukaldedeo leihotik; nire bi gizonak! Isilik ibiltzen ziren biak, atsedena hartzeko geratzen zirenean ere ez zuten ia hitzik egiten, hala ere, agerikoa zen beraien arteko konplizitatea; atsegin nuen. Txominek, tarteko anaiak, noizean behin esku bat botatzen zien, baina kautxo fabrikari lanean hasi zenetik, ez zitzaion denbora gehiegi geratzen. Lagun baten bitartez hasi zen lanean fabrikari, “nobedadea” izan zen etxean, baserriko eta portuko lana soberan ezagutzen bagenituen ere, Txominek kontatutako kontu guztiak berriak ziren guretzako.

Industria eta enpresa berrien sorrerarekin batera, gora egin zuen kanpotik Lezora lanean zetorren etorkinen kopuruak, arras aldatu zen herria. Ama zahartzen hasia zenez neuk bakarrik egiten nuen etxez etxeko esne salmenta. Etorkinen etorrerarekin gora egin zuen hartzaileen kopuruak. Hasieran bitxia egiten zitzaidan betiko aurpegiez gain “kastellanoz” hitz egiten zuten emakume haiei esnea partitzea. Ez nuen asko hitz egiten beraienkin, jende ona zirudien, eta zuzen ordaintzen zuten. Txomin bera ere, berarekin batera fabrikari lan egiten zuten Avilako neska gazte batekin ezkondu zen.

Amalia baserrira ekarri zuen lehen aldian isiltasuna izan zen nagusi gurean. Igande eguerdi hartan familia osoa elkartu zen. Gurasoak, Maritxu, bere senar eta haurrekin, Tomas eta Manuela beren seme-alabekin, Antton eta Enrike eta biok. Guztira 14 lagun ginen sukaldeko mahaian. Etxean sartu zenean, goitik behera begiratu genion Amaliari, ez nuke pentsatu ere egin nahi nola sentituko ote zen momentu horietan. Bitxia, guztiz arraroa egiten zitzaigun Txomin maiteminduta, eta Amaliaz maiteminduta, ikustea, eta arras arraroagoa kastellanoz hitz egiten entzutea gure etxean. Bazkarian ez zen hitz handirik entzun. Amaliak bi urte zeramatzan Lezon, eta euskaraz hitz bat edo beste ulertzen bazuen ere, erdaraz hitz egitea ezinbestekoa zen elkar ulertu nahi bagenuen. Aitak eta amak justukoa zekiten erdaraz, eta gainera aita bezalako EAJ-ko afiliatu finarientzat, ia “bekatu” zen “maketoen” hizkuntza hori hitz egitea. Besteok esaldiren bat edo beste bota genuen, irribarreak soberan. Eskerrak sukaldean bueltaka zebiltzan haurrek isiltasun hura apurtzen zuten. Lehen topaketa hura oso ezerosoa izan zen arren, Txominena bezala, piskanaka gure bihotza ere bere egin zuen Amaliak, denbora gutxian etxekoa genuen hura ere, eta sarri igande goizetan baratzen laguntzen ninduen. Esku ona zuen baratzerako.

Joseba izateko nengoela utzi nion esnea etxez etxe saltzeari. Pena eta lasaitasuna, biak sentitu nituen lana uzterakoan. Pena ematen zidan hainbeste urtetako jarduna bertan behera utzi beharrak, eguneroko solasaldiekin amaitzeak. Baina, bestalde, lasaitu ederra izan zen egunero-egunero irratiko lehenengo meza entzutearekin batera jaiki behar ez izatea. Neskatila nintzenean hasi nintzen esne partitzen, zazpiren bat urterekin, hogeita batekin utzi nuen, hamalau urte nahikoa izan ziren. Marmitak hartu eta eskaileretan gora eta behera, kaleetan aurrera eta atzera, oporraldi eta atsedenaldi gabe. Hori du baserriko lanak, ez dagoela gelditzerik, hankak eta eskuak denak lotzen dizkizula.

Josebarekin hasi eta jarraian izan nituen hiru seme-alabak. Inoiz ez nuen uste izango haurrek horrelako lanik emango zutenik. Baratzeko lanak, etxeko lanak eta haurren zainketa zeuden nire gain, eta eguneko hogeita lau orduak motz geratzen zitzaizkidan gehienean. Ez zen eguna motz geratzen zitzaigun gauza bakarra. Baserriak ordurako ez zuen denontzako adina ematen, eta azkenean Enrikek Paper fabrikari lanean hastea erabaki zuen. Oso gogorra egin zitzaion hasieran aldaketa, bera baserrira, mendira, animalietara ohitua zegoen eta hura zuen gustuko. Berak antolatzen zuen bere lan eguna, bera zen bere buruaren jabe. Frabikan, bestalde, oso bestelakoa zen egoera, espazioa guztiz itxia zen, lanaren antolaketa zorrotza, eta hau gutxi balitz atzetik aginduak ematen zituen enkargatua. Erreleboka egiten zuen lan, eta fabrikari ez zegoenean baserriko lanekin jarraitzen zuen.

Aita, zahartua zen arren, beti zegoen esku bat botatzeko prest. Egia da baserria duena sekula ez dela jubilatzen. Anaia Antton ere, etxean mutilzahar gelditu zena, ere atsedetik gabe aritzen zen lanean. Esne-behiekin jarraitzen genuen, baina inguruko gehienek egin zuten legez, zentralari saltzen genion ekoiztutakoa. Baserriko bide gurutzera marmitak atera eta beraiek egiten zuten gainontzekoa. Ezin uka liteke lana aurrezten zenik, baina



Maria Olasagasti (1909-1997) Estefania Nieto (1890-1957) Maria Loasagasti Olaizola (1903) eta haurrak barat-zan (Jaizkibelpean). (Iturria: Lezoko fototeka)

irabazietan ere aldea izugarria zen. Bizilagun batek sarri kontatzen zuenez, garai batean litro esneren truke litro ardo eskuratu zitekeen, non geratu ote dira garai haiek? Guztia goraka zihoanean esnearen prezioak bere horretan jarraitzen zuen, beste diru-sarrerei esker izan ez balitz!

Oso aldapa gora egin zitzaigun seme-alaben haurtzaroa. Eskola, arropak... gastu handiak ziren, eta atsedetik gabe lan egin behar izan genuen. Enrikek garbi zeukan haurrak hazteko toki egokiena baserria zela, toki "naturalena" zen berarentzat. Lanerakoan herrian ikusten zuen giroa ez zuen oso gustuko. Kontatzen zuenez, haur kuadrilak han eta hemen egoten ziren herritik "suelto", inoren zaintzarik gabe. Baserrian, bestalde, beti zegoen norbait etxean, ni neu, aitona-amonak edo osaba. Baserria maite bagenuen ere, eta baserriaren abantailak ondo ezagutzen bagenituen ere, ordurako ez zitzaigun hain atsegina egiten baserriko bizitza. Merkatuan lehiakor izatekotan derrigorrezkoa zitzaigun makineria gehiago ekartzea, eta hauek eginiko zuloa estaltzen, hamaika izerdi bota behar izan genituen. Gainera, ez genuen hainbeste ahaleginen etekinik ikusten, baserria zaharkitua geratu zen. Enrike bera, baserri zale amorratua izan zena, nekatzen hasia zegoen baserriaz, ez zegoen arestiko txinpartarik bere begietan.

Seme-alabak kozkortzen hasi zirenean, ofizioa aukeratzen hasi ziren. Josebak igeltse-rotako ikasi zuen, Enrikek Pasaian zuen lehengusu batekin batera. Nekaneke ile-apaintzai-

le izateko ikastaroak egin zituen Donostiako akademia batean, eta gure Xabierrek soldadura ikasi zuen, berehala topatu zuen lana Lezoko tailer txiki batean. Hirurek utzi zuten atzean baserriko bizia. Noizean behin lagundu baziguten ere, beraien pausoak gero eta urrunago zihoazen baserritik, guregandik! Tristura apur bat ematen zigun hainbeste urtetako bizibideak jarraipenik izango ez zuela ikusteak, baina baserrian lotuta bizitzeko nahi-koak ginen Enrike eta biok. Enrikek berak hamaika aldiz errepikatu ohi zidan berak ostikoz botako lituzkeela seme-alabak baserritik, bertan geratzea erabaki izan balute. Bazekien lana gogorregia zela, eta beste edozein bizibiderekin lasaiago biziko zirela (opor egunak, asteburuak jai, soldata finkoa, paga bereziak, aisia...). Gainera, lana gogorra izan arren, etekina ateratzeko biderik izango balitz... baina ez!

Seme zaharrena, Joseba, izan zen gurekin baserrian geratu zena. Nekane eta Xabier kalera ezkondu ziren. Astero, igandetan, elkartzen gara guztiok etxean. Baserriko sukaldeak bizi pixka bat berreskuratzen du egun horietan. Noizean behin herrian dituzten etxe-etara ere eramaten gaituzte. Seigarren pisu bateko lau horma haiek ez digute ezer esaten senarrari eta bioi, tristura apur bat ere ematen digu leihotik begiratu eta zementuzko kaleak eta fabriketako keak soilik ikusteak. Enrikek dioen moduan, egokiena baserrian, baina baserriko lanaren laztasunik gabe bizitzea izango litzateke. Gaur egunean ia ez daukagu animaliarik, haragitarako lauzpabost behi besterik ez ditugu. Pixkanaka animaliak kentzen joan gara. Josebak goitik behera konpondu du baserria, gaurko etxeak ez du zerikusirik ni jaiotzen dituen etxe harekin. Auzoa ere zeharo aldatu da, etxe txikiak eraiki dituzte bazterretan, lehen borda zaharrak zeuden tokietan. Orain ez ditugu bizilagunak ere ezagutzen!

Arrats bat baino gehiago pasatzen ditugu Enrikek eta biok atarian eseri eta biloben jolasei begira. Gaur abokatuak izan nahi dute, bihar futbolistak, hurrengoan medikuak, eta baserritarrak? "Nola aldatu diren gauzak!" xuxurlatzen diot belarrira senarrari. Irribarre egiten dit.

II. ATALA

BASERRITIK BASERRIRA

Gaur egunean Lezon topatu ditzakegun baserriak ez dira garai batean bidaiari famatuek deskribatzen zituzten hoietakoak, “...*la vivienda clásica del vasco es el caserío, el baserri, aislado de las otras viviendas y desparramado por las laderas de las montañas. En los caseríos vive el arte de los vascos más sona de cuerpo y espíritu...*” [LABAYEN,97]

Dudarik gabe, ezin ditugu arestiko baserriak eta gaur egunekoak konparatu. Egoera sozio-ekonomikoa zeharo aldatu da eta honen ondorioz, baserrien egitura eta eginkizuna. Hau dela eta, atal honetan zehar, arestiko baserri hoiak deskribapen antropologiko bat egitea proposatzen dugu, honela Labayenen esaldia hobeto ulertuko dugu, eta bestalde, denboran zehar baserriak jasandako aldaketak sumatzeko gai izango gara. C. LEVI-STRAUSSEk (1958) dioen moduan edozein ikerketatan ezinbestekoa da historia kontuan izatea. Historiaz ahazten den ikertzaileak bere buruari iruzur egiten dio; Izan ere, guztia baita historia; atzo gertaturikoa historia da, baita orain bost minutu esanikoa ere. Baina historia ez kontuan izateak, bereziki oraina ez ezagutzera kondentatzen gaitu, prozesu historikoa ulertzea baita orainaren gakoak ulertzeko bide bakarra.

BASERRIKO ZANTZUA

Baserria landa guneko etxerik arruntena izan da Euskal Herriko paisaian, bederen Euskal Herri hezean. Baserri tradizionala¹ ez zen eraikuntza arrunt bat. Baserria unitate ekonomiko bat zen. Gune berean biltzen baitziren bizilekua eta lantokia. Unitate horretan bi jardueraz zeuden unitateari eusten ziotenak: ekoizpena eta lan eskua-
ren ugalketa. Familia ustiatzean ez zegoen ekoizpen arloaren eta ugalketa arloaren banaketa espazial-fisikorik. Elkarren alboan zeuden bi funtzioak: lan indarraren ugalketa eta ondasunen ekoizpena.

Askotan lanari buruz hitz egitean, lanaren oso ikuspegi mugatua erabiltzen da. Gehienetan, nekazaritza ekoizpena eta ekoizpen hori merkaturatzea soilik hartzen dira aintzat. Eta alde batera uzten dira



Joxe Mari, Xabier, Jose Antonio eta Manuel Dorronsoro Zabaleta anaiak, herriko jaietan. (Iturria: Lezoko fototeka)

¹ *Baserrri tradizionala nozioa* erabiltzen dugunean, gaur egunean galtzearen dagoen baserri eredu tipikoari egiten diogu erreferentzia, hau da, unitate ekonomiko gisa funtzionatzen zuen baserriari. Aurrerago ikusiko da baserri eredu hau etengabe aldatzen joan dela eredu berriak sortuz; beraz, beharrezkoa iruditzen zaigu baserri tradizionala besteengandik bereiztea.



Arriandi baserria.

etxeke lan taldearen² jarraipenerako eta mantenurako ezinbesteko diren eguneroko hainbat lan; umeen zaintza, arropa garbiketa, lan taldea elikagaiez hornitzea...

Baserri hitza erabiltzean, ez da eraikuntza soilik aipatzen, bere baitan etxetik at dauden bestelako eraikuntzak ere biltzen ditu: bordak, oilategiak, baratzak, askak... Etxe inguruko bazterrak ere sartzen dira *baserri* nozioaren barnean; beraz, baserriarren bizimodua modu zabal batean ulertzeko aukera ematen digu kontzeptu honek.

Aipatu dugun moduan, baserri tradizionala unitate ekonomiko bat izan da, eta bere helburu nagusia etekin ekonomiko batzuk lortzea zen. Honetarako baserria enpresa baten modura antolatuta zegoen, etxeke³ bakoitzak zuen bere zeregina. Zeregin hauek zehaztean, sexuaren arabera lan banaketa izaten zen irizpide nagusia. Sexuen arabera

²“Etxeko lan taldea” nozioa gaztelaniako “grupo domestikoaren” pareko erabiltzen dugu. Nozio hau ondoko libururitik jaso dugu: Barrutiabengoa, U; Elias, N; Gonzalez, G eta Rodriguez, A (2004) Ahotsak. Emakumeak Historian. Hernani: 1936-1970. Hernaniko Udala. Donostia.

³ **ETXEKO:** Etxe batean bizi direnei dagokie. “Ego”ren gurasoak, aurreko jaberaren anai-arreba ezkongabeak (osaba-izeba), “ego”ren ezkonkideak, anai-arreba ezkongabeak, seme-alaba ezkongabeak eta morroiek osatzen dute/zuten. “Ego”ren etxekeetatik at, anai-arreba ezkonduak eta aurreko jabearen anai-arreba ezkonduak gelditzen dira.

lan banaketa gizartearen genero sistemaren elementu garrantzitsuenetakoa da, eta gizarte guztietan ageri da, nahiz eta kulturaren eta momentu historikoaren arabera ezau-garri zeharo ezberdinak izan.

Baserrien kasuan ere gizon-emakumeek zeregin ezberdinak izaten zituzten. Hala ere, ez ditugu zeregin bakoitzaren mugak zurrunez ulertu behar. Emakumeak, baserrian, hiru lan tipologia betetzen zituen: nekazari lana (baratzeko lana, belarrak biltzea, esnea jez-tea...), etxeko lana (janaria prestatzea, arropa garbitzea eta jostea, umeak zaintzea...) eta baserriko produktuak merkaturatzea (batez ere barazki txikiak, behi esnea eta animalia txikiak).

Nahiz eta baserrietako emakumeek ere Lezoko baserrietan lan ugari egin, Udal Erroldetan ez da islatzen beraien lan hau. Baserriar gizonaen kasuan lanbide bezala "labrador" ipintzen zaie, emakumeei bestalde "sus labores", emakumeen lanaren ikuse-zintasanarekin aurkitzen gara aurrez aurre, 1951. urteko erroldan ageri denez.



Gaintza baserria. (Iturria: Lezoko fototeka)

Ayuntamiento de Lezo Recopilación Patronal de 1051

Relación de mujeres censadas domiciliadas que por quales causas hayan pasado a ser señoras de familia.

Edad	Nombre	Estado	Causa	Fecha	Años y meses en que se casó	
					Años	Meses
28	María	vi	Quiero casarme	1800	10	51
28	María	vi	Quiero casarme	1800	10	50
28	María	vi	Quiero casarme	1800	10	50
28	María	vi	Quiero casarme	1800	10	49
28	María	vi	Quiero casarme	1800	10	48
28	María	vi	Quiero casarme	1800	10	47

El Alcalde *[Firma]* El Registrador *[Firma]*

Iturria: Lezoko Udal Artxibategia.

Resuk haurtzarotik ezagutzen du bizimodu hau. Bere amak esnea saltzen zuen Lezo inguruko herrietan eta horrela gogoratzen du berak: *“Esneakin jutentzan ama Pasaiara, Antxora. Astoakin estazioa, astua uztentzun estaziuan, hor, apederua do, hor uztentzun, gero tren hartzen tzun ta hara jutentzan ta esnia partitzen” RESU.*

Baserriko gizonei dagokionez, emakumeekin bi jarduera partekatzen zituzten; nekazaritza lana eta produktuak merkaturatzea. Nolanahi ere, partekatzen zituzten lan horietan baziren zenbait desberdintasun, adibidez, produktuak merkaturatzeari dagokionez, gizonezkoak gehienetan animalia handiak merkaturatzeaz arduratzen ziren, eta emakumeak, berriz, baratzeko produktuez eta animalia txikiez.

Produktuen salmentan, produktuaz gain, maiztasuna ere ezberdina izaten zen. Emakumeak egunero, edo ia egunero, joaten ziren merkatura, gizonezkoak berriz, astean behin edo birritan. Gerbasiok kontatzen digunez, bera normalean Irun aldera joaten zen, gainera ez zen beti produktuak saltzera joaten, prezio, nobedade, etab egunean jartzeko probesten zituen bidaiak, *gu ferira jutun giñan ba Irunera. Astelehenetan hiruretako tren hartu eta han jutun giñan, zazpietako buelta. [...]. Ez lanera ez, ezta pentsatu ere! Pixkat egunean jartzera. GERBASIO.* Azoka eguna festa eguna izaten zen zenbait baserritarrentzat, lagunekin elkartu eta solasean egoteko aukera ematen zuen.

Sexuaren araberako lan banaketa asimetricoa zen. “Etxeko” lanak emakumeen eskuetan soilik gelditzen ziren eta ez zituzten era horretako lanak gizonekin partekatzen. Amek esne eta baratzeako produktuen salmenta eramaten zutenez, etxean gelditzen zen beste emakume batek, —kasu batzuetan amonak eta beste batzuetan alabak—, hartzen zituen bere gain etxeko lanak. Gerbasiok hitz gutxitan laburbiltzen digu nola antolatzen ziren etxean; *Ordun gurasoak, ama juten zan esne pixkakin eta berdurakin juten zan herrira eta Errenterira, errepartitzera juten zan. Aita berriz, gelditzen zan beste seme alabekin etxen, ta sukaldeko lanak arreba zaharrenak, beste arreba ta beste bi anaiak ebai. Bat mutil koxkorra zen, gazteena, oraindik eskolara joaten zan.* GERBASIO.

Baserrietako seme-alabek ere izaten zuten beren eginkizuna. Normalean oso gaztetatik parte hartzen zuten baserriko lan banaketetan. Arruntena aitari edo amari laguntzea izaten zen. Baserriko zama handiena bikoteak zeukan, seme-alabek zama hauek arintzen laguntzen zutelarik, *gero atsaldetan, asteburuetan eta oporretan aitari lagundu behar, betiko martxan. Janaria ematen, oiluak genitun, granja bat genuen oiluena eta gero, belarretan, patata ereiten, artua ereiten, urtero martxa berbera eta urtero.* KARMELO.

Lezori dagokionez, aldaketa ekonomikoen eta bereziki teknologia berrien eraginez, pixkanaka eraldatu egin zen baserriko lanen banaketa. Aurrerapen teknologikoak eta esne



Amona Kattalin, Etxeberri baserrian. (Iturria: Lezoko fototeka)



Zubitxo aldeko baserri bat. Emakumeak ageri dira erreka bazterrean arropak garbitzen. (Iturria: Lezoko fototeka)

enpresen sorrera dira Lezoko baserriarregan eragin handiena izan duten bi gertakariak. Gerbasiok indar handiz deskribatzen dizkigu aurrerapen teknologikoen abantailak: *Arraio Jesus, Maria eta Jose! Autokargadorerik ez daukagu baina traktoria konpleto dago fresadorakin eta lurra txikitzeko ta denakin, ereiteko ez degu baina garai batian segan, orain bat juan eta ordu batean dana egina. GERBASIO.*

Aitziber MURUA URIBE-ETXEBERRIAK⁴ jasotakoaren arabera, Lezon ondorengo taulan agertzen diren makinariarekin aurki gaitzke:

MEKANIZAZIOA	
Traktoreak	27
Motosegak	101
Behiak jezteko makina mugikorak	2
Behiak mekanikoki jezteko instalaizoak	29

Eustat 97-98 urtekaria.

⁴ MURUA URIBE-ETXEBERRIA, A. (2000). *Lezoko Baserriak*. Lezoko Udala.

Ondorengo taulan, bestalde, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako datuak topa daitezke. Taulan 1993. urtetik hasi eta 1998. urterainoko datuak agertzen dira, bai EAERI eta baita lurralde historiko bakoitzari dagokionak ere.

NEKAZARITZA SEKTOREA										
MAKINA-KOPURUA E.A.E.ko LURRALDE BAKOITZEKO										
MAKINERIA	Traktoreak		Guztira		Guztira	Auto- bultzatuak	Narrazaramanak	Atoiak	Guztira	
	LURRALDEAK	Kateazk.	Gurpilez.	Traktor.						Motokult.
ARABA	1.993	11	6.706	6.717	1.507	8.224	916	554	4.730	14.424
	1.994	11	6.681	6.692	1.478	8.170	910	473	4.785	14.338
	1.995	11	6.766	6.777	1.476	8.253	907	456	4.739	14.355
	1.996	10	7.006	7.016	1.501	8.517	910	447	4.814	14.688
	1.997	9	7.115	7.124	1.502	8.626	904	454	4.885	14.869
	1.998	9	7.255	7.264	1.503	8.767	910	473	4.950	15.100
BIZKAIA	1.993	1	4.466	4.467	4.856	9.323	0	331	3.579	13.233
	1.994	2	4.444	4.446	4.802	9.248	3	351	2.696	12.298
	1.995	2	4.522	4.524	4.808	9.332	3	358	2.707	12.400
	1.996	2	4.773	4.775	4.872	9.647	1	355	2.677	12.680
	1.997	2	4.850	4.852	4.874	9.726	1	367	2.662	12.756
	1.998	3	4.923	4.926	4.871	9.797	1	349	2.662	12.809
GIPUZKOA	1.993	14	3.101	3.115	5.323	8.438	0	122	3.656	12.216
	1.994	14	3.341	3.355	5.052	8.407	0	129	3.807	12.343
	1.995	25	3.472	3.497	5.097	8.594	0	133	3.630	12.357
	1.996	26	3.583	3.609	5.219	8.828	0	147	3.730	12.705
	1.997	26	3.939	3.965	5.335	9.300	0	151	3.721	13.172
	1.998	28	3.994	4.022	5.305	9.327	0	151	3.721	13.199
CAE	1.993	26	14.273	14.299	11.686	25.985	916	1.007	11.965	39.873
	1.994	27	14.466	14.493	11.332	25.825	913	953	11.288	38.979
	1.995	38	14.760	14.798	11.381	26.179	910	947	11.076	39.112
	1.996	38	15.362	15.400	11.592	26.992	911	949	11.221	40.073
	1.997	37	15.904	15.941	11.711	27.652	905	972	11.268	40.797
	1.998	40	16.172	16.212	11.679	27.891	911	973	11.333	41.108

* (1) Biltzeko makina

* (2) Bilgailu fardogileak

DE: Datu eza

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko –Jaularitza)

Taulan ageri den moduan euskal baserrietan etengabe joan da areagotzen makinariaren presentzia. Geroz eta garrantzitsuagoak bilakatu dira eguneroko lanerako.

Nekazaritza makinariaren inguruko daturik berrienak 2002. urtekoak dira. Hauek ere EAE eta probintzia mailakoak dira, eta gaur eguneko egoerara gehien hurbiltzen direnak.

Nekazaritzako makina kopurua(1) makineri motaren arabera. 2002				
	EUSKALAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Traktoreak	17.429	7.668	5.259	4.502
Motokultoreak, motosegak, motoaitzurrrak eta motofresadorak	11.736	1.491	4.885	5.360
Uzta biltzeko makinak eta bilgailuak	1.901	1.224	395	282
Jezteko makina eramangarriak	3.423	189	1.977	1.257
Makinaz jezteko instalazioak	3.132	410	927	1.795
Esnea hozteko tankeak	5.963	597	2.285	3.081
Ereiteko makinak	2.469	2.391	32	46
Simaurra zabaltzeko atoiak	640	212	394	34
Minda-andelak	522	230	171	121
Ateratzeko makinak	905	905	0	0
Golde belarridunak edo diskodunak	5.381	3.188	796	1.397
Areak	1.116	100	531	485
Lurra lantzeko makinak	3.749	3.298	187	264
Ongarritzeko makinak	3.225	3.092	96	37
Ihinztagailuak eta hautsezttagailuak	3.333	3.149	77	107
Traktore-atoiak	11.333	4.950	2.662	3.721
Bazka-segamakinak	690	370	147	173

(1)Ustiategiaren jabetze eskusiboa

Data 2004ko Ekainaren 15a

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza

Aurrerapen teknologikoez eta makinariaren erabilera areagotzeaz gain, Lezoko baserri bizitzan izugarritzko aldaketa eragin zuen beste gertakari bat esne enpresen sorrera izan zen. Esne enpresen eraginez, etxez etxeko salmentaren eta azokako salmentaren amaiera etorri zen. Esne enpresetakoak ziren baserrira hurbildu eta zuzenean esnea erosten zutenak, honek denboraren eta lan eskuaren aurrezteka ekarri zuen.



Mikel Mikura baserriko atarian.

Denbora eta lan esku honen aurrezteak etxeko lan talde guztiarengan eragin bazuen ere, agerikoena belaunaldi berriengan, hau da, seme-alabengan, izan zuen eragina da. Baserriko zereginetatik “aske”, eskolara bideratu zituzten baserritarrek beren seme-alabak. Bizitza baloreen aldaketaren hastapenetan aurkitzen gara. Garai hura abiapuntu izanik, gaur egunean, bai Lezon eta baita Euskal Herriko beste hainbat lekutan ere, baserri-tar gurasoen lehenetasuna bilakatu da seme-alabek ikasketak izatea eta etorkizunerako baserria ez den beste bide batzuk jorratzea, “*nik lau, hiru seme eta alaba. Bi ezkondu zaizkit Hondarribira eta beste Irunera eta beste biak etxean...bere kontu argazki eta kozinero ibiltzen zait*” MARTIN. Irakurri dugun moduan, aipatutakoaren adibide adierazgarria izan daiteke Martinen familiarena. Berak esne salmentaren bitartez mantendu ditu etxeoak, baina egun, bizibide honetatik urrun bideratu ditu seme-alabak.

Garai batean baserriarren lehenetasuna baserriaren bizirautea zen, eta nahi edo ez ondorengoetariko bat bederen “behartuta” zegoen baserrian jarraitzera. Iñakik kontatu digunez, gaztaroan baserritik kanpo lan eskaintza ugari izan zituen, bai igeltsero lanerako, bai fabrikari lan egiteko. Baina aitak lan horietakoren bat onartu ezkeroko baserria saltzearekin mehatxatu zuen, ez, *ni aitten ondon jarri nintzan, ta segi ta segi. Nik laneako deiak izan nittun asko... igeltserotako, lenau esan det puertoako deitu ziaten. Baina aittak esan tzian hik alde eitten baek nik saldu ingoit*” IÑAKI. Egoera honetan, Iñakik baserrian jarraitu zuen. Gaur egunean Lezon baserri hutsetik bizi den baserritar bakarrentetarikoa da bera.



Garai bateko familia zabalaren eredua, Salaberriarrak. (Iturria: Lezoko fototeka)

Lezok jasandako industrializazio prozesuaren eraginez, izan zen baserriatik fabrikara aldatzea erabaki zuen baserriarrik ere. Fabriketako lana, zortzi orduko lan eguna eta soldata finkoa, oso erakargarriak bilakatu ziren askorentzat. Fabrikatik irteerakoan egiten zituzten baserriko lanak. Gainera, aipatu dugun moduan, esku lanaren beharra gutxiagotu egin zen aurrerapen teknologikoei esker eta, beraz, ez zen hain beharrezkoa baserrian jende asko egotea.

Lezoko demografia eta industria XX. mendean liburuan G. GARMENDIAK eta A. SAN ROMANek bildu duten gisan, mende hasieran abiatu zen industria modernoa Lezon, 1911. urtean sortu zen lehen eraikin industrialak Lezon, *Union Comercial de las Manufacturas Parkers* hain zuzen ere. Mende hasierako Lezoko industriaren sorrera oso interesgarria den arren, ez da garai hau izango baserriarrik fabrikara erakarriko dituenak. 40ko hamarkadaren amaieran hasi eta 50-60eko hamarkadarako izango dira garapen industrialaren momentu aipagarrienak, eta orduan inguratuko dira baserriarrik fabriketako keetara⁵. 50eko hamarkadan Espainiako sistema ekonomikoa nazioarteko kapitalismoa-

⁵ GARMENDIAK, G eta SAN ROMAN, A (2003) *Lezoko demografia eta industria XX. Mendean*. Lezoko Udala eta Aranzadi Zientzia Elkarteak, Lezo.

rekin uztartu zen, eta estatu mailako aldaketa horrek eragin handia izan zuen eskualde zein herri mailan.

Lezoko Udal artxibategitik jaso dugu jarraian aurkezten dugun errolda. 1951. urteko errolda honetan agerian geratzen da aurreko lerroetan aipatu berri duguna. Zenbait baserriarren lanbidea “labrador” moduan agertzen den arren, badaude jada baserriko semeak izanagatik ere “obrero” moduan agertzen direnak. “Labrador” izendapenaren pean daudenak ezkondu edo alargunak dira, “obrero”en taldean, berriz, ezkongabeak ageri zaizkigu. Datu hauek ikusirik, pentsatu liteke bereziki belaunaldi gazteak izan zirela fabriketara hurbildu zirenak.

Baserritarrak fabriketara hurbiltzeaz gain, garapen ekonomikoak, baserriak merkatuarekin zuen harremana aldatu zuen, egitura ekonomikoak industria eta hiri kontsumora bideratu ziren, herrien gutxitzea ekarriz. Ekoizpen ereduak zeharo aldatu ziren, bai eskulan gutxiago zegoelako eta baita aurrerapen teknologikoen geroz eta garrantzi handiagoa hartu zutelako. Nekazaritza intentsiboa nagusitzen joan zen, eta gaur egunean ezagutzen dugun ereduak sortu zen. Ekoizpena intentsifikatzearekin batera merkaturatze bideen gaineko kontrola galtzen du nekazariak, bere kontrolpean ez dauden elementuek baldintzatzen dute bere jarduera.



Langileak lantegi batean. (Iturria: Lezoko fototeka)

Honen guztiaren eraginez, baserri bizitzaren inguruko zalantzak sortzen dira, eta ondorioz Lezoko baserria ohiko ekintzetatik aldentzeko da.

BASERRIAREN IZAERA

Garai batean baserria zen nekazal gunea egituratzen zuena. Baserriaren inguruan antolatzen ziren bai gizarte harremanak, bai elkarlaguntza sareak, bai prestigio erlazioak ere. Aipatu dugunez, baserria unitate ekonomikoa zen, eta bai lantokiak eta baita bizitokiak ere bat egiten zuten espazio berean. Baina funtzio ekonomikoaz gain, baserriak funtzio identitario garrantzitsu bat ere betetzen zuen. Baserria zen, adibidez, etxekoei izena ematen ziena, eta guztiak ezagutzen zituzten etxe bakoitzeko kideak, *lehenago garaitan izaten zan dana, zein baserritan zein bizi zan. Lehenago jendia preokupatzen zan, ze etxetan zein eta nola eta zergaitik. TERE*. Nortasun emale izateaz gain, baserria prestigio emalea ere bazen, halako edo holako baserrikoa izateak garrantzi handia zuen baserrien arteko harremanetan.

Gizartea egituratzen zuen baserriaren nolakotasuna ulertu nahi badugu, oinarritzkoa da hiru hitz hauek kontuan izatea: “familia”⁶, “etxe” eta “etxe”. Bai nozio hauek eta baserriari lotuak zeuden gainontzeko beste nozio guztiak ere gizartea egituratzen zuten. Gaur egunean, bestalde, hitz hauen eragina desagertzen doa, baita landa guneko hiztegitik ere. Zalantzarik gabe egindako elkarriketetan inork ez zuen “etxe” hitza erabili. Behin eta berriz errepikatzen zen hitza “familia” izan da. Bertatik ondorioztatu behar dugu “etxe lan taldea” eta bestelako senideez aritzeko FAMILIA hitza erabiltzen dela, dena homogenizatuz, berdinduz. Hau dela eta Arpalen esaldi hau oso kontuan izan behar da “*la crisis del caserío ¿la crisis de la familia?*” Arpal (1979).

Baserria eta *familia* landa gunean elkarrekin zihoazen bi hitz izan dira. Aurrerago aipatu dugun moduan, baserriak “familia enpresa” baten moduan funtzionatzen zuen, eta familiakide bakoitzak zituen bere eskubide eta betebeharrak enpresa honen barruan. Beraz, ARPALek dioen moduan, baserrian emandako krisiak zuzenean familian eragiten du. Guk alderantzizkoa ere baieztatuko geneke, hau da, familia egitura ematen den edozein aldatketak baserriaren funtzionamendua aldatzen duela.

Baserriaren inguruan idatzi diren lanak irakurtzen baditugu oharretan gara baserriaren izaeraz hitz egiterakoan hainbat egilek baieztatzen dutela baserriak “indarra”⁷ zuela. Indarra gauzek edo izaki bizidunek duten berezko ezaugarri bat bezala definitu da. Guri dagokigunez, baserrien “indarra” landa gunea egituratzen zuen araudi multzo bat bezala ikertuko dugu.

⁶ **FAMILIA:** Ego, ezkontidea, odolokideak, ondorengoeak eta ahaideak osatzen dute. Hitz honen definizioan elkarbizitzak ez du inolako garrantziarik. Familiakideek eskubide eta beharrak dituzte, hala nola, anai-arreben arteko elkarlaguntza.

⁷ Honen inguruko informazio gehiago jasotzeko OTT, S. (1981) *The circle of mountains: a basque shepherding community*, Oxford University, Oxford. Euskarara itzulia dago (1995) *Artzai komunitate euskalduna*. Gaiak, Donostia.



Salaberriatar bikote gaztea baserriko atarian. (Iturria: Lezoko fototeka)

Aurreko paragrafoan aipatu dugun bezala, baserriari atxikitzen zizaion “indarra” gizartea egituratzeko tresna bat zen, hau da, honen bidez gizartea orekaturik mantentzeko. Hala ere ez pentsatu arazorik ez zegoenik, oreka hori nahiko hauskorra baitzen. Desoreka “indarraren” atzean ezkututzen ziren arauak hausten zirenean gertatzen zen. Suposatzen zen baserria ondorengotza prozesu baten eraginez belaunaldiz belaunaldi pasatzen zela, normalean gurasoek seme-alaba bati eta heuren bikotekideari baserriaren gobernu pasatu behar ziola. Hau gertatzen ez zen momentuan, hau da, familia kide zaharrenak ondorengotza eta beronen bikotekideari etxeko boterea pasatzen ez zionean, pentsatzen zen arau hauste honek etxeko indarra bortxatzen zuela. Izan ere, familia kide zaharrenak bere oinordekoari etxeko jabetza eman behar baitzion etxeko indarra jabe berriak eskura zezan.

Horrenbestez “indarra” bortxatzeak nekazal gunea antolatzen zuen giza egitura apurtzea suposatzen zuen. Giza egitura apurtzea, hitzik gabe adostutako hitzarmen bat apurtzea zen.

Orain arte azaldutako guztia garai eta sinesmen jakin batzuetan oinarritutako gizarte batean kokatua dago eta gaur egun interesgarria izango litzateke “indarrak” betetzen duen funtzioa ikertzea. Egun familia asko ez dira bizi baserriren kudeaketatik, izan ere eskema tradizionalak pixkanaka aldatuz baitoaz, hausturak sortuz eta lokarriak apurtuz. Honek euskal gizartea, eta batez ere nekazal gunea, hutsune kultural batean murgiltzen du. Azken batean, gizartea aldatu egin da eta berarekin batera bere beharrak. Laburbilduz, baserriak eraikuntza izateaz gain, garai bateko gizartea egituratzearen funtzioa betetzen zuen. Azken batean, gizarte harek baserrian eta honek zekarren egituraketan sinesten baitzuen. Baserria orainaren eta etorkizunaren ardatza zen.

BASERRIEN TIPOLOGIA

Aurreko atalean esan bezala, gaur eguneko egoera oso bestelakoa da. Gaur egun baserriak ez du garai bateko etorkizun argi hori islatzen, eta beraz, baserriarren errealitatea beste bat da, garai haietakoekin zer ikusirik ez duena. Lezon baserriatik bizi diren “etxeke lan taldeen” kopurua ez da dozena erdi batetara heltzen eta hauen adinaren batz besteak duela sei urtekoa baino altuagoa da. Gainera, pertsona hauetariko asko ezkongabeak dira. Oraindik ere adineko baserriarren artean “etxekeak” eskubideak⁸ mantentzen dira, horrexegatik oso arrunta da anai-arreba ezkongabeak baserrian elkarrekin bizitzea. Honi dagokion adibide argiena Bordatxo baserrikoa da. Kasu honetan hiru pertsona bizi dira, gizon bat eta bi emakume, guztiak ezkongabeak, hain zuzen.

“ikerlaria: orain zeintzuk bizi zarete etxean?”

“elkarrizketatua: bi arreba eta ni, solteroak. Solteros y enteros” BORDATXO



Bordatxo baserria.

⁸ Anai-arreba ezkongabeek etxekeak diren heinean, baserrian gelditzeko eskubidea dute. Hau da, bikote batek jasotzen zuen oinordekotzan baserria, baina anai-arreba ezkongabeak bertan bizitzeko eskubidea zuen.

Ezkingabeen ereduarekin jarraituz, gurasoekin bizi direnak ere badaude, hau da, kasu hauetan seme edo alaba ezkingabeak hartzen du baserriaren ardura, bai ama alarguna delako edo baita aita zaharregia delako ere. Hau da “Amuntane” edo “Miura”⁹ baserrietan gertatzen dena. “Mikura” baserrian ere seme-alabetariko batzuk gurasoekin batera bizi dira; oraindik etxetik kanpora ez dutelako etorkizunerako planik egin. Hauek ordea ez dute baserriaren ardura oinordekotzan jaso nahi. Gazte hauek haien lanbide eta etorkizun planak baserriaren bizitza tradizionaletik urrun egin dituzte, hasierako atalean aipatutako eredu argi bat da baserri honetan gertatu dena, baina ez dugu pentsatu behar bakarria denik. *“Ta inork eztu nahi e! Nik oain gustoa utziko nion bati, hor badie alaba ta gaztiak e, baino ez dute nahi. Ibiltzen die pixkat... baino ez dute nahi” FELI.*

Beste kasu batzuetan senar-emazteek bakarrik ateratzen dute aurrera baserria. Seme-alabak beste herri batetara joan dira beraiek osatutako familia berriarekin. Kasu hau da arruntena, azken finean Lezon, beste herri askotan gertatzen den legez, landa gunea despopulatu ari baita belaunaldi gazteen “ihesaldiaren” ondorioz. Gurasoei sarritan zail egiten zaie beren ondorengoek herri edo hiri guneko bizitzari zer bilatzen dioten ulertzea, *gustauko litzaiake nei, ojala danak kalean herrian beharren baserrin. Ordun gustoa jungo nitzeke ikustea. Kalea noizean behin juten naiz baiño... Ni beti onea ohitua. Ta lanbaten o iganden bazkaltzea ta askotan ematen naute, hara sartzen naiz ta han, pareta besteik ezta ikusten.* MIGUEL.

Ikusi dugunez, baserriko biztanleriaren eredua oso heterogeneoa da. Sarritan nekazal gunea nahiko modu homogenizatuan aurkeztua izan bada ere, betidanik egon da aniztasun handia baserrien artean. Hainbat elementutan ikusten da aldea: jabegoan (maizterra/jabea), lur kopuruan eta lurren ezaugarrietan, animalia mota eta kopuruan, etxeko lan taldearen osaketan, etab.

Lehen esan dugun moduan, baserri barruko “etxeko lan taldearen” egitura aldatzen joan da, Lezoko baserritarrek batez ere kideen gutxitzea azpimarratzen dute. Beste era batean esanda, gaur egun baserria aurrera atera ahal izateko esku gutxiago daude iraganarekin alderatzen badugu. *“...lehen familiak handiak zian ta haik... orain gaizki bizi gea, osea, ni ez naiz gaizki bizi egie esan, baino nik andria ta bi, hiru euko banittun ordun ba..” IÑAKI.* Aurrerapen teknologikoei esker sarri pertsona bakarrak egin dezake lehen hiruren artean burutu beharreko lana, baina badago makinaren konpainia baino jendearen konpainia nahiago duenik, *makina ona da, baiño jendia hobia. Lehen jendia etortzentzian, gue osabata bezela, etortzentzian ta aittei laundu ittentzioten.”* IÑAKI.

Azken batean, deskribatutako Lezoko baserri tradizionalen egoera honek, euskal kultura tradizionalaren familia tronkalaren ideia bertan behera uzten du gaur egun. Hau da, bizi-modu honek ez dauka zentzurik gaur eguneko baserrietan. Zalantzarik gabe, nekazal bizitzaren idealizazio honek hiritar garapenean du jatorria.

⁹ Hiru baserri hauek Herriondo auzoan kokatzen dira.

Orain arte azaldutako familia egituraketa baserria bizimodu bezala ulertzen dutenei dagokie, hauek Baserri Tradizionala izenpean ezaugarritu ditugunak dira. Azaldu dugun legez, familia hauen ekonomia baserrian soilik oinarritzen da, gaur eguneko kasuan eta Lezon, hain zuzen ere, eguneroko ekonomiaren ardatza behi esnearen salmenta da.

Jarraian datozen bi tauletan agertzen zaizkigu bai behi esne eta baita ardi esne salmentaren inguruko datuak. Datuak probintzia eta Autonomi mailakoak diren arren, guk ikusi dugunez, Lezon ere bertan agertzen diren joerak nagusitzen dira.

Behi-esnearen produkzioa, helburuaren arabera sailkatuta. 2002									
	EUSKAL AE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		
	Mila L	%	Mila L	%	Mila L	%	Mila L	%	
GUZTIRA	254.508	100,0	50.560	100,0	99.148	100,0	104.800	100,0	
Ustiapenean kontsumitua edo eraldatua.	10.660	4,2	1.610	3,2	4.425	4,5	4.625	4,4	
Hazkuntza eta aurrekoen hazkuntza	8.250	3,2	1.450	2,9	3.300	3,3	3.500	3,3	
Zuzeneko giza kontsumoa	2.410	0,9	160	0,3	1.125	1,1	1.125	1,1	
Merkaturatua	243.848	95,8	48.950	96,8	94.723	95,5	100.175	95,6	
Kontsumitzaileei zuzenean saltzea	10.973	4,3	965	1,9	4.758	4,8	5.250	5,0	
Esne-zentralei eta esneki-lantegiei emandakoak	232.875	91,5	47.985	94,9	89.965	90,7	94.925	90,6	

Data 2004ko Ekainaren 2a

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Behi esnari dagokionez, eta merkaturatzeari begiratzen badiogu, ikus dezakegu ia desagertzearen dagoela zuzeneko salmenta, eta esne-zentralei edo esneki-lantegiei saltzearen joera berriz, goraka doala.

EAE	% 4,3	Zuzeneko salmenta.
	% 91,5	Esne enpresei.
Gipuzkoa	% 5,0	Zuzeneko salmenta.
	% 90,6	Esne enpresei.

Ardi esnearen produkzioa, helburuaren arabera sailkatuta. 2002								
	EUSKAL AE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Mila L	%	Mila L	%	Mila L	%	Mila L	%
GUZTIRA	10.328	100,0	2.397	100,0	2.145	100,0	5.786	100,0
Zuzeneko giza kontsumoa	43	0,4	7	0,3	15	0,7	21	0,4
Gaztak eta mamiak	4.965	48,1	265	11,1	1.250	58,3	3.450	59,6
Kontsumitzaileei zuzenean saltzea	515	5,0			45	2,1	470	8,1
Esne-zentralei eta esneki-lantegiei emandakoak	4.805	46,5	2.125	88,7	835	38,9	1.845	31,9
Emeak	132.426		29.654		27.987		74.785	

Data 2004ko Ekainaren 2a

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Ardi esnari dagokionez, ekoiztutakoaren zati handi bat gazta edo mamiak egiteko erabiltzen dela ikus daiteke aurkezten dugun taulan, baina salmentari dagokionez berriz, zuzeneko salmenta oso baxua dela nabaritzen da.

EAE	% 5	Zuzeneko salmenta.
	% 46,5	Esne enpresei.
Gipuzkoa	% 8,1	Zuzeneko salmenta.
	% 31,9	Esne enpresei.

Esne enpresen sorreraren aurretik esnea saltzeko prozesua ethez ethez egiten zen lezon, Miguel urteetan aritu zen horrela, *“nik beti saldu dut kalia, beti errepartitu dut, ethez etxe eta gora eta behera....Erreterian saltzen nittun 140 bat litro ordu batian, joan jarri toki batean eta ra! Amaitzean, beste leku batera metro batzuk aurrera ta gero bera-xiago ta puntu, za, ez nintzen egoten berak etortzen ziran... oso ondo saltzen zen esnea.” MIGUEL*. Etkez etxeko salmenta diru iturri garrantzitsuena zen, gainera lñakik dioenez hasieran oso erraz saltzen zen esnea. Hasieran lñakiren ama, eta ondoren arreba, izan dira esnea saltzearen arduradunak, *ordun esniakin hasi giñenean, dirua errez irabazten zan. Orduan esnea saldu ta igual 300 litro esne saltzen zittun kalia”*. IÑAKI.



Kattalin, Etxeberri baserriko atarian esne marmitak inguruan dituela. (Iturria: Lezoko fototeka)

Tauletan frogatu dugun moduan, gaur egun, esnea enpresei saltzen zaie nagusiki. Izan ere, partikularrei saltzekotan, gero eta baldintza gehiago bete behar dira, eta honek buru-hauste handiak ekartzen dizkie baserritarrei, “*bai baldintza, lehen marmita ta eabiltzen zen, geo ura ta botilla hoitan sartze geniyon ta hoitan errexo zelako, ta oain enboltsatu behartzu ta numero de registro ta, pega gehio. Hoi da dirua kentzeatikan handik o hemendik eta gehio kontrolatu. Eta ba, ez gendun enboltsadora ta jarri ta, ta etxea etortzeanai eman ta bestela berriz zentralai ta fuera!*” RAMON. Esne enpresei saltzeak bere abantailak ditu, batez ere denbora eta lan eskuaren aurreztea. Hau da, zentralekoak beraiek joaten dira baserri baserri esnearen bila, horrela baserritarrak ez du etxetik mugitu beharrik, *trankiltasuna ematen dizu ez duzula kalera joan beharrik eta gaiñera ez zula esne gehio, gutxioik, zurea eman eta kitto! Gutxi gora-behera 300 bat litro izaten nittun beti. Egunero zai izaten zan, batzutan gehio 400 izan ditut baiña... Ematen nion nuena eta ez nuenean enion ematen, eta hola ibiltzen nitzan.* MIGUEL.

Abantailarik baduen arren, desabantailak ere aipagarriak dira. Bi dira nagusiki: esne-gaitik ordaintzen den diru kopuru urria eta kontrol maila. Lezoko baserritarrek aipatu digutenez, esnearen gaineko kontrola oso zorrotza da, eta esnearekin arazorenbat izan ezke-ro ordaindu beharreko isuna oso altua da. Bestalde, baserritarren iritziz, esne enpresek esnearen truke ordaintzen dietena oso urria da, eta ondorioz badago esne produkzioa ber-

tan behera utzi duenik ere, *esnia ia etzuten ezertxore patzen, pentxua asko paatu bertzun, geore lanare gehio, ta hola ezin zeiken segi. MARTIN*. Beste baserriar batek aipatu digunez, 25 urtean berdin mantendu da esnearen prezioa, hamar duro litroa.

Esne behiak haragitakoak baino lan eta denbora gehiago eskatzen duenez, Lezoko zenbait baserriarrek batetik besterako aldaketa egitea erabaki dute, *“behiak hoi du, behiak, esne behiak lotuak dia, eunero goizian ta, ta bestela eztezu ateatzen. Ta zuzen eman behar da, ta otorduk, bee jeixteak... Ta behi gorriak asko ai die jartzen, bota larrea ta aire! IÑAKI*.

Jarraian datorren taula honetan sailkatuta agertzen zaigu EAEko behi azienden kopurua, hauen klasea kontutan izanik. 2002. urteko datu hauek kontu handiz begiratzen badiugu, ikus dezakegu, bai esnetako behiak eta baita bestelakoak ere oraindik oinarrizkoak direla. Hala ere, bestelakoek (haragitakoek) gero eta garrantzi handiagoa daukate.


Behi-azienden kopurua klaseen arabera. 2002									
	EUSKALAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	
Guztira	181.251	100,0	42.088	100,0	65.670	100,0	73.493	100,0	
Behiak	92.433	51,0	23.081	54,8	35.288	53,7	34.064	46,3	
Esnetarakoak	38.621	21,3	6.913	16,4	15.044	22,9	16.664	22,7	
Bestelako behiak	53.812	29,7	16.168	38,4	20.244	30,8	17.400	23,7	
24 hilabete eta gehiagoko behi-aziendak	14.687	8,1	3.576	8,5	5.372	8,2	5.739	7,8	
Arrak	3.914	2,2	698	1,7	1.199	1,8	2.017	2,7	
Emeak	10.773	5,9	2.878	6,8	4.173	6,4	3.722	5,1	
12 hilabetetik 24 baino gutxiagorako behi-aziendak	20.648	11,4	5.104	12,1	6.778	10,3	8.766	11,9	
Arrak	2.904	1,6	594	1,4	371	0,6	1.939	2,6	
Emeak	17.744	9,8	4.510	10,7	6.407	9,8	6.827	9,3	
12 hilabete baino gutxiagoko behi-aziendak	53.483	29,5	10.327	24,5	18.232	27,8	24.924	33,9	
Arrak	33.964	18,7	5.366	12,7	11.184	17,0	17.414	23,7	
Emeak	19.519	10,8	4.961	11,8	7.048	10,7	7.510	10,2	

Data 2004ko Ekainaren 2a

Iturria: Hausnakarien inkesta. Eusko Jaurlaritza. Nekazaritza eta Arrantza Saila

EAE	% 21,3	Esnetarako behiak.
	% 29,7	Haragitako behiak.
Gipuzkoa	% 22,7	Esnetarako behiak.
	% 23,7	Haragitako behiak.

Animaliez gain Baserri Tradizional eredu honetan, baratza ere ustiatzen da. Baratza hauetan ekoiztutakoa autokontsumorako eta azokan saltzeko izaten da.



Arriandi baserriko ikuilua.

Bestalde, aipatu behar da Baserri Tradizional batzuetan haragi eta esne behiez gain, animalia txikiak ere hazitzen dituztela, hala nola, oiloak eta untxiak. Udal Artxibategian gordeta daude garai bateko Lezoko baserriarren ekoizpenaren inguruko datuak. Adibide gisara ekarri ditugu orri hauetara 1938 eta 1948ko datuak.

GANADO CABALLAR		GANADO DE MONTAÑA		AVES	
Carreteras enteras.....	Vacas.....	Gallinas.....
Caballos enteraos.....	Cerdos de vientre.....	Cuilinas.....
Vegones.....	Cochinillos.....	Fallos.....
Falcos.....	Machos para ceba.....	Carpas.....
Estrocos.....	Hembras para ceba.....	Patos.....
GANADO MULAR				SUS PRODUCTOS	
Mulas.....			Número de gallinas..... 2131.000	
Mulos.....			AVICULTURA	
Mulcheros.....			Pollos.....	
Mulateros.....			Kilogramos de cera.....	
GANADO ASIAL				Kilogramos de miel.....	
Burros enteraos.....	38			SERICICULTURA	
Burros enteraos.....	61			Filagranas de capullos.....	
Burros.....				
Dachos.....				
GANADO OVEIRO					
Cerros de montañas.....				
Cerros de cerros.....				
Cerros.....				
Cerros.....				
GANADO CARRIO					
Carriones.....				
Machos enteraos.....				
Carriones.....				
Carriones.....				

GANADO VACUNO	De carne	De trabajo	De leche o aserrado y Pabolo	ANIMALES DE CERCA	Número.
.....	Toros.....	626
.....	Ovejas.....
.....	Cabras.....
.....

CANTIDAD DE LECHOS DE LECHES ENTREGADA AL AÑO	VACAS	OVEJAS	CABRAS
A tenerlas en libertad.....
A fabricar queso.....
A fabricar mantequilla.....

Lezoa, a 29 de junio de 1928.
El Secretario de la Junta.

El Secretario de la Junta.
[Signature]

8

Servicio de Estadística Agrícola

Año de 1948

Avanceamiento de Lezo

Hoja número 8

Hoja declaratoria que deberá remitirse antes del 30 de Junio de 1948.

Superficie expresada en hectáreas o decenas y fracciones (quinta) que ocupen cada una de estas parcelas dentro del territorio municipal en el presente año.

NOTA: Táchese las unidades en que no se expresa.

	Superficie			Superficie
	en	decenas		
Maíz cultivado solo			Remolacha forrajera	100
Maíz cultivado con judías	2.522		Trigo forajero	0
Trigo cultivado con habas			Cebada forrajera	0
Trigo cultivado solo	1.600		Avena forrajera	0
Habas entre trigo (tratando la superficie apartada que ocupa con relación al trigo)	3		Centeno forajero	0
Guisantes	9		Maíz forajero	0
Alfalfa cultivada sola (consumo en verde + ventas)	10		Vino (mitiva continua)	0
Alfalfa cultivada sola (consumo en grano solo)	4		Parras uvas (número)	0
Cebollas	3		Miércoles	0
Ajos	1.100		Tuberos	0
Patatas			Erval no permanente	0
			Sacos y alambrados	

Producción de leche, queso y manteca y valoración de la leche de TODO EL AÑO	Vacas	Ovejas	Cabras
Número de vacas de ordeño	390	0	1
Litros de leche producidos (en todo el año)	330000	0	90
Litros de leche para consumo directo (id.)	280000	0	0
Litros de leche para fabricar mantequilla (id.)	0	0	0
Litros de leche para fabricar queso (id.)	0	0	0
Litros de leche para otros productos (id.)	0	0	0
Kilogramos de mantequilla fabricada (id.)	0	0	0
Kilogramos de queso fabricados (id.)	0	0	0
Precio del litro de leche para consumo	1.75	0	0
Precio del litro de leche para la industria	0	0	0
VALOR DE LA LECHE PRODUCIDA (en todo el año)	577500	0	0

Producción de lana y su valoración		Lana blanca	Lana negra
Número de oves requeridas	Adultas	0	0
	Crias	0	0
Peso medio del vellón (kg)	Adultas	0	0
	Crias	0	0
Peso total de la lana obtenida (en kilos)		0	0
Precio medio de la libra (13,6 kgs.) de lana		0	0
VALOR TOTAL DE LA LANA OBTENIDA		0	0

Iturria: Lezoko Udal Artxibategia.

Ganaderia e Industrias negozio						
	N.º de animales			N.º de animales		
GANADO CABALLAR						
Caballos castros	1			GANADO DE CERDA		
Caballos castrados	2			Vernos	2	
Yeguas	11			Cerdos de viento	17	
Ponies	4			Cochinillos	12	
Potrancas	4			Machos para caber	4	
GANADO MULAR						
Mulas	27			Hombres para caber	2	
Mulos	27			A. V. P.		
Mulatas	11			Gallor	80	
Mulatas	11			Gallinas	2.700	
GANADO ASNAL						
Burras entera	50			Pollas	700	
Burras castrados	10			Pollas	11	
Burras	10			Ceporro	11	
Burros (crino)	11			Patos	4	
GANADO LANA						
Cariacas sementales	11			Patos	1	
Cariacas castrados	1			Patis	1	
Ovejas	1			SUS PRODUCTOS		
Caracuz	2			Machos de gallina	310.000	
GANADO CARIÓ						
Machos sementales	1			APICULTURA		
Machos castrados	1			Colmenas	1	
Cabras	1			Kilos de cera	1	
Carritos	1			Kilos de miel	1	
SERICULTURA						
				Kilos de capullos	1	

ESPECIE FACUDO	DE OCHO	DE OCHO	DE OCHO	DE LECHE Y PRODUCTOS	DE OCHO	TOTAL OCHO
Toros	1		1		2	3
Vacas	3	340 las mujeres de leche	1	390		393
Terneros	40	1	1	1	11	40
Terneras	51	1	1	1	11	55
Bucayas	1	20	1	1	1	20

Lezu
 21 de Junio de 1948
 El Alcalde Provisoriamente
 Francisco Sandoval

NOTA: Esta hoja deberá cumplirse INEXCUSABLEMENTE antes del 20 de Junio de 48

Garai haietako Lezoko ekoizpenak ez du zerikusirik gaurkoarekin, ez kopuruaren eta ezta produkzio moduan ere. Jarraian datorren taulan gure egunetan EAEn, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Lezo inguruko hiru eskualdeetan aurki daitezkeen azienda ezberdinak ikus daitezke. Agerian geratzen den moduan, behi eta ardi aziendak dira garrantzitsuenak, eta hauen atzetik datoz gainontzeko guztiak, ahuntzak, zerriak, zaldiak, hegaztiak, untxiak...

NEKAZARITZA SEKTOREA														
AZIENDAK. ESPEZIEEN ARABERAKO BANAKETA OROKORRA (Nekazal Zentsua 1989)														
	BEHI-AZIENDAK		ARDI-AZIENDAK		AHUNTZ-AZIENDAK		TXERRI-AZIENDAK		EKINOAK		HEGAZTIAK		UNTXI-AMAK	
	Kop.	Bur. Kop.	Kop.	Bur. Kop.	Kop.	Bur. Kop.	Kop.	Bur. Kop.	Kop.	Bur. Kop.	Kop.	Bur. Kop.	Kop.	Bur. Kop.
EUSKADIKO K.A.	15.563	178.986	4.167	267.715	2.899	24.713	6.261	50.582	7.779	17.329	15.738	3.461	7.218	60.676
ARABA	1.619	30.257	670	89.852	358	7.450	1.488	27.596	476	3.193	2.590	325	816	7.084
BIZKAIA	8.161	77.724	1.387	55.097	1.692	12.799	2.829	8.963	4.437	8.660	7.040	885	3.940	28.644
GIPUZKOA	5.783	71.005	2.110	122.766	849	4.464	1.944	14.023	2.866	5.476	6.108	2.251	2.462	24.948
BIDASOA-DONOSTIA	1.344	14.212	391	17.707	150	645	262	5.244	567	1.027	1.313	101	567	6.291
Bidasoa Behea	239	1.938	62	2.692	23	99	30	64	95	221	284	27	152	1.352
Donostialdea / Donostia	1.105	12.274	329	15.015	127	546	232	5.180	472	806	1.029	74	415	4.939

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko-Jaularitza).

Baserri tradizional eredu honetan baserria unitate ekonomiko bat da. Gaur egunean baserritik bizi direnek beren gurasoengandik jaso dute bizimodu hau, baina beraiei zail egingo zaie jasotakoa beren ondorengo bidez birsortzea.

Laburbilduz, gaur egun Baserri Tradizionala bezala definitutako eredu a duela 60 urteko Baserri Tradizionalarekin alderatuz gero, honako hauek izango lirateke ezberdintasun nagusiak:

1. Gaur eguneko Baserri Tradizionalak ez du landa gunea egituratzen.
2. Nahiz eta oraindik baserria elkargune bezala erabili, “etxeko lan taldea” edo garai batean “etxekoak” osatzen zuten pertsonen kopurua txikiagoa da.
3. Baserriak ez du nekazal munduaren birsortzea ziurtatzen, kasu gehienetan ondorengorik ez dutelako eta besteetan, berriz, ondorengoek bestelako etorkizun planak dituztelako.

Orain azalduetakoa, Baserri Tradizionalarena, Lezon topatu daitekeen baserrian bizitzeko ereduetakoa bat da, baina gure iritziz beste hiru eredu gehiago leudeke:

- Baserri mixtoa: Hitzak berak islatzen duen bezala, jarduera ekonomiko bat baino gehiago aldi berean aurrera eramaten dituztenak dira. Normalean industrian lan egiten dute eta “soberan” duten denboran baserri lanean aritzen dira. Industrializazioaren “boom”-aren aurretik, Lezon oso ohikoa zen baserriko lana eta portukoa biak nahastea. Kasu hauetan baserriatik at egindako lana da diru iturri nagusia, horrela baserri lana bigarren mailako jarduera ekonomiko bihurtuz. Normalean baserri eredu hau eskusiboki baserriarrak izan diren gurasoen ondorengo eredu a da. Beraz, nekazal jarduera honekin jarraitzearen zergatia betidanik ezagutu duten bizimodu batekin duten lotura izan ohi da, *baiño beti lan ordu tik kanpo beti baserriyan eta hemen lanen naolako askoz hobeto nago, eta denbo gehio ematen nau, baino beste lanak egin behar izaten nituenean ere, beti beti gustatu zait. KARMELO. Zalantzarik gabe esan dezakegu baserri mixtoa jatorrizko baserriaren (Baserri Tradizionala) garapena dela, ibilbidearen ondorengo pausoa. ETXEZARRETAk dienezekin bat etorritik, bere hitzak berreskuratu ditugu, “la dedicación parcial es un sistema transitorio, fruto de un estado específico del desarrollo capitalista y de la incidencia de este en la agricultura” ETXEZARRETA*

Baserri mixtoaren sorrera, baserriaren etorkizun ekonomikorako arazoekin, eta batez ere baserri lanaren eritmoarekin erlazionatuta dago. Esan bezala, eredu honetara atxikitutakoek industria edo hirugarren sektorea dute bizimodu. Badirudi, —eta elkarrizketatu guztiek horrela aitortu digute—, baserria “oso lotua” dela, aldiz etekin ekonomiko eta sozialak nahiko urriak¹⁰ dira. Ondorioz, baserriko jende ugariak baserri mixtura jo du.

Baserri eredu honetako familiaren osaketa oso bestelakoa da baserri tradizionalarekin alderatzen badugu. Gaur egun baserri mixtoko burua ezkondu ta dago

¹⁰ Datu hauek elkarrizketetan oinarrituta daude. Baserri ekonomiaren inguruko bibliografiara jotzen baldin badugu, badirudi baserri batek bizitzeko adinako etekin ekonomikoak ematen dituela. Honela, Greenwoodek Hondarribian egineko lanean ondorio gisara esan zuen moduan baserria uztearen arrazoi nagusiak ez dira ekonomikoak, erlazio gehiago dute prestigioarekin. Hau da, gaur eguneko nekazal lanak ez du prestigioerik gizarlean.

(gehienetan). Ezkonduta egoteak ondorengotza izatea sopsatzen du kasu gehienetan, eta honek berriz etorkizuna. Etorkizun honen nolakotasuna ikustear dago oraindik¹¹.

- Baserri-etxebizitza eredu: Kasu hauetan, baserriaren izaera eraikuntzan soilik mantentzen da. Hau da, baserria konpondu egiten da, baina burututako berrikuntza guztiek eguneroko bizitza erosoagoa egitea dute helburu. Laburbilduz, baserriaren funtzioa etxe bizitza arrunt bat izatea baino ez da. Eredu honetako baserri batzuk baratza nimiño bat izan dezakete, baina jarduera hau jabeek “hobby” bezala dute, ez du inolako helburu ekonomikorik.

Eredu hau duela urte batzuetatik hona sortzen ari den bizimodu baten lekuko da. Bi multzo mota bereiz ditzakegu baserri-etxebizitza eredu honetan: alde batetik, hirietako jendea dago, naturarekiko harreman estuago baten bila nekazal gunera inguratzen dena, bestetik, baserria oinordekotzan jaso dutenak daude. Nahiz eta baserriz kanpoko lana izan eta baserriko jarduna guztiz baztertuta eduki, herrian mantentzen dira berarekin lotura estuak dituztelako.

- Zerbitzuetara bideratutako baserriaren eredu (nekazal-turismoa, tabernak, sagardotegiak...): Baserrien erabilpenaren beste adibide bat dugu baserria turismo eskaintza bezala ulertzea. Erabilpen honek bere arazoak ditu baserria ulertzerako orduan, Lezoko zenbait baserriarren iritziz, nekazal-turismoa ez baita baserri bat. Nekazal-turismoaren gaia modu sakonago batean landuko dugun gaia izango da hirugarren atalean.



Gaintxurizketa ingurua.

¹¹ Eredu hau beste eredu berri batetara garatuko dela pentsatzen dugu pixkanaka, ziur aski ibilbidearen hurrengo geltokira, hain zuzen.

Baserrien lau eredu hauek (tradizionala, mixtoa, etxebizitza, turismoa) Lezoko baserrien “osasanaren erradiografia” bat dira. Ikus daiteke baserri baten erabilpena nahiko heterogeneoa dela, hau da, jabeen beharren arabera baserri batek funtzio bat edo beste izan dezakeela. Lezon eredu ezberdin hauek batera ematen dira. Baina lehen ere ohikoa zen Baserri Tradizionalaren eta baserri mixtoaren elkarbizitza.

Lezoko nekazal gunea sei bailaretan banatzen da: Gaintxurizketa Iturrin, Gaintxurizketa goikoa, Gaintxurizketa Errekalde, Gaintxurizketa Sagasti, Herriondo eta Donibanealdea hain zuzen ere. Auzo hauetan aipatu berri ditugun lau ereduetako baserriak topa ditzakegu. Jarraian aurkezten dugun taulan Lezoko baserriak auzoka eta baserri ereduak sailkatuko ditugu, honetarako gida gisara Aitziber MURUA URIBE-ETXEBARRIAK (2000) Lezoko baserrien inguruan eginiko lana erabiliko dugularik.

GAINTXURIZKETA ITURRIN BAILARA.

BASERRI EREDUAK:					
BASERRIA	JABEA	B.TRADIZIONALA	B.MIXTOA	B.ETXEBIZITZA	B.ZERBITZUAK (Nekazal-turismoa, jate-txea, sagardotegia...)
Herrikoetxea	-Felix Lopategi. Urzelaieta Legorburu sendia.		X		
Hiribarren	Juan Lazkano		X		
Ipintza	JoseMari Arruti.		X		
Txatxamendi edo Arritxurieta	Juan Jose Isasa.		X		
Abendaño	Arantxa Salaberria		X		
Granada	Manuel Bengoetxea	X			
Etxeberri (1)	Ambrosio Maritxalar		X		
Etxeberri (2)	Kattalin Esnaola		X		
Olaizola	Euskadiko Kutxa	HUTSIK DAGO			
Itsua	-Quitin Ezeiza.		X		
Behekoa	-Maria Angeles Ezeiza. -Luis Maria Ezeiza.				
Itsua Erdikoa (1)	Venancio Legorburu		X		
Itsua Erdikoa (2)	Juan Bengoetxea			X	
Apaizartza	Etxegoien Esponda Sendia.			X	

GAINTXURIZKETA GOIKOA BAILARA.

BASERRI EREDUAK:					
BASERRIA	JABEA	B.TRADIZIONALA	B.MIXTOA	B.ETXEBIZITZA	B.ZERBITZUAK (Nekazal-turismoa, jate- txea, sagardotegia...)
Zapatazar	Jose Ramon Legorburu	JUBILATUA			
Zapatar-Buru	Jose Ezkurra		X		
Argiñanea	Martzelino Legorburu	X			
Alarguntza-Goikoa	Bittor Urzelaieta		X		
Iriarte-Enea	Marcial Legorburu				JATETXEA
Alarguntza	Concepcion Urzelaieta			X	
Larraka		HUTSIK DAGO			
Elortegi	Julian Mendizabal				ERRETEGIA
Arriaundi	Maria Rosario Lizaso			X	
Borda Goiz-Argi	Rafael Gaztelumendi	X			

GAINTXURIZKETA ERREKALDE BAILARA.

BASERRI EREDUAK:					
BASERRIA	JABEA	B.TRADIZIONALA	B.MIXTOA	B.ETXEBIZITZA	B.ZERBITZUAK (Nekazal-turismoa, jate- txea, sagardotegia...)
Saizar	-Francisco Isasa. -Alberto Irasuegi. -Miguel Berro. -Javier Goia. -Joaquina Aiestaran.		X		
Gaintxurizketa-Zabala	Senideak. -Jose Manuel Oyos.			X	

GAINTXURIZKETA SAGASTI BAILARA.

BASERRI EREDUAK:					
BASERRIA	JABEA	B.TRADIZIONALA	B.MIXTOA	B.ETXE BIZITZA	B.ZERBITZUAK (Nekazal-turismoa, jate-txea, sagardotegia...)
Juantenea	Eduarne Garmendia		X		
Ageri	-Irene Azurmendi. -Xanti Munduate.		X		
Patxilaborda	Marcial Garmendia		X		
Amezti	Francisca Aranburu			X	
Monatxo	Teodora Lizarazu			X	
Monatxo-Berri	Lorentzo Larretxea			X	
Endara	Arantxa Etxezurieta				NEKAZAL-TURISMOA
Juan Martindegi	Macial Arrastua				NEKAZAL-TURISMOA

DONIBANEALDEA BAILARA.

BASERRI EREDUAK:					
BASERRIA	JABEA	B.TRADIZIONALA	B.MIXTOA	B.ETXE BIZITZA	B.ZERBITZUAK (Nekazal-turismoa, jate-txea, sagardotegia...)
Eguzkitza	Vicenta Gonzalez		X		
Martizkone	Florencio Salaberria		X		
Goikoerota	Arantzazu Garmendia			X	
Olatzar	-Agustin Sarasua -Gurutx Sarasua		X		
Lopene	Joaquina Lopetegi		X		
Borda	Mari Karmen Elorza		X		
Olamarta	Jose Garmendia	X			
Kaxerna	Pedro Lekuona	X			
Urruleku	Marzial Zabaleta	X			
Kabite-Handi	Luis Pikabea		X		
Kabite-Txiki	Antoni Vega		X		

HERRIONDO BAILARA.

BASERRI EREDUAK:					
BASERRIA	JABEA	B.TRADIZIONALA	B.MIXTOA	B.ETXEBIZITZA	B.ZERBITZUAK (Nekazal-turismoa, jate- txea, sagardotegia...)
Darieta-Zahar	-Jesus Mari Irazu. -Juanito Artola.			X	
Darieta		HUTSIK DAGO			
Matejuane	Luis Irazu	X			
Gabiria	Pascual Mimendia			X	
Mihura	Nicolas Lopetegi		X		
Amuntene	Juan Aranburu	X			
Torrejil	-Jose Maria Garmendia -Inazio Urkizu		X		
Bordatxo- Txoko	Jose Maria Goienetxe		X		
Bordatxo	Gregorio Arruti	X			
Nere-Borda	Maria Pilar Toledo			X	
Larre-Zabal	Rita Larrea			X	
Borda-Berri	-Gregorio Arruti. -Jose Antonio Larrea	X			
Peliar	Jose Cruz Urkizu		X		
Mikura	Mikel Labandibar	X			
Goinetxe	Luis Saizar		X		
Bista-Eder	Jose Cruz Saizar		X		

Taulak ikusten hasi aurretik aipatu dugunez, hauek egin ahal izateko 2000. urtean Lezoko baserrien inguruan eginiko liburutik jaso dugu informazioa. Azken urte hauetan gauzak zertxobait aldatu dira ordea. 2000. urtean 11 ziren Baserri tradizioaletik bizi ziren etxeak, gaur egunean berriz sei dira, beste bostak jubilatuta egin baitira. Lezoren kasuan ugariena baserri mixtoa dela ikusten dugu, baina baserri mixto honen barruan ere aniztasun handia aurki daiteke, hau da, baserriko lanari eskainitako denbora, eta baserrietik jasotako diru-sarreraren kopurua oso ezberdinak izan daitezke baserri batetik bestera. Badira baratzatxo eta bost behi dituztenak, baina badira 25 buru dituztenak ere. Gure iritziz abere gutxi dituztenak pixkanaka hauek kentzen joango dira, eta eredu mixtotik, baserri-etxebizitza eredura pasako dira.

Baserri ereduaren arabera, familia eredu ere desberdina izan liteke. Esan bezala, gaur egunean baserri tradizionala deitutako ereduari familia nukleoa oso txikia eta adinekoa da. Beste hiru ereduetan, berriz, familiak edozein hiri edo herritan topa daitezkeen antzekoak dira.

Azken hamarkada hauetan ikerlariak kezkatuta ibili dira Baserri Tradizionalean ondorengorik ez dagoelako. Hau da, badirudi orain baserria lantzen ari direnek ez dutela oinordekorik haien bizimoduarekin jarraitzeko, hau dela eta 70eko hamarkadatik hona baserriaren krisiaz hitz egin da. Krisi hau baserri tradizionalari dagokio. Lan honen bidez ikusi dugun moduan, baserria eguneroko bizitzaren aldaketak direla eta modu ezberdinetan kontzeptualizatzen ari da. Honen ondorioz, lehen existitzen ez ziren baserriaren erabilpen ugari sortu dira.

Aurkeztu dugun baserrien tipologia hau egiterako orduan ez dugu baserria unitate ekonomiko bat bezala ulertu, orain arte argitaratu den bibliografian bezala. Gure kasuan, biztanleek baserriarekiko duten harremana hartu dugu ikergai zehatz bezala. Ikuspuntu honetan baserriaren gaitasun ekonomikoa ezaugarri bat baino ez da, garrantzitsuena baserriak, —eguneroko bizitza oinarri bezala hartuz—, eragiten dituen bizitzeko modu ezberdinak dira.

AUZOLANA KOOPERATIBA BIHURTUA

Baserria inguruan eman diren aldaketetara egokitzen eta eredu berriak sortzen joan den moduan, baserriko jarduerak ere moldatu egin dira egoera berrietara. Baserriko bizitzari buruz hitz egiterakoan ezinbestekoa da auzolana aipatzea. Auzolana, baserriek funtzio egituratzailea betetzen zutenean burutzen zen ekintza bat zen. Guztiok dakigun bezala, auzolana auzokoen arteko elkarlana zen, besterik gabe. Lezoko baserri gunean gertatu den moduan, gauzak eta ohiturak aldatzen, garatzen joan dira, eta auzolana ere bai.

Auzolanaren bitartez auzokideen arteko elkartasun sareak eraikitzen ziren, elkartasun sare hauek giza harremanak zituztelarik oinarri. Normala zen herri bideak garbitzeko edo belarra moztu eta biltzeko orduan ondoko baserrien arteko elkarlaguntza gauzatzea.



Eusko nekazarien elkarte, Aitone taldea: ezkerretik hasita: Melitton Pikabea, Goienetxeko Salaberria, Joxe (Xagua); Pedro Gonzalez, Joxe Pikabea, Itzuako, Agapito Ezeiza Isasa (Iturrigoa). Nikolas Larrea. (Iturria: Lezoko fototeka)

Gehienetan familiakide guztiek parte hartzen zuten, bakoitzak bere betebeharrak burutuz, *“orduan etortzen ziran belarrea buelta ematea edo biltzea,... laian garai batian beti laian orduan auzotikan bi, hiru etorri ta segi ama zenak jartzen zun bakailu edo kostila puxkat hola jan ta konforme bestiak etortzen ziranak eta holan bizi ginan haiek hona eta gu hara...elkarri konformidadia, elkar laguntasuna, elkar lagundu besterik ez zan, ta hala bizi giñan...ez dakit zer motibotik galdu dan” IÑAKI.*

Gaur egunera hurbilduz eta geure burua Lezon kokatuz, auzolana ia desagerturik dagoela ikusiko genuke. Ramon artzaina da. Auzolanari, elkarlaguntzari, buruz galdetu genioanean, zera esan zigun; geroz eta artzain gutxiago daudenez, gero eta elkarlaguntza gutxiago ematen dela, *“gero eta gutxiago gaude ta. Lehen gue atta difuntua bizi zela ta zazpi zortzi artzai zen mendian, ta gaur bi o hiru bakarrik gaude. Ta lehen alkarrik, ardik mozteko garayin o desparasitatu ber bazin o, bata bestii launtzen ta itzen zin baiño... Oain bi hiru lagun bakarra gea eta hoixe, bai elkarrekin aitzen gea baiño geo ta gutxio. RAMON.*

Auzolanaren desagerketa hau ez dugu bat-bateko desagerketa bat bezala ulertu behar. Lezoren kasuan auzolanak nekazal kooperatiban izan zuen jarraipena. *“Baserritarren kooperatiba”* auzolanaren lekuko gaurkotu bat bezala ulertu beharko litzateke. Azken batean, baserritarrek haien indarrak elkartu zituzten etekin bila, auzolanean egin ohi zen bezalaxe. Kooperatiba honen helburu nagusia animalientzako pentsua ahalik eta merkeen lortzea zen. Horretarako, guztiek batera erosten zituzten artoa, garagarra, etab. Gero Lezon zuten errotan prestatzen zuten pentsua kooperatibako kide ziren baserrietan banatzeko. *“Hasita batekin hizketan, kooperatiba eta pentsua...hasi ginan eta kooperatiba fundatu genuen. 32 bat sozio ginan, dana batian egiten ginun garagarra ekarri, artua ekarri errota bertan jarri gintun gu lanera joaten ginan eta inkluo horrek badu historia dirua baserritarrak gara hemen...han almazena hartu eta gero jarri genuen ta hola batian beste batek...” MIGUEL.*



Joxe Angel Etxegoien eta amona Kattalin, Etxeberri baserriko soroan. (Iturria: Lezoko fototeka)

Urte batzuetan funtzionamenduan egon ostean, bertan behera utzi zuten baserritarrek kooperatiba. Baserrietan gertatzen den moduan, kooperatibako kideak ere jada zahartzen hasiak zeuden, eta errelebo faltak proiektuaren amaiera ekarri zuen.

Baserritarren arteko elkarlaguntzaren beste lekuko bat baserrien arteko erdibanako makinaria erosketa da. Makinaria oso garestia izanik, kasu batzuetan behar hori merkeago atera zedin bi jabeen artean erosten ziren traktoreak edo dena delako makinaria eta lanabesak. Hala ere, badirudi ideiak ez duela oso harrera ona *“erramienta erdibana ta ni hasten banintzan zerbaitera hurak behar zun hau hartzen bazen nik behar nun eta hola amorrazten ibili ginan eta guria ...ez naiz partidarioa!” GERBASIO.*



Auzolana egin ondoren atsedean hartzen. (Iturria: Lezoko fototeka)

Azken batean, baserriarrek egoeretara moldatzeko gaitasuna erakusten dute, eta horren lekuko argiena harreman sareen adibide hau da. Auzolanaren zahartzeak beste jarduera berri baten sorrera dakar.

... ETA BESTERIK GABE...

Baserriaren egoera, bai Lezon eta baita Euskal Herri osoan ere, oso ezberdina da guztiok inkonszientean daukagun ideiarekin alderatzen badugu. Baserri bizitza zalantzarik gabe aldatzen joan da Lezo aldatzen joan den neurrian. Ezin diogu baserriari eskatu herriari berari eskatu ezin zaiona, hau da, XIX. mendean zen bezala mantentzea.

Lezoren beharrak industriara eta hirugarren sektorerara bideratu dira, eta bertako baserrien bizimodua ere aldaketa horietara egokitu da. Bestalde, baserriak hamaika arazo

gehiago ditu, hauetatik larrienetarikoa oinordekotza ezarena da. Aurreko orrietan behin eta berriz errepikatu dugun bezala, Baserri Tradizionalen jabeak ezkongabeak dira nagusiki eta gainera, ez dute seme alabarik. Ondorioz, baserri hauen jardueraren galtzera dator. Kasu honi aurre egiteko, FERNANDEZ de LARRINOAK testu batean ilobaren irudia berreskuratzen du, hau da, zenbait tokitan seme-alaben gabezia hori ilobek bete dutela¹² ikusi ahal izan da. Baina hau ez da Lezoko kasua. Elkarrizketatutako baserriarretatik inork ez du ikusten interesik ez ilobengan ezta gainontzeko senideengan ere. Belaunaldi berrien lehenetasunak aldatu egin dira, eta ez datoz bat baserriak eskaintzen duenarekin, *“hau nere iloba da, [...], baiño zuk esaiozu hogeita bi urteko mutiko bati esaiozo hamar urte egon behar dala ez motorrik ez ezer erosi gabe. Esaiozu hori, ze esangoizu! Hua ze jende hogeita bi urte ditu eta lehenengo gauza BMWa erosi. Baserriko jendea ez da tontoa, kaleko jendea bezela bizi nahi du. TERE. Iñakiren ilobek ere, Terene iloben moduan ez dute interesik baserrian, “nik ilobak badittut gaztiak. Etortzen dia, osaba zemuz ta earki ta. Deportia, izerdia atea behar dit, hemen baziok aukerik izerdia ateatzeko. Hau txarra da, oso txarra. Ez tu, gaur ez tu inork etorri nahi. IÑAKI.*

Baserrietako gizonen zailtasun handiak izan dituzte Lezon bikotekidea topatzeko. Garai batean, baserriak prestigioa ematen zuenean, baserrietako alabak baserrietan mantent-



Gazte kuadrila mendian. (Iturria: Lezoko fototeka)

¹² FERNANDEZ de LARRINO, K. (1999) “Estructuras Emergentes” en *Zainak* nº14 Sociedad de Estudios Vascos.

zen ziren, *“leno errexeo etortzentzan emakumia, errexeo ta gaiñea asko fantasiz maiorazgoa baserri batea, nausi etortzen fantasiz. MIGUEL*. Baserriko bizimoduak erakargarri izateari utzi zionean asko aldatu ziren gauzak, dirudienez herriko neskek ez zuten baserriira igo nahi, eta baserrikoek herrira jaitea zuten helburu. Beraz, baserrian gelditzen ziren gizon gehienak mutil zahar gelditu dira, aurreko paragrafoan ikusi ahal izan dugu zein den honen ondorioa.

Amaitzeko, Baserri Tradizionalak galdu egin du bere birsortzeko gaitasuna. Azkenean egoera honek Baserri Tradizionalaren desagertzea ekarriko du, baserria egoera berrietara egokituz.

III. ATALA

BASERRITARRA, HAU KOMERIA!

Badirudi baserriaren etorkizunaren inguruko kezka gero eta gehiago ari dela zabaltzen, liburu hau izan liteke horren adibide garbia. Dirudenez, euskaldunoi orohar, baita lezoarrei ziurrenik ere, ia ezinezkoa egiten zaigu **baserri**rik gabeko Euskal Herria bat irudikatzea. Baina hainbeste kostatzen al zaigu **baserri**tarrik gabekoa imajinatzea? Euskal Herriak eta baserriak bikote banaezin bat dirudite. Berdin da nekazal gunean, kostaldean edo hiri erdian bizi; berdin da inoiz baserri bat gertutik ezagutu ez izana, hala ere, guztiok sentitzen dugu baserria “gure-gurea” den elementu bat bezala.

Komunikabieetako iragarkietatik banketxeetako egutegietara, baserriaz “zipriztinduta” dauzkagu bazterrak. Ezin uka liteke “euskalduntasuna” eta baserria elkar hartuta dihoazela.

Hamaika izan dira euskal baserriaren eta nekazal gunearen inguruan idatzi diren lerroak, literatur eta zientzia liburu ugarian egin da baserriaren inguruko gogoetak. Juan Mari Irigoienen “*Babilonia*” aipa liteke nekazal gunean oinarritutako nobela ezagunen adibide moduan. Liburu zientifikoei dagokienez, diziplina ugariatako ikertzaileek (Historia, Soziologia...) jorratu dute nekazal gunearen gaia, baina horien artean diziplina bat aipatu behar bada, hori Antropologia da. Antropologiak badu erantzukizunik baserriaren eta nekazal gunearen idealizazioan.



Baserriarrez jantzitako bi bikote. (Iturria: Lezoko fototeka)

ANTROPOLOGOA BASERRIAN.

Antropologo ugari eskaini diote bere denbora eta arreta euskal baserriaren ikerketari. Aranzadirengandik abiatu eta bere ikasle Barandiaran eta Caro Barojarekin jarraituz, bertako eta atzerriko ikertzaileen¹³ liburu eta idatzietan lehen mailako tokia bete du baserriak.

Euskal baserriaren inguruan burututako lan etnografiko gehienak Joxemiel Barandiaranen eraginpean egin ziren. Izan ere, berak sortutako *Anuario de Eusko Folklore* (1921) aldizkaria leku ezin hobea gertatu baitzen lan etnografiko hauek biltzeko eta argitara ateratzeko.

Euskal antropologiaren hastapenetan lehen mailako helburua izan zen euskaldunok etnia/arraza berezi/ezberdin bat ginea frogatzea. Arkeologia, Filologia, Paleontologia eta beste hainbat diziplinetako indarrak helburu hau lortzera bideratu ziren. Euskaldunok “ikergai” bilakatu ginen¹⁴. Euskaldunon “izate bereizgarri” honen bilaketaren barnean kokatzen da baserriarekiko interesa.

Euskal antropologiaren bereizgarrietariko bat “gutasunaren” ikerketa da. Antropologok oro har “bestetasuna” ikertu dute, hau da, beraien jatorrizko herrialdeetatik aldenitu eta beste talde “exotikoen” ikerketan lan egin dute. Mikronesia, Zelanda Berria, Amazonia eta antzerako lurraldeak izan dira antropologoek iker-leku. Baina euskal antropologoek (oro-korreen) ez dituzte Euskal Herriko mugak gainditu beren ikerketekin, “etxean” egin dute lan, bertako “indigena” ikertu dute.

“Bertako indigena” ikertzeak arazo bat baino gehiago ekarri dizkie antropologoei. Sarri jarri da zalantzan beren lanen objektibitatea. Egia da ikertzen duzun gizartearen partaide izateak zure lanean eragin berezi bat izan dezakeela, baina aldi berean, lehen eskuko informazioa maneiatzen duzula ziurtatzen da. Bestalde, objektibitateari dagokionez, zientzia guztiek dute bere auzia, zientzilari guztiak, baita antropologoak ere, gizaki diren unetik subjektiboak dira, baita berak eginiko lana ere.

¹³ William DOUGLASS, Sandra OTT eta Dayvid GREENWOOD izan dira Euskal Herriaren inguruan lan antropologikoak idatzi dituzten hiru egile atzeritar ezagunenak. 1969an idatzi zuen DOUGLASSek *Muerte en Murelaga* lan ezaguna, egiturazko funtzionalismoaren barnean koka genezake lan hau. 1975an Etxalar eta Murelaga herrien arteko konparaketa eginez, bi herri hauetan eman zen emigrazio prozesuaren inguruko lana argitaratu zuen, *Exodo en dos aldeas rurales: Echalar y Murelaga* izenburuarekin. Urte bat geroago, 1976an, argitaratu zuen GREENWOODek Hondarribian emandako eraldaketa ekonomikoaren inguruan idatzitako lana, *Hondarribia: Riqueza ingrata. Comercialización y colapso de la agricultura*. OTTek 1981an idatzi zuen, *The Circle of the Mountians: A Basque Sheepherding Community* lana. Lan hau egiturazko britaniar eskolan koka dezakegu.

¹⁴ Euskal antropologiaren jarraipen historiko bat egiten du Joseba ZULAIKAK *Del Cromañón al Carnaval* liburuan (1996). Euskal antropologiaren historiari ikuspegi kritiko batetatik gerturatzen da, antropologoek euskalduna “natibizatzen” izan duten erantzukizunaren inguruan hausnarketa eginez. Liburuko lehen atalari “Los vascos como objeto etnografico y museístico” izenburua jarri zion, atal honetan oso ondo deskribatzen du euskaldunok “ikergai” bilakatu gineneko prozesua.



Baserriguneko Larraga familia. (Iturria: Lezoko fototeka)

Arkeologiatik abiatu eta folkloristen lanetan amaituz, euskaldunok “berezi” edo “ezberdin” egiten gaituena bilatu du Antropologiak. Urtiagako kobetan aurkitutako buruhezurretik baserriaren ikerketara egin zen jauzia, “jatorrizko” euskaldunaren bigarren bizileku moduan deskribatu izan da baserria. Lehenaren eta orainaren arteko zubia eraiki da Urtiagatik baserrira.

Euskal antropologoaren artean nekazal gunearen inguruko ikerketetarako sortu zen grina behar bezala ulertu eta kokatzeko, ezinbestekoa da gertakari honen testuinguruaren azalpena egitea. Euskal Herria inoiz ez bezalako industrializazio eta modernizazio prozesuaren aurrean aurkitzen zen. Euskal Herriko paisaiak, bizibideak, jasandako aldaketaren erritmoa oso bizia zen. Aldaketa berezkoa da gizarte / kultura guztietan, baina aldaketa honen erritmoa eta intentsitatea oso ezberdinak izan daitezke. Folkloristek, etnografoek, “arriskuan” ikusi zuten Euskal Herria. Egoera honen aurrean euskalduntasunaren “esentzia” egokien gordetzen zen tokiaren ikerketan murgildu ziren buru-belarri: nekazal gunearen ikerketan.

Baserrira ulertuko da euskalduntasunaren, euskal tradizioaren gordailu gisara. Ez dira soilik ikertzaileak izango baserriaren irudi hau izango dutenak, baserritarrek beraiek ere gordailu funtzioa emango diote baserriari. Lezoko baserritar batek honela esaten digu baserriak Euskal Herriari zer eman dion galdetutakoan:



Baserriko ondarea.

“Ohitura eta hizkuntza eta izaera joko hori. Izaera. Eta igual garai batean euskalduntasunarekin identifikatzen zena [...]. Izaera berezi bat lutzatzeko, aurrea ateatzeko, berea mantentzeko [...]. Hizkuntza batez ere, hizkuntza eta izateko modua, izaera hori, hizkuntza, izaera, hitza eta langileak izatea”. (Beltzekoa, enfasia, gurea da). KARMELO.

Baserria ulertzeko modu hau dela eta, biderkatu egingo dira nekazal gunearen inguruko ikerketak. Lan gehienak lan etnografikoak izango dira, hau da, baserriaren eta baserriko lanaren deskribapenak egingo dira, tresneria sailkatuko da, etxearen arkitektura aztertu, mitoak, abestiak bilduko dira. Baina bildutako material honekin ez da ia analisirik edo hausnarketarik egingo. Folkloristen kezka nagusia desargertu aurretik guztia “biltzea” izan zen, analisia beste une batetarako geratu zen.

Azterketarik gabeko lan etnografikoa *hiper-etnografia* gisara defintu du Kepa FERNANDEZ de LARRINOA¹⁵ antropologoak. Bere iritziz, modu honetara eginiko lanen helburua *euskal nekazal gunearen atlas*a egitea izango litzateke, euskal kulturaren museo etnografia. Baina Edmund LEACH-en hitzak jasoz gogoraraziko digu material etnografikoaren

¹⁵ FERNANDEZ De LARRINOA, Kepa (1996): “El estado de la montaña: Hacia una Antropología de las políticas de Restructuración de la Sociedad Rural Actual en el País Vasco” in *Intervención y diseños rurales. Campesinos, Bienestar Social y Antropología*. Escuela Universitaria de Trabajo Social. Gasteiz.

saillkapenean gehiegizko interesa jartzeak argitu beharrean ilundu egin dezakeela gizarte errealitatearen hautematea, datuen artean hainbeste denbora egiteak datuen atzean geratu dena ez ikustera eraman gaitzake.

Beraz, euskal nekazal gunearen *hiper-etnografia* izan da euskal antropologiaren ezau-garri nagusienetarikoa. Euskal antropologoa baserrian ibili da datuak bildu eta bildu. Bilketa lanaren balioa gutxietsi gabe, bildutakoaren azterketa kritikoa egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Gaur egunean lanean diharduten antropologoek eta bidean diren belau-naldi berriek egin nahi duten antropologia aukeratu beharko dute, urtetan diziplinaren bidea izan den “tradizioari” jarraituz, edo bide berriak jorratuz.

NEKAZAL GUNEAREN IDEALIZAZIOA: “NI BIZI NAIZ BASERRIAN ANIMALIEN ERDIAN”...

Kulturak, esanahia ematen dio nekazal guneari. Nekazal gunea ez da soilik testuinguru fisikoa. Adierazpide hau (nekazal gunea) erabiltzen dugunean hainbat gauzari egiten diogu erreferentzia; paisaia, inguru fisikoaren eta pertsonen arteko harremanak, giza harremanak. Momentu historikoaren arabera aldatzen joan da nekazal gunearen balorazioa; “joan-etorriko bidaiak” izan dira¹⁶.

Oro har, industrializazio eta modernizazio prozesuak gertatzen direnean, “tradizionala” denak, “zaharra” denak bere balio galtzen du. Esan genezake prozesu hau nahiko orokorra izan dela landa gunee gehienetan, baina aurrerago aipatuko dugun moduan, Euskal Herriaren kasua nahiko kasu berezia izan da. Bata bestearekin borrokan egon diren bi indarren aurrean aurkitu gara. Alde batetik, modernizazio prozesua zela eta baserriak itxura “atzerakoia” hartu zuen. Bestetik, kanpotik zetozen aldaketen aurrean baserria “euskalduntasuna” mantentzeko gunee egoki bilakatu zen. Alderdi praktikoari begiratuz, eta Lezon ikusi dugun moduan, baserriarrak ere ezin izan zion “ihes” egin modernizazioak zekarren lilurari. Lantegiko lana, hiriko bizitza, askoz erakargarriago egiten zen baserria baino. Baina, bestalde, baserriak ez du inoiz galdu industrializazio garaian irabazi zuen euskal kulturaren defentsa gunee izaera hori, beraz sinbolikoki bada ere, ez du bere balioa galdu.

Honen guztiaren ondorioz, baserriaren eta baserriarren irudikapen kolektiboetan oso zail gertatzen da errealitatearen eta irudi idealizatuaren artean bereiztea. Sarritan baserrian bizitzearen alderdi baikorrak bakarrik izaten ditugu gogoan. Baserriko bizitza naturarekin, animaliekin harremanetan, lasaitasunez inguratuta imaginatzen dugu. Bizitza osoan baserriatik bizi izan da Iñaki, berak kontatu digunez, baserriko bizitza ezagutzen ez dutenek honen inguruko nahiko irudi desitxuratua dute. “*Etorri bai honea, Oh!!! Arbolea bai politte!!! Ta kanpo politte!!! Hau politte zeok!!! IÑAKI.*”

¹⁶ Nekazal gunearen eraikuntzan eman diren aldaketak ezagutzeko irakurketa interesgarria da, ENTRENA DURAN, Francisco (1998). *Cambios en la construcción social de lo rural. De la autarquía a la globalización*. Tecnos. Madril.



Animaliak eta nekazal tresneria Bordatxo baserrian.

Nekazal gunea elkarlagutzan oinarritutako gune bezala deskribatu izan da, haserre eta desoreka gabeko gune bezala. Ugari dira baserria gune idiliko modura aurkeztu diguten idazleen lanak, *“eso es el caserío... con las tierras que de tiempo inmemorial le pertenecen, ha guardado y sostenido la familia vasca, que es la organización de nuestro pueblo, en la vida permanente, no sólo a desarrollado la sociedad, ha constituido su eje principal y su corazón”* (Labayen, 1974). Labayen-en hitz hauen arabera baserriak familia, lurra eta herri bizitza egituratu izan ditu. Hau egia bada ere, gatazka eta desoreka¹⁷ ez dira nekazal gunetik aparte egon, eta nekazal guneko bizitzaren desidealizazioa ezinbestekoa da errealitatera zuzen inguratzeko.

¹⁷ **Gatazka, desoreka, aldaketa** oinarritzko kontzeptuak dira gaur egungo antropologian. Hala ere ez dugu ahaztu behar lehen lan antropologikoetan guztiz alderantzizkoa gertatzen zela, hau da, gizarteen deskribapenetan oreka edo harmonia ziren gehien ikertzen ziren aldagaiak. Honen ondorioz, deskribatutako gizarteak mugimendurik gabeko gizarteak izaten ziren, gizarte estatikoak. G.BALANDIER eta P.MERCIER antropologo frantsesak, eta M.H. GLUCKMAN antropologo erresuma batuarrak izan ziren nozio hauek (gatazka, desoreka, aldaketa) erabiltzen lehenak, antropologiari eginiko ekarpena uka ezina da.



Lezoko antzerki taldea baserriarrez jantzita. Juanitatxo Salaberria, Luke Gezala, Maria Olasagasti, Patti Arriaga, Norberta Albizu, Bonifazia Arrieta, Miren Gezala eta Juli Veintemillas. (Iturria: Lezoko fototeka)

BASERRIAREN ERREALITATEA LEZON. ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK.

Lezon egin ditugun elkarrizketetan behin eta berriz errepikatu digute baserrian bizitzeak bere abantailak eta bere desabantailak dituela, gauza baikorrak eta ezkorrak biak nahastu direla baserriko bizitzan. Aipatzekoa da desabantailei buruz hitz egiterakoan ia elkarrizketatu guztiak bat etorri direla baserriaren **lotura** aipatzean. Ramon 30 urteren bueltan dabilen artzaina da. Betidanik gustatu izan zaio ardiekin lan egitea, eta 19 urterekin soldaduzka bukatu zuenetik, hortan dihardu. Diru eta lan inbertsio handia da berarentzat eta emaztearentzat artzain lana, “*hoi bai, lanbata, igandía zer den beitu gabe negun behintzat. Udan hainbestian, baño neguan? Ezta goature!*” Hitz hauetan ikus daitekeen moduan, ardiekin egin beharreko lanak eguneroko jarraipena eskatzen du, eta ondorioz, asteburuak jai hartzeko aukerarik gabe geratzen dira Ramonen etxean.

Teknologiak, makinariak, lanaren pisua arintzen lagundu badu ere, baserriaren loturak bere horretan jarraitzen du. Bizitza osoa baserrian egin du Gerbasiok, eta ezin hobeto eza-gutzen ditu baserriko lanaren gora-behera guztiak. Berak ere lotura aipatzen digu baserrian bizitzearen alderdirik gogorrana bezala, “*Esklabua! lotura hori! txarrena hori. Belarra*

lehortzen urtian 3-4 egun peligrasoak. Gaineakoan esnia, hori nahiz ta makinakin... zu ez bazara etortzen makinak jai du! Gerbasiok esan duen moduan, nahiz eta makinaria eduki makinaria hori martxan jartzeko norbait egon behar da beti atzean.

Nekazal jardueraren lotura hori onartzea zaila da baserraian lan egiten duten guztientzat, baina are zailagoa egiten zaie baserriar gazteei. Lezon baserriarren batz besteko adina oso altua da, 60 urte inguruan koka genezake gutxi gora behera. Hala ere salbuespenak badira ere badaude 30-40 urte bitarte izan eta baserrian lanean aritzen direnak. Lehen aipatu dugun Ramon da honen adibide nagusiena. Karlosek ere bere denbora eskaintzen dio baserriko lanari, baina bere kasuan baserrikoa baserriatik kanpo egiten duen lanaren osagarria da. Bere “denbora libre” erabiltzen du betidanik maite izan duen zeregina betetzeko, baina honek ez dio ez asteburu eta ez oporraldirik uzten, “*gauzik gogorrena? eguneroko lotura. Segun zerta dedikatzen zean, ba oso zaia da, aste bukatu libratzea, oporrak. Eta gaur egun jendia hortan... Ni neu ezkondu ezkeo, 13 urte geoztik enaiz etxetik atea, ez dut gau bat etxetik kanpo pasa, 40 urte ditut nik, 42 urterekin e!* KARMELO.

Karlosek dioen moduan gaur egunean oso zaila da oporretara ez joatea “normaltzat” hartzea. “Derrigorrezkoa” bilakatu da gure gizartean abuztuan, Gabonetan eta Aste Santuan kanpora irtetzea; zubiren bat edo beste probatu ezker, gainera, ezin hobeto. Beraz baserriko lanaren “lotura” kontrajarri egiten da gaur egunen nagusitzen diren balioekin. Davydd J: GREENWOOD¹⁸ 1976an ohartu zen jada balioek nekazal gunean zeukaten eraginaz. Hondarribian eginiko ikerketan nekazal gunearen konplexutasuna defendatu zuen, eta nekazal jardueran gainbehera azaltzerakoan aldagai ekonomikoei adinako garrantzia eman zien gizarte balioei. Hondarribiaren kasuan, frogatu zuenez, — nahiz eta baserri batzuk ekonomikoki etekinak eman—, bertan behera utzi zuten bere jarduna. Honen arrazoi nagusiena balio kulturalen aldaketan topatu behar dugu, hau da, baserriak jada ez zeukan bizibide bezala arestian zuen prestigio, baserriko bizitza ez zen iraganean bezain erakargarria.

Zuzenean baserrian egiten ziren jardueraz gain, baserriatik kanpo, baina nekazal lanarekin lotuta zeudenez ere, ordu eta ahalegin kopuru handia eskatzen zuten. Resu urte askoan ibili da Oreretako azokan barazki saltzen, astean hiru egunetan inguratzen zen merkatuan zuen postura, *orduak, orduak atope, orduik etzan, plazakin ibiltzen giñenin ta berdurakin ibiltzen giñenian bueno... hamaikak eta hamabiyak jotzen zizun gaua ezin bukatuik. Ta goiza etortzen tzan auguruo!* Bai barazkiaren ekoizpenak, baratzeko lanak, eta baita salmentak ere, azokara joatea denbora inbertsio handia zen Resurentzat.

¹⁸ Jatorrizko lana ingelesez bada ere, 1998ean itzuli zuten gaztelaniara, Davydd J. GREENWOOD. (1998) *Hondarribia: Riqueza ingrata. Comercialización y colapso de la agricultura*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.



Txistulariak eta dantzariak erromeri batean. (Iturria: Lezoko fototeka)

Lanaren “loturaz” gain, **eguraldiaren segurtasunik eza** ere aipatu digute baserriko lana zailtzen duten gauzen artean, “*Egualdiakin bizi behar dala baserriyan. Egualdiyan mendian bizi behartzula. Kosetxa dena hala da, porque artua ta babarruna ereitten bazu, hoi, joziok erdoiya, joyo lehorrak, ez dakit ze! Dena Egualdiyan zea, ta egualdiaya ia da kanbiatzen o ez dakit ze aiadan pasten! Zerbait e aida pasten!*” Resuk kontatzen duenez, produktuak landatzen eta zaintzen eginiko lan guztia hankaz gora joan liteke eguraldi txarraren ondorioz. Eguraldia kontrolatzerik ez dagoenez, honek zihurtasun gabezia sentatzio dakar. Inbertsio bat egin, eta etekinik jasoko dugun edo ez jakiteak ezinegon sortzen du.

Baserrian bizitzeko alderdi gogorrenak deskribatzearekin batera, alderdi baikorrenak deskribatzeko eskatu genien elkarrizketatuei. Erantzunak aurrekoan baino desberdin diren arren, badago errepikatzen den ideia bat: **baserriko lanak ematen duen askatasuna**. Orain arte esan dugun guztia kontuan izanik, kontraesan bat dirudi “askatasun” ideia honek, baina baserriarren hitzak irakurritz hobeto uler liteke hau guztia, *nik ez dakit ba, beste libertade bat o, gaur nahi bazu mendia jungo zea, bihar nahi bazu beste gauz ta ingozu, o fabrika junberbazu, nahitanahiez junberra daukazu, libertade geixio do*. Ramonen iritzi, artzaintzak bere kasuan, norberaren lana antolatzeaskatasun handiago ematen du, ordutegia banatzeko autonomia gehiago. Fabrikako lanarekin alderatuz, bigarren honen derrigorrezkotasuna aipatzen du. Fabrikan lanik egingo ote luken galdetu genionean, zalantza izpirik gabe erantzun zigun, *Ez, ez, nei, fabrika haundi hoitan pent-*

saure in, sekulan. Bestien menpin jarri? Alde, alde!” Fabrikan lan egitea besteen menpe lan egitearekin lotzen du. Hala ere fabrikako lanaren inguruko hausnarketa honen ostean, beraien lanaren menpekotasunak ere ekartzen ditu gogora, *“hombre, geu e nahiko gaude bestin menpin e, batetik sanidadia dela eta geo ezin saldua generua eta dena hoire, hortan hasten bazea pentsatzen, bestin menpin gaude geuek eh, baiño...”* Ramonek dioen moduan, hasiera batean artzaintzak fabrikako lanak baino “askeagoa” dirudien arren, azken finean lanbide honek ere badakar besteekiko (sanidadea, bankuko kreditua...) menpekotasuna. Hala ere, eguneroko jardunean menpekotasun hau ez da fabrikan bezain agerikoa, eta eguneroko lanean “askeago” sentitu liteke baserritarra.

Ramonek egiten duen moduan, Resuk ere baserriko lana norberak antolatzearen alderdi onak azpimarratzen ditu, *“Zer dan hemen baserriyan? ba iñorrek aindu gabe zeorrek ittentzona. Ez dezu iñorren mende, zeorrek zaude eta zeorrek dakizu zer inbertzun ta in inbertzu, ez bazu itten ez duzu izango, aisieske badakizu inbertzula. Baiño nekatzealtzea geldittu ingo zea ta...”* Hitz hauetan uler litekeen moduan, baserritarrak enpresa gizon/emakume baten moduan funtzionatzen du. Badaki zeintzuk diren bere “enpresan” aurre atera beharreko lanak, badaki zeintzuk diren horretarako dauzkan baliabideak (bai baliabide materialak eta baita pertsonalak ere), eta badaki nola antolatu behar duen denbora planteatutako helburuak aurrera ateratzeko, hau da, bere estrategiak planteatzen ditu. Nekazariez mintzaten garenean, sarritan zail egiten zaigu enpresari bezala azaltzea. Ardiak larrera atera eta behiak jezten dituen pertsonaren atzean erabaki ekonomikoak hartzeko gai den subjektu arrazional bat dago. Momentuko bere egoera aztertu eta tesuinguruak uzten dion neurrian etekinak bilatzen dituen pertsona.

“Baserrian bizitzeko niretzako askatasun hori, deskantsu hori, niria dala eta ez dit inork ordaintzen. Baserria gurea da. Askatasun hori! Jabea ni naiz eta ez dit iñork ordaintzen. Orain ez dakatela gehiegi lasaitzerik zergaitikan uzten baldin badut badakizu zer dudan”. GERBASIO. Orain arteko iritziekin konparatuz, Gerbasiook beste ideia bat batzen du: jabetzarena. Berarentzat lasaigarria da baserriaren jabetza bere esku dagoela jakitea, hau da, bera dela bai bere etxebizitzaren eta baita bere “diru iturriaren” jabe. Agerikoa den jabetzaren alderdi ekonomikoaz gain, badago sentimentuekin eta alderdi sinbolikoarekin erlazionatzen den beste ikuspegi bat ere. Resuren familia maizter bezala bizi izan zen urte askoan, eta hamaika ahaleginen ostean lortu zuen baserria erostea, *“eske hoi zan, eske gue ama hemen jaiota, hemen bizita, bere amarebai, bere attarebai, eta demak hemen bizita, bueno, zuk bakizu ze ilusiyua zen geo beria izatia”.* Lurraren jabetzak sinbolikoki zuen garrantziaz hitz egiten digute ALONSO, ARRIBAS eta ORTI autoreek ere, *“ha sido percivida por los campesinos como “un modo de subsistencia familiar, indepentiente, de autonomía e identificación social, y de realización ante la comunidad campesina, antes que como un instrumento para la producción “racional” y planificada, e incluso antes que como una fuente de beneficios económicos”.* ¹⁹

¹⁹ ALONSO, ARRIBAS y ORTI (1991,49). “Evolución y perspectivas de la agricultura familiar: de “propietarios muy pobres” a agricultores empresarios” in *Política y Sociedad* nº 8. Facultad de Ciencias Políticas y Sociología. Madril..



Martinentzat, bestalde, baserrian bizitzeak duen abantailarik handiena seme-alabak hazteko toki egokiena dela da, *“baserria izateko badakizu zer den ona? Niretzat famili bat hazteko toki onena, umea hazteko... Norbaitek farra egingo du. Ni esnea saltzea jotzen nintzen Erreterira ta ikusten nittun kuadrila ederrak, ta etxea etorri ta [gure umek] etxera etortzen zirenean ama etxean zeon beti”*. Irakurri berri ditugun hitzetan nabarmentzen denez, baserriar honetzat baserria familia batzentzat bizitoki egokia da; lasaia izateaz gain, familia kideek bertan lan egiten dutenez, seme-alabak edo adineko pertsonak inoiz ez daude bakarrik. Baina bada baserrian “bakarrik” ez bizitzearen desabantaila ikusten duenik ere, *“Baserriya da como un matrimonio grande, como un matrimonio grande. Neska askok egun ez dute nahi baserrira etorri nahi porque karga handiya da. Baserriko ohitura da gurasokin bizi behar dezu, anaiakin, hilobakin, famili guziya bizi zeatela, bai hola da. Gustokua dezula edo ez dezula gustoko, jeikitzen zea eta egun on, egun on, egun on, jode egun on, ohitzen zea zortzi pertsonakin, eta bakoitza bere aman seme gea”*. FELLI. Irakurri berri ditugun bi aipamenetan ikusten den moduan, familia zabalean bizitzeak ere, baserriko bizitzak orokorrean bezala, bere abantailak eta desabantailak ditu.

Bestalde, etxe berean bi belaunaldi ezberdin elkartzen direnean, oso posible da belau-naldi arteko “gatazkak” sortzea. Baserrian ohitura denez bi bikote daudenean hauetariko zaharrenak agintzen du, *“zure aittak igual 70 urte ditu eta zuk igual 35 edo 40 eta harrek agintzen du, baserria berea da eta berak agintzen du. Eta zu ikusten zea 35 urtekin, besteak bere martxa hartuta dute eta zuk ezin dezu zure proiektua aurrera eraman”*. KARME-LO. Baserriko agintean errelebo falta hau ere izan liteke gazteek baserrian ez jarraitzeko beste arrazoiatariko bat.

NEKAZAL-TURISMOA: BASERRIAREN ITZULERA?

Iritzi eta eztabaida asko dakar nekazal-turismoen gaiak Lezon. Izan al liteke nekazal-turismoa baserriaren berpiztearen sintoma? Galdera honi erantzun aurretik “baserriaz” ulertzen duguna azaldu beharko litzateke; hau da, *baserri* hitza eraikina izendatzeko erabiltzen dugu edo bertan aurrera eraman diren jarduera ekonomiko konkretu batzuekin lotzen dugu? Bi erantzunek baserria ulertzeko oso modu ezberdina planteatzen digute.

Atal honetan aurrez aipatu dugun legez, testuinguru historiko eta kulturalaren arabera aldatzen joaten da nekazal gunearen balorazioa. Modernizazio prozesuan zehar baserriak itxura “atzerakoia” eta “zaharkitua” bazuen ere, irudi hau aldatzen joan da 80ko hamarkadatik aurrera. 70eko hamarkadan abiatzen bada ere, 80ko hamarkadan gauzatzen da nekazal gunearen berbalorazio prozesua. Hamarkada honetan zalantzan jartzen hasiko dira gizarte urbano-industrialen “abantailak”. Hirietako bizimodua zalantzan jartzen hasiko da, hiriak ez ditu aseko bere biztanleen nahiak, eta pertsona nahiz talde sozialen garapen psikiko-kulturala oztopatzea egotziko zaio.

Hiriarekiko “desengainatze” honi naturarekiko kezka gehitu behar diogu. Krisi ekologikoaren aurrean nekazal gunea berriro ere erakargarri bilakatzen da. Nekazal guneetako bizitza naturarekin harremanetan ematen den bizitza bezala irudikatzen da, bizi kalitate aldetik hirikoa baino askoz atsegina. Lezo kokapen aldetik toki pribilegiatua da nekazal-turismoentzat. Hiria, Donostia, bertan dago, eta honek erreztasunak ematen dizkio hiritarrari nahi izan ezker asteburuan nekazal gunera inguratzeke, naturaz gozatzeko. Kanpoko turismoari dagokionez, Lezon nekazal-turismoan egonez herriko bertako eskaintzez gain, bai Donostia, bai Txillida-Leku, bai Baionako kostara bertatik bertara gozatzeko aukera dago.

Nekazal gunea ulertzeko modu berri hau ez da sortu nekazal gunean bertan, kanpotik (hiriguneetatik) datorren joera da. Kanpotik datozen irudikapen berri hauetan nekazal



gunearen irudia oso modu idealizatuan eraikitzen da, hiritik datozenen espektatiba/nahietara egokitzeko. Modu honetara eraikitako nekazal gunearen paradigmek folklorismo kut-su handi bat izaten dute, artifizialki bultzatutako sinbolo eta erritualekin jolasten dute, gaur egungo beharrak asetzeko tradizioaren asmakuntza bat egiten da.

Baserriaz orokorrean eta baita nekazal-turismoez konkretuki hitz egiterakoan, nozio garrantzitsua da tradizioarena. Baserria entzutean berehala erlazionatzen dugu “bizimodu tradizionalarekin” eta nekazal-turismoetara inguratzen den jendea ere “tradizio gosez” inguratzen da. Baina *tradizio* hitzak ere baditu bere tranpak, hiru ikuspegi ezberdinetatik aztertu dezakegu nozio hau:

- Tradizioa **asmakuntza** gisara²⁰: Gaur eguneko nahiak eta beharrak asetzeko iragan idealizatu bat asmatzen da.
- Tradizioa **aukeraketa** gisara: Tradizionalak diren elementuetatik aukeraketa bat egiten da gorde behar dena zehaztuz.
- Tradizioa **naturalizazio** gisara: Tradizioak betidanik egon diren gertakari natural baten moduan ulertzen dira. Tradizioak inoiz “sortu” izan ez balira bezala, edo inoiz aldaketarik jasan ez balute bezala.

Tradizio bat aztertzen dugunean oso zaila gertatzen da hiru ikuspegien arteko muga zehaztea, hau da, zein da “asmatutako” zatia? Zein “aukeratutakoa”? Zein “naturalizatua”? Tradizio batean hiruren arteko nahasketa bat egon liteke. Tradizioa modu honetara ikusteak “tradizionalizat” saltzen digutena modu kritikoagoan aztertzeak aukera ematen digu, baita tradizio horren atzean gorde daitezkeen interesak eta nahiak azalertzeko aukera ere.

Lezon hiru nekazal-turismo daude: Zurgiaurre²¹, Endara²² eta Juan Markindegi²³. Hiruren kasuan emakumeak dira hauen kudeatzaileak. Negozio honen kasuan ere lana-

²⁰ HOBBSAWN and RANGER. (1992): *The invention of tradition*. Cambridge University, Cambridge.

²¹ Eraiki berri den eraikuntza da. Zuzeko egitura du eta eraberritutako material eta altzariak dauzka, Euskal Herriko baserrien arkitektura mantenduz. Hiru logela handi ditu eta bertan komuna daukate. Gela hauek kanpora begira daude eta etxebizitzak egongela dauka (telebistarekin). Etxea Jaizkibelgo magalean dago kokaturik. Mendian ibiltzako aproposa eta bista ederrekin. Madril-Irun (N-1) errepide nazionaletik gertu, Donostiatik zortzi minututara, Hondarribiatik sei minutura eta golf zelaitik bi kilometrotara. Garraio publikoa gertu dauka.

²² Baserriaren aipua egiten duen lehenengo agiria 1640koa da. Nahiz eta gaur egun baserria Gaintza izenez ezagutu, aspaldian Endara izena zuen. Gelak bi solairutan daude. Guztiek bainugela eta leihoa dute. Gelek dituzten izenak Jaizkibel bertako izenak dira. Egongela, 100 metro koadrotik gorakoa, beheko solairuan dago; bertan, tximinia, irakurtzeko eta informazio txokoa, telebista eta lorategia ikusten uzten duen kristalera handia dugu. Etxearen inguruan lorategiak daude. Gi-2638 errepidearen ondoan dago. Landa ingurunean egon arren, hiriguneak gertu ditu: Donostia, 10 km-tara eta Hondarribia, 11 km-tara.

²³ Duela gutxi Martindegi baserriaren ondoan eraikia da, Lezoren kanpoaldean dago. Oartzualdea izeneko bailaran. Aiako Harriak(etxearen parean),zenbaitentzat Pirinioen hasiera, hamaika bidezidor ditu oinez ibiltzeko. Gailurretik begira jarriz gero, bailara guztia ikusteko aukera ematen du, eta zerua garbi baldin badago, Landak eta Bizkaia ere ikus daitezke. Gainera bailarako sai arre talderik handiena bertan bizi da.Mendiaren magalean, Oartzun ibaiaren sorlekuan, Arditurriko meategiak daude, erromatarren garaiako meategi zaharrak dira, eta Donostiaraino iristen den bide-gorria bertan hasten da. Erreterian San Markos mendia, Urdaburu, Listorreta eta Landarbasoko haizuloak ere topatuko ditugu. Itsasoa ikusi nahi izanez gero, Martindegi etxearen atzean, Jaizkibel mendia dugu. Mendi hori Kantauri itsasora begira dagoen balkoi zoragarria da, eta gainera orografia eta harkaitzen ezaugarrietatik mendi berezia da.



Lurdes Amiano, Mari Karmen Amiano eta Alejandra Salaberria, Gaintza baserri aurrean. (Iturria: Lezoko fototeka)

ren banaketa sexuala agerikoa da beraz. Nekazal-turismoez gain, baserri ugari (sei-zortzi bat baserrik) aukeratu dute zerbitzuen esparrua etorkizuenrako alternatiba modura, eta taberna nahiz jatetxeak ipini dituzte, Elortegi edo Iriartene aipa daitezke adibide gisara. Nekazal-turismoa jartzen duten askoren kasuan, aukeraketa hau baserria mantentzeko bide bat izaten da. Aroak oso garbi zuen sortetxeari eutsi nahi ziola, *“nik hoi oso garbi nekan, hau sortetxe ta hau nola edo hala, eske”*. Etxea txukuntzeko obrak egin behar zirela eta behin diru inbertsio hori eginda nolabaiteko etekina lortzea zen helburua, *“ba obrak einbehartzien etxian, ta orduan ze ein baiño etekiña ateatzeko asmoarekin, bestela hau... Orduan ba pentsatu nun, informatu nintzan, junintzan turismora, junintzan Oarsoaldera, ta bueno. Ta bueno nik aspalditik nekan buruan, ta bueno badirudi azken, azkenaldian ideia nahiko arrakastatsua, jendea, sartzen zena behintzat ba gustora zeola ta hola. Horregaitik erabaki nun”*. AROA.

Nekazal-turismoa edo taberna jartzearen erabakiak erabaki gogorak izan litezke. Betidanik ezagututako bizibidea guztiz berria den bizibide batekin ordezkatzeko da, gaine-

ra negozio berri bat jartzen denean gertatzen den moduan, ez da batera zurrera negozioaren etorkizuna, beraz, zentzu honetan apustua nahiko garrantzitsua da, *“ne ustez hori da geroa ez dalako ikusten eta nola geroa ez dan ikusten, ba beste ikuspuntu batzuk begiratu behar dia. Pues taberna bat erabaki zuten jartzea. Ta beste zerbaite erabaki bazuten erabakiko zuten. Hori da biziyan erabaki bat eta bueno, urtiarekin ikusten dezu ondo dijala edo ikusten dezu alde egin behar dezula edo ikusten dezu”*. TERE.

Baina Lezoko baserriar guztiek ez dute turismoaren edo zerbituzen aukera hain garbi ikusten. Bi dira aukera hauei muzin egiteko dituzten arrazoai nagusiak: alde batetik diru inbertsio garrantzitsua delako, *“bakizu ze kostako litzaken hoi ittia? Toki earra bai hemen itteko, mendiya earki ta. Zuk badakizu ze pista politak dauden hor, hortikan hasi ta Hondarrabira joateko, Guadalupea”*. Resuk ere gogoan izan du alternatiba hori, baina azkenean ez du aurrera eramán. *“Sagartotegia jartzeko, nekazal-tursimoa jartzeko inbertsio handia beharko da eta ez dakit”*. GERBASIO.



Gaintza baserria nekazal-turismo bihurtu ostean.


Eta bestetik ez dutelako beraien burua horrelako negozio baten jabe ikusten, Karmelok onartzen du baserria turismora begira prestatzeak baserri batzuen etorkizuna konpon dezakeela, baina berarentzat ez da euskal baserriak bizi duen egoerari irtenbidea emateko aukera, *“turismo, merendero horta dijoa dana. Lezon dauden baserri, bueno hiru agroturismo eta merenderoa sei, zortzi, badaude. Dena baserriko jendia dia. Ta soluzioa ematen diote, baino hori re, neretzako ez da soluzioa nei ez zait gustatzen hostelerua izatea”*. [...] **Ni baserritarra naiz, ez naiz hostelerua**. Bizitza osoa baserriko lanean aritu den Iñakik ere ez du oso argi ikusten turismora bideratutako baserrien gaia, *“holakok kantidak hai dia jartzen bai. Baina hoi ze? Hoi alda negozioa? Hoixe negozioa diela! [...] Esperientziere hortako, beste jende klasia. Hor jarritako hik die beste jende klasia eh! Ez pentsa baserri hutsetik bizi dianak jarri dunik! IÑAKI*.

Baserritar honek dioen moduan, ez da ohikoa baserri hutsetik bizitzetik nekazalturismoa jartzea. Bizibide mixtotik datozen baserritarrak izaten dira turismoaren bidea auke ratzen dutenak. Izan ere, baserri hutsetik bizitzetik mostradore baten atzean bezeroak atenditzera izugarrizko jauzia dago, baserritarraren mundu sinbolikoaren apurketa bat etorriko litzateke, balio eta balore sistemetan kontraesan handia.

Baserri tradizionalaren eta nekazal-turismoaren arteko ezberdintasunek sakoneko galdera batetara bideratzen gaituzte: zer da baserritar izatea? baserriak egiten al zaitu baserritar? gauza bera al da baserria izatea eta baserritarra izatea? Atal honen hasieran planteatzen genuen galderaren aurrean aurkitzen gara berriro, zer da “baserriaz” ulertzen duguna? Baserria eraikin moduan ulertzen badugu argi dago turismoa baserri hauek berreskuratzeko bidea bilakatu dela. Baina, bestalde, baserria bizimodu batekin erlazionatzen badugu “baserritar-hostelero” eredua ez dator bat orain arte ezagutu dugunarekin, aldaketa bortitza da.

Erakunde ofizialetatik diru-laguntzak dexente bideratzen dira nekazal-turismora. Erakundeek ere begi onez ikusten dute turismoaren ideia hau. Baserriko betiko bizimoduak zailtasunak besterik ematen ez dituela ikusirik, turismoa alternatiba bat izan liteke, eta gainera baserria (eraikuntza, ondare kultural gisa) mantentzeko aukera ematen du. *“Batetik laguntza informazioarena, oso laguntza inportantea da informazioa jasotzea, hortan Oarsoaldetik [...], eta gero turismora Donostira.[...] Bestalde udaletxe mailan ere, ba baserria izateagaitik ta beste gauzatan, baimenak ta zeatzerakoan ordaindu einbehardezu, ba gure kasuan, ba salbuetsiak geuden ta horire laguntza da”*. AROA.

Nekazal guneen garapenerako prestatzen diren plan berrietan pisu handia du turismoaren gaiak. Erakundeetatik babesa ematen zaio baserria ulertzeko modu berri honi. Landa garapenerako diru laguntzetatik zati garrantzitsu bat doa turismoa bultzatzera, eta diru laguntza hauek erakargarriak egiten dira baserritarrentzat. Ohiko ekonomi jardueraren zailtasunak ikusita, turismoa aukera tentagarria bilakatzen da. Gainera, oraingoz izan duen arrakasta ikusteak zalantza batzuk argitzen ditu.



Peñalba, A. "Baserri turismoa" in *Berría. Egitura*. 2004-X-17- (17. orria).

Lezoko nekazal-turismoen kasuan bezeroak kataluinarrak izaten dira bereziki. Aste Santua, uda eta zubiak izaten dira turismora begira data garrantzitsuenak. Kataluinarrak bezero onak direla esaten du Aroak, "ta oso gustoa, oso bezero... Badakie, nik uste bada-kiela bidaiatzen ta hola ta nabari dela. Fama dute xurrak ta hola baiña zuk esten dezu hori ta ordaindu ta taka, inoiz eztau problemaik. Gehienetan behintat zorrotzak dira ordutegi-kin, esten dute holako ordutan jeikiko gea gosaltzea ta jeikiko dia... Eztakit nola esan, ba bai, oso jende atsegiña". AROA.

Jarraian datorren taula honetan EAEn nekazal-turismoa aisialdia pasatzeko aukera bezala hautatzen duen jendearen datuak ageri dira. Datuak espainiakoak naiz atzerriko beste herrialdeetako turistenak dira.

Bidaia-eraren sarreraren kopurua, jatorri-erak. Nekazal turismoa 2003								
	Euskal AE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
GUZTIZKOAK	84.691	100,0	15.260	100,0	28.109	100,0	41.322	100,0
Estatua guztira	77.056	91,0	14.421	94,5	25.346	90,2	37.289	90,2
Andaluzia	716	0,8	99	0,6	417	1,5	200	0,5
Aragoi	1.797	2,1	142	0,9	451	1,6	1.204	2,9
Asturias	774	0,9	173	1,1	276	1,0	325	0,8
Balearrak	275	0,3	99	0,6	76	0,3	100	0,2
Kanariak	239	0,3	28	0,2	139	0,5	72	0,2
Kantabria	988	1,2	210	1,4	303	1,1	475	1,1
Gaztela-Mantxa	730	0,9	150	1,0	293	1,0	287	0,7
Gaztela eta Leon	2.148	2,5	246	1,6	1.083	3,9	819	2,0
Katalunia	14.626	17,3	1.795	11,8	3.257	11,6	9.574	23,2
Valentziko Erkidegoa	2.185	2,6	572	3,7	762	2,7	851	2,1
Extremadura	95	0,1	37	0,2	14	0,0	44	0,1
Galizia	948	1,1	210	1,4	495	1,8	243	0,6
Errioxa	806	1,0	164	1,1	246	0,9	396	1,0
Madril	9.447	11,2	1.329	8,7	2.744	9,8	5.374	13,0
Murtzia	449	0,5	265	1,7	49	0,2	135	0,3
Nafarroa	3.341	3,9	472	3,1	1.257	4,5	1.612	3,9
Euskal AE	37.452	44,2	8.430	55,2	13.484	48,0	15.538	37,6
Ceuta eta Melilla	40	0,0	-	-	-	-	40	0,1
Atzerria guztira	7.635	9,0	839	5,5	2.763	9,8	4.033	9,8
Alemania	1.149	1,4	109	0,7	396	1,4	644	1,6
Austria	37	0,0	-	-	9	0,0	28	0,1
Belgika	420	0,5	52	0,3	198	0,7	170	0,4
Danimarka	47	0,1	-	-	18	0,1	29	0,1
Finlandia	17	0,0	-	-	-	-	17	0,0
Frantzia	2.196	2,6	196	1,3	892	3,2	1.108	2,7
Grezia	49	0,1	-	-	-	-	49	0,1
Herbehereak	448	0,5	28	0,2	121	0,4	299	0,7
Irlanda	71	0,1	13	0,1	27	0,1	31	0,1
Italia	698	0,8	84	0,6	261	0,9	353	0,9
Luxenburgo	9	0,0	-	-	-	-	9	0,0
Portugal	293	0,3	67	0,4	71	0,3	155	0,4
Erresuma Batua	902	1,1	144	0,9	344	1,2	414	1,0
Suedia	71	0,1	8	0,1	63	0,2	-	-
Europako besteak	216	0,3	10	0,1	117	0,4	89	0,2
Iberoamerika	429	0,5	27	0,2	58	0,2	344	0,8
USA-Kanada	311	0,4	27	0,2	124	0,4	160	0,4
Japonia	40	0,0	-	-	18	0,1	22	0,1
Beste herrialdeak	232	0,3	74	0,5	46	0,2	112	0,3

Data 2004ko Urtarrilaren 22a

Iturria: EUSTAT. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.

Turisten jatorriari begiratzen badiogu, gehiengoa Katalunia eta Madrildarra dela ikus dezakegu, baita frantziarrak ere.

Urte sasoiaren arabera, turista kopurua asko aldatzen da, baita turisten egonaldia iraupena ere, ondorengo taulari begira hau guztia argiago ikus liteke.

Batez besteko egonaldia eta betetze-maila, hilabeteka. Nekazal-turismoa. 2004												
	Euskal AE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Batez besteko egonaldia	Betetze-maila plazaka	Betetze-maila gelaka	Batez besteko egonaldia	Betetze-maila plazaka	Betetze-maila gelaka	Batez besteko egonaldia	Betetze-maila plazaka	Betetze-maila gelaka	Batez besteko egonaldia	Betetze-maila plazaka	Betetze-maila gelaka
2003												
Iraila	2,55	29,71	32,30	1,89	19,58	21,63	2,43	27,87	30,62	2,85	35,07	37,67
Urria	2,05	19,00	21,46	1,96	19,50	21,09	2,21	21,49	24,47	1,98	17,11	19,61
Azaroa	2,04	17,10	19,12	1,78	14,70	16,02	2,36	18,86	22,13	1,93	16,88	18,33
Abendua	2,43	24,00	26,21	2,58	22,83	26,39	2,33	25,50	27,38	2,44	23,53	25,38
2004												
Urtarrila	2,39	12,43	14,11	2,15	10,39	10,63	2,44	12,50	14,41	2,45	13,24	15,29
Otsaila	2,19	17,06	19,27	2,23	15,89	17,90	2,38	16,31	18,10	2,07	18,02	20,56
Martxoa	2,09	20,21	22,09	2,04	17,40	20,00	2,26	23,53	25,79	1,98	19,14	20,40
Apirila	3,03	29,76	32,06	2,56	24,63	25,36	3,36	29,89	32,11	3,02	31,87	34,88
Maiatza	2,39	20,85	23,63	2,00	15,55	17,41	2,45	23,06	25,68	2,50	21,91	24,94
Ekaina	2,18	25,20	27,66	2,06	17,84	19,01	2,19	28,77	32,20	2,21	26,32	28,42
Uztaila	3,28	45,76	48,62	2,82	25,97	29,18	3,41	51,29	53,72	3,32	51,22	53,11
Abuztua	5,57	74,54	77,77	4,13	53,23	53,66	4,97	70,67	75,43	6,60	86,35	88,21
Iraila	3,00	32,67	35,43	2,45	21,59	24,48	2,73	34,32	36,30	3,41	36,50	39,39
1998	2,38	23,34	24,79	1,95	20,92	22,60	2,20	29,70	31,24	2,72	20,95	22,37
1999	2,73	27,66	28,70	2,27	22,18	23,44	2,64	34,32	36,43	2,97	25,67	25,97
2000	2,52	24,69	24,59	2,05	20,75	20,58	2,43	29,48	30,69	2,78	23,21	22,49
2001	2,62	25,08	28,08	2,23	21,23	23,41	2,58	29,44	33,05	2,83	23,80	26,75
2002	2,60	26,95	28,21	2,36	22,43	23,74	2,62	29,61	31,54	2,68	26,92	27,76
2003	2,66	27,03	28,21	2,27	21,42	23,74	2,61	27,67	31,54	2,84	28,84	27,76

Data 2004ko Urriaren 21a

Iturria: EUSTAT. Establezimendu Turistiko Hartzaileren Inkesta.

Apirila (Aste Santua dela eta), uztaila eta nagusiki abuztua dira hilabeterik errentagarienak nekazal-turismoen jabeentzat. Opor denboraldi hauek erabiltzen ditu jendeak atsedenaldira luzeagoak hartzeko. Taulan agertzen den moduan, bezeroen batez besteko egonaldia altuagoa da aipatutako hilabeteetan gainontzekoetan baino.

Opor denboraldia ez denean, bezeroak nagusiki langileak izaten omen dira, enpresetako errepresentanteak. Lezon dauden nekazal-turismoetako jabeen artean oso harreman ona dago, eta batek bezeroak soberan izan ezker, ez du bi bider pentsatzen aldameneko nekazal-turismora bidaltzeko.

Lezon oraindik ez dago eskaintza turistiko antolatu bat. Beste herri batzuetan lotarako eta jateko tokiaz gain, ibilbide naturalak edo kulturalak eskaintzen dira. Hau da azken finean bisitariak nahi duena, mendian bueltaxka bat eman, ondo jan eta lasai lo egin. Nekazal-turismoa jartzen dutenatariko askok argi dute beraiek eskaintzen dutena folklorea dela, *“nik hola ikusten dut, elemento folkloriko bat da, hara hor Euskal Herria, ta baserriak ta... Hortxe dago, ta mantendu einbehar da, baiña hori elementu folklorikoa da”*. Bezeroak bilatzen duena aintzinako bizibide baten errekreazio partziala da. Hau da, atsegin du baserriak garai bateko arkitektura mantentzea, altzari zahar-berrituen usaina. Baina berak ikusten duenak ez du ia zerikusirik “benetako” baserriarekin, eraikina da mantentzen dena. Gainera, gaur egunean gero eta zerbitzu gehiago eskatzen dira, *denak eskatzen dute komuna ta gela barruan, telebista, ta internet, ta saletite ta...* Baserri modernoa inolako zalantzarik gabe.

HAU KOMERIA!

Baserritarra, hau komeria! Atal honentzat egoki aukeratutako izenburua da. Izan ere, baserria eta baserriko bizitza ulertzeak hamaika komeri sortarazten ditu. Atal honetan azaldutakoek, oro har, euskal nekazal gune osoaren hausnarketa egiteko balio dute, baina nekazal guneari orokorrean gertatzen zaiona ulertzea ezinbestekoa da Lezokoa konkretuki ulertu nahi badugu.

Hasieran aipatu dugun moduan, euskaldunok baserriaren inguruan aurrez definitutako iritzia daukagu, baserriaren eta baserritarren inguruko irudi bat eraiki dugu, eta gehienez irudi hau ez dator bat errealtatearekin.

Baserritarren irudia erreala izan edo ez izan bere funtzioa betetzen du. Argi dago Euskal Herria baserria baino askoz gehiago dela, baina uka ezina da baserriak euskal-duntasanarekin identifikazio lotura indartsua duela. Komunitate guztiek, bai txikiek eta baita handiagok ere, behar dute kideak bateratuko dituen zerbait, identifikatuko dituen zerbait. “Euskaldunon komunitatean”, neurri handi batean, baserriak eta nekazal guneak betetzen dute funtzio hori. Euskal “nortasunaren” oinarriko zati bezala ulertzen da baserria. GURRUTXAGAK (1991), egoki definitzen du *komunitate* kontzeptua, eta esaten ari garen guztia hobeto ulertzen laguntzen digu, *“se entiende por comunidad el sentido de*

pertenencia y la vivencia de unos sentimientos y valores compartidos al interior de un grupo social cohesionado por pautas e ideales colectivamente definidos y ritualmente celebrados. La diferencia y la pertenencia se reproducen a través de la memoria compartida. Es decir, la comunidad celebra la pertenencia a acontecimientos originarios, primigenios jugando con el tiempo, los gestos y las palabras que vehiculan la continuidad de la tradición”.

Definizio honetan oso espresio garrantzitsuekin egiten dugu topo; talde sozial bateko kide izatea, balore eta idealak partehartzea eta ospatzea, memoria bat (iragan bat) partehartzea, tradizioari jarraipena ematea... Haiek guztiak “baserrian” gorpuzten dira.

Talde, komunitate, sentimenduak erritu eta festen bitartez birtortzen dira. Festa hauetan identitateak ospatzen dira. Victor TURNER²⁴ (1980) antropologoak azaltzen duenez, festa erritualizatuen bidez *espazio liminoideak* sortzen dira; hau da, taldekideen arteko ezberdintasunak lausotzen diren espazio bat sortzen da, guztiak berdintzen eta bateratzen dituen. Horrela *communitas* edo komunitate sentimendua lantzen da. Euskal Herriko hainbat festa aztertzen baditugu, agerian geratzen da festa hauen ospaketak nekazal gunearekin duen harremana. “Euskal Jai” eguntan baserritarrez jantzen dira adibidez Zarautzen edo Ordizian, gabonetan ere ohikoa da baserritar jantzirik abestea, etab.



Gizonak baserritarrez jantzita. (Iturria: Lezoko fototeka)

²⁴ TURNER, Victor Witter. (1980). *La selva de los símbolos*. Siglo XXI. Madrid. **Communitas**: un estado de sociedad que se opone al régimen debidamente estructurado de las relaciones entre los hombres y que restituye a estos, a través de la realización de los ritos y en un contexto de “liminalidad”, una forma de participación social no sometida al orden estatutario y a falta de la cual, no habría coexistencia posible.

Esaniko guztiak gogoan izanik, ohartu behar gara baserriaren krisiak, baserriaren aldatketak, ez duela soilik baserritarrengan eragiten. Baserria euskaldunontzat gure nortasuna adierazteko bide bat bada, berau krisian egoteak gure nortasunean, gure komunitate sentimenduan ere eragin zuzena du.

IV. ATALA

GAUR EGUNA, BIHARAMUNA.

Gutxitan begiraten dute iraganera Lezoko baserritarrek, oraina eta etorkizuna dira beraien kezka nagusiak. Orainaldian eguneroko erronkei aurre egin beharrean aurkitzen dira; esnearen prezioa bere horretan mantentzen dela, osasun kontrolak direla, dirulaguntzak lortzeko paperak direla... badago zertaz kezkatua. Etorkizunari begira, bestalde, ez dute baserritarrik ikusten Jaizkibelgo magalean, beraiek omen dira Lezoko azken baserritarrak, *“Behintzat inguru hontan baserriak, galtzeko, galtzea dijoaz, ia hiltzea. Erabat, lana zenek eingo du baserrian? Forma hortan ezin leike lan ein! Ezta posible lan eittea. Ba bai, hau galtzeaijoea, galtzeaijoea”*. MIGUEL.

Tristura eta poza, bi sentimenduak nahasten zaizkie baserritarrei. Izan ere gogorra da betidanik ezagututako bizibidea galtzen ikustea, baina, bestalde, inor gutxik nahi du bere seme-alabek bizimodu gogor honekin jarraitzea, *“ba pena ta poza. Hemen uste det bukatuta doztela, horrek poza baina angustia ere bai. Nirekin bukatu da! Nik ez diot ikusten aurreapenik, ez, ez!”* MARTIN.

Lezoko baserriek ez daukate ziurtaturik jarraipena. Baserri batzuetan jabeak mutilzahar edo neskazaharrak dira, eta ez dago ondorengorik, *“[Etorkizuna?] arrunt gaizki porque, basarritarrak, dauden basarritar pizarrak, danak mutil zahar gelditu dia. Denian mutil zaharrrak daude”*. TERE. Beste baserri batzuetan, nahiz eta ondorengoak egon, hauek baserriitik urruntzen diren bizibideak hautatu dituzte.

Lezon baserritarren artean bildu ditugun kezka eta buruhausteak hiru azpiataletan banatuta aztertu ditugu: azpiegitura proiektu handiak, ekoizpen ereduak eta salmenta ereduak.

AZPIEGITURA PROIEKTU HANDIAK.

Lehen beltz badago baserrien etorkizuna Lezon, kanpotik datozen azpiegitura proiektu handiek are beltzagoa jartzen dute. Gaintxurisketako industria gunea, Pasaiako Super Portua, errauste planta, errepide berria..., zuzenean edo zeharka lezoarren bizitzan eragingo duten proiektuak dira. Lezoar guztiek, eta baserritarrek bereziki, zalantza eta beldurrez beterik begiraten diete. Aroak dioenez, proiektu hauen eraginez zaila gertatzen da epe luzeko nahiz epe laburreko, plangintzak egitea. Izan ere guztia goitik behera aldatu bailiteke; berak adibide gisara Super Portua aipatzen digu, *“eske ez dago, hemen ez dago planifikatzerik, ez dago, auskalo. Superportu hori egiten badute, ta irteera bat egiten badute, nik eztakit. Eztakit, eztakit, eztakit zer gerta liteken, baiña aldaketak izango diela hori argi ta garbi”*. ARANTXA. Super Portuarekin gertatzen den moduan, Lezon eragina izan dezaketen proiektu guztiek sortzen dute ezinegona, *“utzi e ez digute ingo. Bateko superportua dela eta besteko eztakit zer dela, eta besteko eztakit zer, Lezo behintzat, hau txikitzen ai da dena bazter guztik. Geo inzineradora dala ta ez dakitz zer dala eta hainbeste proiektu? Haik danak aurea juten badia, hemen urte gutxi barru... Bakarra naizela baiño laister hobe gaiñea, bukatu ta”*. RAMON.



Arriandi baserria.


Orratz herri aldizkarian (2000, abendua) jaso den moduan, Euro-hiria izenez ezagutzen den eremuan, Donostia-Baiona artekoa alegia, hainbat azpiegitura proiektu aurreikusten dira datozen urteetan. Horien artean dago Gaintxurizketan eraiki nahi den industria gunea. Euskadi 2000Hiru egitasmoaren barnean kokatzen da Lezoko nekazal inguruan eraiki nahi den industrialde hau. Gaintxurizketari dagokionez, industria gunek 306.000 metro koadro izango ditu, Gaintxurizketako kaskotik Iturringo industrialderaino. Horietatik, 125.000 metro koadro eraikiko dira. Lur horien erabilpena industriadarako izango da batik bat, baina Euskadi 2000Hiru ekimenean azaltzen denez, “zati bat garraioaren intermodal jarduerarako erabiliko da”. Intermodala garraio plataforma bat da: trenbide, errepide eta portu sareak biltzen ditu. Plataforma hori “Irun-Pasaiaiko Portuko korridorean” eraikoko zela aitortu zuen Eusko Jaularitzako Garraio sailburuak.

Ez da industria gunea Gaintxurizketa “erasotuko” lukeen proiektu bakarra. Gipuzkoako Foru Aldundiak Altamirako biribilgunetik Irungo Landetxa auzora doan errepide berria egiteko proposamenari jarraitu ezkeru, errepide berri hau Lezoko hainbat baserri eremuetatik pasako litzateke. Abendaño, Abendaño Berri, Olaizola, Aristiberri, Zapatazar eta Gaintxurizketa baserriak bota egin beharko litzukete. Gainera, eginiko kalte ekologikoa oso garrantzitsua izango litzateke. Baserritarren eguneroko jardunean ere izugarriko era-

gina izango luke, “eragin handia izango du. Autobidea egiteko lanerako behar ditugun lurak kenduko dizkigute. Horrek zailtasun bat gehiago ekarriko digu baserriak bizi garenoi. 2. fasea egiten bada egoera oraindik okerragoa izango da: askoz lur gehiago galdu, karretera etxe ondoan...” Errepide berri hau ez egiteko aukera bezala N-1 zabaltzea proposatzen da. Bigarren aukera honek ez lituzke halako kalteak eragingo nekazal guneeetan. Lezoko Udalak eta biztanlegoaren gehiengoak egiten dute bat bigarren aukera honekin.

Herriondo bailara ere ez da “salbu” aurkitzen. Bi dira bailara honen jarraipenerako arrisku nagusiak: alde batetik, herrigunetik gertu aurkitzen denez, badago ingurune hau etxebizitzetarako urbanizatu nahiko lukeenik, eta bestetik, Diputazioak onartutako Errenteriako saihesbidearen bigarren faseak aurrera egingo balu, bailararen erdi-erditik pasako litzateke, “eta balkoyan aurrian karretera? Eta etxe zaharrare, baserriya, hala gelditzen tzao ta haber, nik baserriya hemen dakat eta nei hemen jarri bariantea, hoi ama! Alde ingonuke nik hemendikan”. RESU. Resuren hitzetan ikusi litekeen moduan, errepide batek bailara erdiz erdi zeharkatuko balu, baserriar gehienek erabakiko lukete beraien etxea uztea, eta ziurrenik nekazal lur hauek industria lur bezala erabiliko lirateke. (Udal Lezon. 2002ko Otsaila, 16 zb).

Lezo ingururako proposatzen diren azpiegiturei begirada bat eman orduko konturatzen gara hauek nekazal gunerako suposatzen duten “arriskuaz”. Proiektu hauek gauzatu



ezkero baserri lurretariko asko desagertu egingo lirateke, eta honek bai baserritarren bizi-moduan eta baita herri nortasunean ere izugarritzko eragina izango luke.

Erakundeetatik bultzatu nahi diren proiektu hauei aurka egiteko ezinbestekoa da kolektibo bezala elkartu eta presioa egitea. Lezoko baserritarrei dagokienez, taldea ez dago oso elkartua, eta nekea agerikoa da. Ez dugu ahaztu behar baserritarren batez besteko adina 55 urte inguruan dagoela, eta bizitza erdia daramatela gauza batengantik edo bestearengatik borrokan; esnearen prezioa igotzeko eskatzen, diru-laguntzen beharra defendatzen... Hainbeste gora-beheren ostean, nekeza egiten da borrokan jarraitzeko indarrak biltzea. Baserritarren kolektiboan agerikoa da gazteen beharra, *“eta gainera ez dago, jende gaztia da tiratzen duena gauza, iniziatiba eta gauzak. Eta balego gazte talde bat 20 etxetako o... Guk sekula ez degu kontzejalik izan, beti herriko jendea, sekula ez degu moittu. Ez gea ez antolatu. [...] Baino orain denak galduta gabilta”*. KARMELO.

Aipatu berri ditugun proiektu hauek guztiak nekazal guneetan eta baserritarren bizitzetan eragiten badute ere batik bat, gogoan izan behar dugu Lezoko eguneroko bizitza ere zeharo aldatuko luketeki, herriko lasaitasuna eta bizi kalitatea gal daitezke.

Lezoko, eta beste hainbat udalerritako, baserritarren gogoan bueltaka dabilen beste arazo bat errauste plantarena da. Errauste planta hauen kutsakortasunagatik kezka ugari sortu dira, *“porque esateute hamar, medikuan, berreun medikok egin dute informea Irunen eta esateute hamar kilometro baiño kontaminatu, kontaminatu eh! Dagon guztiya; berdurra, berdía, fruta, ura eta danak esan dute. Horrek beldurra ematen du. Hoi baldin badakazu, dakazun guztia alferrik daukazu. [...] ta zuk ez dezu jun nahi, zue parajetik etzu jun nahi. Baiño hoi ingo baluteke nik ez dakit ze ingo nuken e? Ni enintzake hemen biziko”*. Hitz hauetan islatu zituen Resuk bere beldurrak. Biztanleriaren osasunarentzat oso kaltegarria izateaz gain, nekazarien jardunerako arazo izugarria izango litzateke. Adibide moduan, Herbeheretan, AEBetan eta Erresuma Batuan, esaterako, debekatuta dago errauste planta batetatik 20 kilometro baino distantzia txikiagora bazkatzen duten behien produktuak edo bestelako animalietatik eratorritako produktuak merkaturatzea. Nekazarietzako kaltea agerikoa da.

EKOIZPEN EREDUAK.

Azken urte hauetan ezagutzen dugun gizarte ereduak kontsumoa du oinarri. Aurrerapen teknologikoak, lehiakortasuna eta administrazioetatik bultzatu diren politikak dira, besteak beste, eredu kontsumista honen erantzule. Kontsumoan oinarritzen den eredu honek gizarte osoa aldatu du, baita nekazal gunea ere; gizartearen kontsumo nahiei erantzuteko ekoizpen ereduak aldatu dira baserrietan.

Garai batean, salbuespenak bazeuden ere, baserri gehienek antzeko ezaugarriak zituzten (bai lur aldetik, teknologia aldetik edo eskulanaren aldetik). Gaur egunean, bestalde, gero eta handiagoak dira eremu berdinean dauden baserrien arteko ezberdintasunak.



Gurutze Santuaren eliza eta Kale Nagusiko sarrera. (Iturria: Lezoko fototeka)

Nekazaritza eredu bakoitzari lanerako prozedura zehatza dagokio. Eredu bakoitzak funtzio aniztasun desberdinak dauka. Euskal Herriko baserri gehienek lurrari lotuta lan egiten badute ere, eredu asko ari da aldatzen urte gutxitan teknologiaren, produktibitatearen eta espezializazioaren ondorioz. Baserritarrak historikoki bete izan dituen funtzio ekologiko eta sozialak gutxitzeko joera dago, berau behar bezala ez baloratzearen ondorioz. Gaur egun bi joera nagusi bereiz daitezke²⁵:

LURRARI LOTUTAKOA	- EKOLOGIKOA - KONBENTZIONALA
LURRIK GABEKOA	- KONBENTZIONALA - AGROINDUSTRIA

²⁵"ANBU". (2004). *Baserría eta baserriaren egoera*. San Juan Konpartsa. Hernani.

- **AGROINDUSTRIA:** Bere funtzio bakarra masiboki elikakagaiak sortzea da.

- **KONBENTZIONALA:** Bi muturren arteko baserri kopuru andana aurkitzen da eredu honetan. Multzo honetan daude jarduera tradizionalari eutsi diotenak, eta teknologiarri esker produkzio emendatzea lortu duten baserrien gehiengoa.

- **EKOLOGIKOA:** Lurrari lotutakoa, eta ingurumenaren zikloak errespetatuz egindako nekazaritza eredu. Euskal Herrian erlatiboki berria bada ere, hazkunde handia ezagutzen ari dena, bere kalitate, errespetu eta edukin sozialagatik.

Lezon baserriko lanarekin jarraitzen duten baserritarrek ez dute oso argi ikusten jarraitu beharreko bidea. Erabakiak hartzea gero eta gehiago kostatzen da. Euskal Herriko erliebea dela eta (mendi malkartsuak), eta baserrien zabalera dela eta (ez dira oso baserri handiak eta orokorrean ez dute lur eremu zabalik) nekazal produktuen ekoizpen kostuak oso altuak izaten dira normalean, eta hori dela eta, oso zaila gertatzen da merkatuan lehiakor izatea. Kanpotik, bai espainiar estatutik edo atzerriko beste edozien herrialdeetatik, datozen produktuak merkeagoak izaten dira normalean. Euskal Herri mailan ere izugarria da konpetentzia, eta baserri txikiak nekez egin diezaiekete aurka baserri handiei, *“hor nola ikusten dia kotxek kriston indarrakinda, oin aurren txikiak ezin du”*. IÑAKI. Baserritar honek dioen moduan, txikiak handiaren aurka ezin du, *“[Txekorrak] lenau karnizeian aixa, oain? Gaur rebajak ein douste. Ta zea urteko txekorra, garai batian gue aittak saltzentzittun bi urteko txekorrak, bi urte bi urte ta erdi ta beinga! Baina oian hortane galera, galera, ze granjan kontra guk ezindeu ezer ein, ze granjakuak itten du urtekoa, indizioak ematen dizkete, puztu ta hantxe”*.

Gaur egun merkatuan lehiakor izatekotan nekazaritza eta abeltzantza intentsiboa planteatzen dira irtenbide bakar gisara. Ramonek argitu zigun moduan, abeltzantza intentsiboa aukera bat baino gehiago behar bat da, *“erabaki, erabaki? Lehen 200 ardi-kin bizitzen zan famili bat baño oan doste ba, ze esangoizuet nik, lehen eskuz jeiste zien oain makinak, gasto gehio do, eta lekua eta geo sanidadeagatikan esijitu e gehio in da ta gastu hoik buelta emateko ba, kopuru gehio jarri ber, hor ez do bueltaik! RAMON*. Karmelok ere aipatzen digu baserriko lanetik baserriz kanpoko lanetik adina irabazteko ezinbestekoa izango litzatekeela animalia kopuru handia jartzea. Behi esneen kasuan hilabetean 1.500 euro irabaztekotan, 300 esne behi inguru jarri beharko litzuzkeela kalkulatu du.

Ezagun batek dioen moduan, artzain izatetik “abeltzain enpresario” izatera pasa dira. Baserri eta txabolen alboan izugarritzko pabeloiak eraki dituzte, mendiaren berdean deigarri egiten zementuzko eraikuntza handi horiek. Mendian 200 ardirekin egoten zen artzainaren irudia oso urrun aurkitzen da gaur eguneko artzantzatik.

Abeltzantzan edo nekazaritzan intentsiboki lan egitea erabaki duenak horretara bideratu behar duen diru inbertsioa izugarria da, *“ez do bromik gaur egunin gastukin da*.



RAMON. Egia da badirela proiektu hauek gauzatu ahal izateko diru laguntzak, baina diru laguntza hauek ere badute desabantailarik. Egin beharreko papeleoa nahaste berraste hutsa iruditzen zaie zenbaiti, "hoi zailtasun gehiena hoixe, papeleo ikeagarri, bat izan o bestea izan, papeleoa bueno bueno, ta han ez baizue hemen harrapatzeizute tranpa, beti zailtasun hoi". RAMON.

Bestalde, dirulaguntzak lortu arren, diru laguntza hauek ere beste arazo batzuk dakartzate, "hasieran ematen dia gauza hauek, baina geo bakizu zer dian, fiskalidadia gero etorriko da, gero egingo ditek eskatu, eman behar du kontabilidadia, IRPFa, desgrabatu ahal dek, ganantzietan sartuko ahal dek ez dakit zer, azkenian erotu, erotu itte zea, eta emandakua kendu iten dizue". KARMELO. Behin diru laguntzak lortu ezkeroko ekoizten denarekiko kontrola ere handiagotu egiten da, erakundeek oso gertutik jarraitzen dituzte abeltzain eta nekazarien pausoak, "oso kontrolatuta dago, oso. Dirulaguntzak pues bueno eman ezkeo oso onak dia, baina horrek lotura dakar, lotura handia jartzen du". KARMELO.

Ekoizpen erduekin lotura zuzena duen aktualitateko beste gai bat produktu transgenikoena eta ingenieritza genetikoarena da. Ekoizpen masifikatuaren eskutik etorri ohi da sarritan produktu kimiko edo artifizialen erabilera. Abereen kasuan oso zabalduta dago hormonon erabilera, hormona hauei esker abereak lehenago ahaztea lortzen da, "oilaskoa bat, egiten badizute 33 eguntan, holakoak kilo t'erdikoak. Zuk hartzen dezu txita bat, oraindik lumak ateratzen eta jendiak hori jan nahi du. Gainea baserriko oilaskoa ez du nahi. Eta zuk esaten dezu jaten degu 33 egunetan egindakua, eta zuk esaten dezu ze

ostia ote du honek holako muskuluak egiteko". KARMELO. Oilaskoekin bezala gertatzen da txekorrek ere, *"jarri dute txekorra urtebetetik behera, hori beste barbaridade bat. Txekorra berez zaintzeko 15 hilabete behar ditu, urtebetian egin behar bada, porque kar-nizeruak, zeozer eman beharko zaio urte betian egiteko bere gorputza"*. KARMELO.

Lezon baserriar gehienek ez dute begi onez ikusten hormonen erabilera, eta esan zigutenez pentsu naturalaren aldeko apustua egiten dute, *"hemen pentsua botatzen da, beti naturala dia eh, guk ez du konpuestoik ibiltzen. Arto txikitua"*. RESUren ama. Baina pentsu naturala askoz garestiagoa eta motelagoa egiten da abereen hazkuntza, *"13 hillabete, 14 txokorra hazitzeko haber, zenbat jandrdun harrek, zenbat kilo pentsu ta jan berdittun. Esnia, lehenbiziko esnia, ta geo pentsua. Bua!!! Haik denak papelian apuntatuta balieke!"* RESU. Bestalde, sarritan kontsumitzaileek nahiago izaten dituzte modu artifizialean ekoiztutako produktuak modu naturalean ekoiztutakoak baino.

MERKATURATZE EREDUAK.

Banaturako bi ataletan aztertu baditugu ere, agerikoa da ekoizpen ereduaren eta merkaturatze ereduaren artean dagoen lotura. Baserriarrak kontsumitzaileen nahiei erantzuten saiatzen dira ahal duten neurrian, baina aitortu digutenez, azkenaldian zaila gertatzen zaie erosleek lehentasunak ulertzea, *"nik esateizuet azkeneko urtetan baratzata saltzen zanian, azkenian Lezoi utzi zioten berdura hartzari, zea, babak eta zittulako. Nahigo zittuzten supermerkatukoak garbiagoak zielako"*. AROA. Berdurarekin gertatzen den gauza bera gertatzen da abereekin, Resu oraindik ere harrituta dago baserriko oilaskoa saltzeko aurkitu izan dituen zailtasunez, *"hala esantzian andrik, ez eaman dut baiño nee gizonak eta esan naute gogorrago dela. Madre de Dios! Gogorragoa? Baiño naturalagoa da! Eske bestea da, belaka belaka txar-txarra"*. RESU.

Hainbat ikerketetan ageri denez, kontsumitzaileok geroz eta garrantzi gutxiagoa ematen diogu elikadurari, geroz eta diru gutxiago gastatzen dugu elikagaietan. Hamabots urtetan errentaren %40 elikaduran gastatzenetik %20 baino gutxiago gastatzera pasa gara. Datu hauek ikusita nahiko errez uler liteke kontsumo ereduaren eman den aldaketa.

Daramagun bizitza erritmoa dela eta supermerkatu nahiz salgune handiak merkatu eta azokak baino askoz erosagoak dira erosleentzat. Merkatu eta azokak goizez izaten dira, eta jendearen gehiengoak lanean dagoenez ezin izaten dute joan, *"baiño plazare oain ya, ne koñata e oaindik joaten dia plaza eta ya, ezin salduik. Geo eta okerrago dioa porque jendia ya ohitu da supermekadu handita, eh behartu gea ya denak diru gehio izatea, gas-to handiyak daude, diru gehio izatea, andria eta gizona lanea juten dia eta geo lanetik atetzen dienin ba tokiyoik nola irikiya dausten ba harea juten da, ta plaza izaten da goizian eta hoi da laneko ordua eh!* RESU.

Bezerearekin zuzeneko salmentarako aukera galduta, supermerkatuetara saltzen du baserriarrak bere produktua, honen ondorioz ekoiztu duen produktuaren gaineko kontro-

la galtzen du, eta erosleak, berriz, erosten duen produktuaren gainekoa. Tartean banaketa eta salmentarako elementu "arrotzak" (merkatal gunek handiak) sartu direnez, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko distantzia areagotu egin da, eta honek ondorio ezkorrak ditu, bai batzuentzat eta baita besteentzat ere.


"ANBU". (2004). *Baserría eta baserriaren egoera* lanean salmenta ereduaz, prezioaz, kalitateaz eta distribuzioaz eginiko hausnarketa orri hauek ekartzea oso interesgarria iruditu zaigu, izan ere, oso ongi laburbiltzen baitute orain arte esaniko guztia.

Aipatutako lanean ageri denez, "salmenta edo distribuzio ereduak kalitatea eta salneurria baldintzatzen du. Hiru puntuak elkarrekin oso erlazionaturik daude: prezioak zerikusi zuzena du kalitatea eta distribuzio ereduarekin. Era berean, kalitatea loturik dago ordaintzeko prest gauden prezioarekin, eta nola ez banaketa ereduarekin. Banaketa ereduak beraz, bai produktuaren kalitatean eta bai bukaerako salneurrian (ez baserritarrari ordaintzen zaion salneurrian) izango du eragina.

- **SALNEURRIA:** Ezartzen diren salneurriak baserritar zein kontsumitzailearentzat egokia izan behar badu, ezinbestekoa da merkaturatze bide laburrak erabiliz bitartekariak ahalik eta irabazi gutxien izatea. Azken ikerketek diotenez, ohiko merkatal bideetan dabilzan elikagai arruntek batezbeste % 300eko igoera jasaten dute (kasu batzuetan % 1000 baino gehiago) ekoizleari ordaintzen zaionetik kontsumitzaileari kobratzen zaionera. Bide horretan baserritar zein kontsumitzaileok ahalegin bat egin beharko dugu hau horrela gerta ez dadin.

- **KALITATEA:** "Kalitatea" asko eta gaizki erabili ohi dugun hitza da. Gusto onekoa, itxura onekoa, osasuntsua, bertakoa, kalitate etiko, biologiko eta soziala... zer da kalitatea? Zeri eman nahi diogu garrantzia? Produktuaren kalitatea baloratzeko garaian ezinbestekoa da produktuaren bide guztia ezagutzea, eta kontsumitzailea produktuaren atzean dagoenez jabetzea.

- **BANAKETA:** Banaketak bai kontsumitzaile zein baserritarraren erosotasuna, bai kalitatea (freskotasuna, konfiantza...), bai prezioa eta produktuaren gainean daukagun informazioa baldintzatzen ditu. Distribuzio ereduaren arabera asko alda daiteke baserritarrari ordaintzen zaion eta kontsumitzaileari kobratzen zaion prezioen arteko diferentzia. Bai erosotasuna eta bai kalitate ordaindu egin behar dira."²⁶



²⁶"ANBU". (2004). *Baserría eta baserriaren egoera*. San Juan Konpartsa. Hernani



Produktu ekologikoen azoka.

Bai ekoizpen eta baita merkaturatze ereduei dagokienez, etorkizunera begira **kalitatea** bilakatu da baserriarrentzat irtenbide nagusi. Baserriar askok aukeratu dute labelaren edo produktu ekologikoen bidea, baina Lezon badaude irtenbide honen inguruko zalantzak. Karmelok aipatzen digun moduan, baserriarrak soilik ez, kontsumitzaileak ere egin behar du “kalitatearen” aldeko apustua, bestela alferrik gabiltza. Elikadurari geroz eta garrantzi gutxiago ematen zaionez, kontsumitzailea “hezi” egin beharko litzateke “kalitatezko” produktuak eros ditzan, *“gure gizartean soluzioa hori da, integratzea gizarte hortan, earrak gittunan gu, gizartea edukatuko degu gure beharretara. Ze pesimista ezta”*. Karmeloren hitzetan ikus daitekeenez, berak ez du uste baserriarrak erraz izango duenik eroslea “hezitzen”, are gehiago, azkenean kontsumitzaileari berak nahi duena eman behar zaiola aipatzen digu, nahiz eta hauek produktu artifizialak izan, *“gizarteak behar ditun beharrei erantzun behar da, eta ahaleginak egin behar badia, egin beharko dia. “Konbluteron” sartu behar zaiola, sartu beharko da, jendiak hori jaten du gustoa eta. Eske egia da, hori da gogorra esatea baino horrela da. Zebaderoak etortzea, Donostia, denak igual-igualak, gizen-gizenak, biguin biguinak. Hori egin beharko deu. KARMELO.*

Baserriar honen irritziz, elikagaiak erosterakoan euskaldunok ez gara besteen ezberdinak. Globalizazio prozesuaren barnean sartuak gaude gu ere, eta gehiengoak funtzionatzen duen moduan funtzionatzen dugu geuk ere, *“euskaldunak zer gea gizartean? Besteak*

bezelakoak gutxi gora-behera. Pircing-a ba pircing-a, "dis" noseke, nosekuantos, baka-ziota... Ba bai, hemen egongo da zati bat erosiko duna kalitatekoa, Kataluñan egongo dan bezala, biño %80a segituko du okina erosten eta gu gurean gaude oso ezberdinak geala eta letxia!!! KARMELO.

...AZKENEAN...

Azken atal honetan modu labur batean aipatu ditugu Lezon baserriaren jarduna arriskuan jar dezaketen arazoak. Ekoizpen eta merkaturatze erduei dagokienez, etorkizunari aurre egiteko alternatiba bat edo beste ere jaso dugu. Baina baserriak bizi diren lezoarren gogoa "etorkizuna" gero eta arrotzagoa den hitza da. Eredu alternatiboen aldeko apustua egiteko ezinbesteko baldintza dira inizatiba eta gogoa, Lezoko baserriarren artean nekeza da bi ezaugarri hauek aurkitzea.

Orri hauetan zehar argitu bezala, Lezoko baserriarrak adinean sartuta daude jada, eta ez dituzte etorkizunerako proiektuak egiten. Egunerokoan "irautea" da beraien erronka nagusia.

Gaztea eta etorkizuna elkarrekin dihoazen hitzak dira, eta ikusi dugun moduan Lezon ez dago baserriarekin jarraitu nahi duen gazterik. Inolako zalantzarik gabe baserri tradizionala amaitzeaz dago Lezon.

Baserri tradizionalaren ordeaz ere berriak nagusituko dira Lezon, baserriak aintzinako funtzioak alde batera utzi eta beste bide batzuk jorratu beharko ditu; badira turismora bideratuko diren baserriak, baina pixkanaka baserria etxebizitza soil gisa erabiltzea izango da gure iritziz, Lezon nagusiko dena. Iritzi bera dute baserriarrek, "*baserriya, etxea eta gehio ez, eta iasta. Zeinek jarraituko du baserriya? Zenek jarraituko du? [...]. Gaurko egunian baserriya gelditzen da etxeangatik, ez da baserriya mantentzeagaitik gelditzen, iñor ez da gelditzen baserriak oso ondo bizi delako*". TERE.

Baserriari, eraikuntzari, eustea izango da familiako ondarea zaintzeko bidea. Hau da, jada ez da bizibide bat gordetzen dena, eraikuntza bat gordetzen da. Hala ere, nahiz eta etxebizitza bezala soilik izan, ez da uste bezain erraza izango baserriari eustea. Baserriak ondare gisara balio historiko eta kulturala handia da, baina baserriaren balio ekonomikoa ere ez da txantxetakoa. Baxuenetik jota 60.1000 euro (ehun milloi pezeta) inguru balio dezake gaur egun baserri batek. Baserriaren balio ekonomikoa honek arriskuan jar dezake bere jarraipena.

Denbora luzez baserria zati ezinezko ondarea izan da. Euskal baserriak orokorrean nahiko txikiak izan dira, eta hauek ondorengo guztien artean banatu ezker, baserriak ez luke guztiak bizitzeko adina emango. Karmelok argitu zigun moduan, maiorazgo sistemen bitartez baserria seme-alaba zaharrenaren esku uzten zuten gurasoek honen ezkontza egunean. Ezkonberriak egiten ziren ondasunen jabe, gurasoei ondasunen uzta eta

errentaren erdia utziz. Gainerako senideei diru sari txiki bat ematen zitzaien, beraien irtenbidea aberatsen batekin ezkontzea, apaiz edo monja sartzea, Ameriketara joatea... izaten zen.

Gaur egunean, bestalde, gurasoek seme-alaba guztien artean banatzen dute baserria, eta hauetariko batek etxearekin gelditu nahi badu, besteen zatia erosi behar du, horretarako, izugarrizko dirutza behar da, *“herentzia sistema eta asko aldatu da, eta garai batean batentzako geatzen zian lurrak eta sitzen zun. Baino gaur egunian hemen, lurrak eta etxeak kriston balorea dute eta famili ez do bati uzteko ta hemen ezerren truke. Eta etxean gelditzen denak ere ezin du hartu dana, 100 miloi balio ditu eta bakoitzantzako 30 eta zin dio aurre egin. KARMELO.* Arazo hau dela eta, baserri ugari egon liteke eskuz aldatzeko zorian.

Baserritar askok azaltzen zuten irtenbide bezala kanpotik etorri eta Lezon etxetxo bat egin nahi zuenari lur eremu bat saltzea. Honela, salmentaren bitartez lortutako diruari esker, beraiek ere beren baserria konpon zezaketen, *“ta hi Villa koxkor bat ein nahi deu terreno hortan hainbeste milloi emangoiau. Ta joe, hainbeste milloi ta hua salbatu ittezan. Oain etxian obrak eingo ditiak etxian, berrittu, terreno muturra saldudu ta berrittu, dotorea baserria”.* IÑAKI. Baina honetarako ere gero eta arazo gehiago daude, lur eremu bat saltzekotan gutxieneko bat gainditu behar baita.

Derrigorrez erosi beharreko lur eremua nahiko handia da, ondorioz, erosleak lur saila erosten soilik diru kopuru handia jarri beharko luke eta honi etxea egitearen kostua gehitu beharko genioke. Eroslearentzat, beraz, ez da batere errentagarria ateratzen. Baserritarrarentzat ere arazoa da lur sail handia saltzea. Aipatua dugun legez euskal baserriek orokorrean ez dute lur eremu handiegirik izan, lur eremu hauei zati handi bat kendu ezkerro baserriak ezingo luke aurrera jarraitu bere eguneroko jardunarekin, *“gaur igual nik etxe bat ein nah ita kriston terreno pilla eskaitzezute, leno beiz terreno mutur batekin... Zuk hemen hoi etxe koxkor bat eitteko 10.000 metro terreno eskatzeizkate, ta baserritarai 10.000 metro kentzen baio, joder hundo! IÑAKI.*

Bai baserriek, eta baita Lezoko nekazal gunean egin diren gainontzeko etxeek ere, lotarako etheen funtzioa bereganatu dute, *“lotako toki bat, eta haurrak ematen ditu eskolara Oretetara eta. Herriko bizia dana galduta”.* KARMELO. Etxekoek kanpoan egiten dute lan, eta gauez eta asteburuetan egoten dira etxean. Badira Lezon ere nekazal guneko lasaitasunaren bila kanpotik etorri direnak ere, baina bertakoen iritiz, hauek ez dute auzoko edo herriko bizitzarekin bat egiten, *“eta jende berriak bakizu zer egiten dun lehendabiziko gauza, itxi, itxiera altuak, zakurra uau uau, eta ez dakigu lehen espazio irikia, eta orain danak daude ixten. [...] paisaia aldaketa handiya egongo da. Auzo lotura hori dena beheraka.* KARMELO.

Auzoko harremanek garrantzia galdu dute. Eta jada baserritarrek sarri ez dakite nor den beren alboan bizi dena, *“ez nik ez dakit hemen, bakit baserri batzutan zein daon ez. Ez*

dakit nungo baserrikua? Ez ideikan ez. Beste ere bateko biziya eraman behar degu. O ez degu hainbesteko erlazioa edo ez dakit nola esan". TERE.

Hitz gutxian deskribatutakoa uste dugu dela Lezon nekazal guneak duen etorkizuna. Baserri eremuari begiratzeko erabiltzen genituen betaurreko zaharrak alde batera utzi eta berriak jantzirik ulertu behar dugu errealitate berri hau, azken batean, aldaketa gizartearen jarraipenerako ezinbesteko baldintza baita.

LABURBILDUZ

Le an honen bidez Lezon nekazal guneak jasan duen aldaketa prozesua deskribatu dugu. Ikusi dugu garai batean baserriak betetzen zuen funtzioa eta gizartean zuen tokia eta gaur egunekoa guztiz ezberdinak direla. Garai batean, baserriak bai ekonomikoki eta baita sinbolikoki ere pisu handia zuen Lezoko herrian. Baserria zen nekazal guneko bizimodua egituratzen zuena. Baserriaren inguruan eskubide eta betebeharrak multzo bat biltzen zen. Idatzi gabeko arau multzo bat bazen ere, baserriaren gehienek errespetatzen zuten. Auzolana, baserriaren oinordekotza, etab kudeatzen ziren arau multzo honen arabera.

Baserria oso ondare preziatua zen, ekonomikoki familien sustengu izateaz gain, baserria nortasun eta prestigio emale ere bazen. Horregatik, baserriko seme edo alaba zaharrenarentzat, hau da, maiorazgoarentzat, zorte handia zen baserria oinordekotzan jasotzea.

Lezoko industrializazio prozesuarekin batera, pixkanaka aldatzen joan zen baserriaren funtzioa. Aldaketak esparru ekonomikoan eta baita esparru sinbolikoan izan zuen eragina. Alderdi ekonomikoari dagokionez, baserriaren askok hautatu zuten fabriketara lanera joatea eta baserriko lana bigarren mailako jardura moduan uztea. Garapen teknologikoari esker, baserrietan ere areagotu egin zen baliabide teknologikoen presentzia. Traktoreak, segadorak, behiak jezteko makinak... gero eta ohikoagoak bilakatu ziren Lezoko baserrien paisaian. Makinariak aldaketa handiak ekarri zituen baserrira. Lanaren banaketa, eta batez ere lanera bideratutako ordu kopurua asko aldatu ziren. Lezoko baserriarrek iraganean baino denbora gutxiago erabiltzen zuten nekazal jardunean, eta honek esku lanaren beharra gutxitzea ekarri zuen.

Sinbolikoki ere aldatu egin zen baserriaren "esanahia". Baserriak prestigioa galdu zuen, ez zuelako baserriaren behar ekonomikoari eta sozialei erantzuten. Modernizazio prozesuaren ondorioz, hiriko bizitza bilakatu zen "aurrerapenaren" ikur, eta nekazal gunea bestalde, "atzerapenarekin", "mugimendurik ezarekin" lotu zen. Baserriarrek ere ezin izan zioten ihes egin baserriaren kanpoko bizitzak zekarren lilurari, eta beraien balore eta balio sistemak aldatzen joan ziren, Lezo herria aldatzen joan zen heinean. Guzti honen ondorioz, baserriak nekazal gunea egituratzeko eta honen funtzionamendua arautzeko zuen gaita-

suna galdu zuen eta bere “nortasuna” gehiago bideratu zen “behar” folkloriko batzuk asetzera.

Egun Lezon, ez da dozena erdira iristen baserri hutsetik, hau da, Baserri Tradizionaletik, bizi den etxeko lan taldeen kopurua. Baserriaren funtzio ekonomikoa amaitzear badago ere Lezon, baserriak oraindik ere funtzio sinboliko garrantzitsu bat betetzen du. Liburuaren hirugarren atalean argitu dugunez, baserria sinbolo garrantzitsuenetariko bat da euskal kulturaren. Euskal nortasuna definitzeko orduan lehen mailako tokia betetzen du baserriak, baserria “euskalduntasunaren” gordailu nagusienetariko bat da. Baserriak sinbolikoki “euskaldunon komunitatea” bateratzeko funtzioa betetzen du.

Lezon baserria etengabeko eraldaketa prozesu batean aurkitzen da. Baserri Tradizionala amaitzear badago ere, eredu berriak ugaltzen ari dira. Eredu mixtoak, —baserriz kanpoko lana eta baserrikoa bateratzen dituen—, oraindik badauka bere tokia Lezon. Bestalde, biderkatzen ari dira turismora edo zerbitzuetara bideraturiko baserriak eta baita baserria etxebizitza gisara soilik erabiltzen dutenak ere. Uka ezina da ezin dugula baserria ikuspegi mugatu batetatik ulertu. Baserriaren errealitatea oso anitza eta aldakorra da Lezon, etorkizunera begira nork daki nolakoa izan daitekeen gure bilobek ezagutuko duten baserria.

BIBLIOGRAFIA

- Alberdi Collantes, Juan Cruz.** (2001). *De caserío agrícola a vivienda rural: evolución de la función agrícola en la cámara de Donostia-San Sebastian*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Gasteiz.
- Alonso, Arribas y Orti.** (1991,49). "Evolución y prespectivas de la agricultura familiar: de "propietarios muy pobres" a agricultores empresarios" in *Política y Sociedad* nº 8. Facultad de Ciencias Políticas y Sociología. Madril.
- "ANBU". (2004). *Baserría eta baserriaren egoera*. San Juan Konpartsa. Hernani.
- Arpal, J.** (1979) "Familia, caserío y sociedad rural. Análisis del cambio en un caso Guipuzcoano" in *Saioak* nº 3.
- Arpal, J.** (1979) *La sociedad tradicional en el País Vasco*, Aranburu, Donostia.
- Barrutiabengoa, U. Elias, N. Gonzalez, G. eta Rodriguez, A.** (2004) *Ahotsak. Emakumeak historian. Hernani (1936-1970)*. Hernaniko berdintasun saila, Hernani.
- Caro Baroja, J.** (1990) "El sociocentrismo de los pueblos Españoles" in *Razas, pueblos y linajes*. Universidad de Murcia. Murtzia.
- Contreras, J.** (1984) " La teoría de la 'modernización' y su concepto de cultura campesina: reflexiones críticas" en Sevilla Guzman (ed) *Sobre agricultores y campesinos. Estudios de sociología rural en España*, Servicio de Publicaciones Agrarias. Madril.
- Douglass, W.A.** (1977) *Echalar y Murelaga: oportunidad y exodo rural en dos aldeas Vascas*. Auñamendi. Donostia.
- Douglass,W.A.** (1973) *Muerte en Murelaga. El caso de la muerte en el País Vasco*. Barral. Bartzelona.
- Entrena Duran, F.** (1998). *Cambios en la construcción social de lo rural. De la autarquía a la globalización*. Tecnos. Madril.
- Etxezarreta, M.** (1979) "La crisis del caserío" in *Saioak* nº3.
- Etxezurieteta, K.** (1984) *Lezo herriaren ikuspegi sozio-politiko-ekonomikoa*, argitaratu gabea.
- Fernandez de Larrinoa, K.** (1999) "Estructuras emergerntes" en *Zainak* nº14 sociedad de estudios Vascos.
- Fernandez de Larrinoa, K.** (1999) *Sociedad rural, desarrollo y bienestar*. Gasteiz, UPV escuela universitaria de Trabajo social.
- Fernandez de Larrinoa, K.** (1996): "El estado de la montaña: Hacia una Antropología de las políticas de Restructuración de la Sociedad Rural Actual en el País Vasco" in *Intervención y diseños rurales. Campesinos, Bienestar Social y Antropología*. Escuela Universitaria de Trabajo Social. Gasteiz.
- Fernandez de Larrinoa, K.** (1995) *Intervención y diseños rurales. Campesinos, Bienestar*

social y Antropología. Gasteiz UPV, Escuela Universitaria de Trabajo Social.

Fuente Blanco, G. de la (1978) "Las jóvenes rurales en la encrucijada del cambio (el caso castellano)" in *Agricultura y Sociedad* nº 42.

Garayo Urruela, J M^a. (1998) "Investigación social y medio rural" in Fernández de Larrinoa (ed) *Sociedad rural, desarrollo y bienestar*. Gasteiz, Escuela Universitaria de Trabajo Social, 204-244.

Garmendia, G. eta San Roman, A. (2003) *Lezoko demografia eta industria XX: mendean*. Lezo Unibertsitate Udala eta Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia.

Greenwood, D. (1978) "La desaparición de la agricultura en Fuenterrabía" in Douglass (ed) *Los aspectos cambiantes de la España rural*, Barral, Bartzelona.

Greenwood, D. (1998). *Hondarribia riqueza ingrata: Comercialización y colapso de la agricultura*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.

Gurrutxaga, A. (1991) "El redescubrimiento en las sociedades contemporáneas" in *REIS* 56/91: 35-60.

Hobsbawn and Ranger. (1992) *The invention of tradition*. Cambridge University Press, Cambridge.

Hobsbawn, E. (1999) "Inventando tradiciones" in *Bitarte* nº 4: 39-53.

Levi-Strauss, C. (1958). *Antropologie Structurale*. Plon. Paris.

Labayen, F. (1974) *Emocionario Guipuzcuano*. La gran enciclopedia Vasca, Bilbo.

Silvan, L. (1970) *Lezo*,

Manterola, A. (1999) *Euskaldunak: La etnia Vasca*. Etor, Bilbo.

Martinez Montoya, J. (1999/2000) "De la ideología del progreso a la cultura de la permanencia" in *Kobie* IX: 43-56.

Martinez Montoya, J. (1998) "Cultura, identidad y cambio social. Los procesos de reidentificación cultural en el medio rural del País Vasco" in *Kobie* VIII pag 55-65.

Martinez Montoya, J. (1994) Los nuevos usos del espacio rural, Gasteiz; Eusko Jaurilaritza.

Moyano, E. y Sevilla, E. (1979) "Sobre los procesos de cambio en la economía campesina" in *Agricultura y sociedad* nº9: 257-271.

Murua Uribe-Etxebarria, A. (2000) *Lezoko Baserriak. Baserrien izana eta egoera*. Lezoko Udala, Lasarte-Oria.

Ott, S. (1981). *The Circle of the Mountains: A Basque Sheepherding Community*. Oxford, Oxford.

Todd, E (1997) "Identidad cultural, sistemas familiares e ideologías" in Roque M^a A (ed) *Identidades y conflicto de valores*. Bartzelona, Icara 107-112.

Turner, V. W. (1980). *La selva de los símbolos*. Siglo XXI. Madril.

Zulaika, J. (1996). *Del cromañón al carnaval*. Erein. Donostia.

EGILEEN BIOGRAFIA:

Araitx Rodriguez Gutierrez (Bilbo, 1981). Euskal Herriko Unibertsitatean Historiako lehen zikloa amaitu ostean Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatu zen 2003.urtean.

Garoa Gonzalez Fernandino (Hernani, 1980), 2003. urtean Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua eta 2005. urtean Historian Lizentziatua.

Nerea Elias Muxika (Ataun, 1980), Gizarte Hezkuntzan diplomatua 2001. urtean, Euskal Herriko Unibertsitatean. 2003. urtean Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua.

Usoa Barrutiabengoa Olazabal (Hernani, 1980), Historian lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean, 2002. urtean.

ATARITIK ANTROPOLOGIA TALDEA:

ARGITALPENAK:

- (2002) "Baserriaren duda" in Oiletetik. Alkizako herri aldizkaria. Alkiza.
- (2004) "Ahotsak. Emakumeak historian". Hernani (1936-1970). Hernaniko Berdintasun Saila. Hernani.

HITZALDIAK:

- (2003) "Gerra ondorengo memoria Hernaniko Emakumeen ahotan" UEUko Antropologia Saila.

ABIAN:

- Hernaniko Dobera euskara elkartearentzat. Hernaniko bi belaunaldiko gazteen bizi-erei buruzko ikerketa.